

4

Azterlan eta txostenen Bilduma

Laneratzekeo
zailtasun bereziak
dituzten
kolektiboak EAEn



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Araoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco

4

Azterlan eta txostenen Bilduma

Laneratze-ko
zailtasun
bereziak
dituzten
kolektiboak
EAEn



C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Araoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco

EEGABeko Osoko Bilkurak onartua 2005eko abenduan.

Ekonomia Garapenerako Batzardeak 2005eko azaroak 11an onartua.

UPV/EHUko Ekonomi Analiaren Oinarriak, II, Saileko Arantza Ugidos irakasleak zuzendutako txostena idatzi duen lantaldea.

EEGABeko bateratzailea: Fco. Javier Sasigain

© Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzardea

Gran Vía, 35-1. solairua

48009 BILBO

Maketazioa eta fotomekanika: Argia Servicios Gráficos, S. L.

Inprenta: Gestingraf, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-480-06

Aurkezpena

Azken urteotan, Euskal Autonomia Erkidegoan, enpleguak gora eta langabeziak behera egin dute, eta modu nabarmenean gainera, ekoizpen-jarduera izaten ari den portaera ezin hobearen eraginez; izan ere, 1995ean 712.700 pertsona okupatuta egotetik, 2005ean enplegu-tasa 950.000 pertsonakoa izatera heldu zen eta langabeen kopurua, 1995ean 222.000 pertsonakoa izatetik, 2005aren amaieran 50.000 pertsonakoa izatera heldu da; horren ildotik, langabezia-tasa 19 puntu murriztu zen, eta gaur egun %5ekoa da.

Bost urte horietan lan-merkatuak izan zuen bilakaera positiboak, ordea, ezin ditu ezkutatu azken urte hauetan are nabarmenagoak diren zenbait alderdi edo oztopo. Alderdi edo oztopo nagusienetako bat langabeziaren banaketan eta genero eta adinaren araberrako kontratazioan ezberdintasun handiak daudela da; horrela, zenbait kolektibo jakinek beste batzuek baino zailtasun handiagoak dituzte laneratzeko. Esandakoaren ildotik, alde handiak daude gazteei eta emakumeei dagozkien enplegu-tasen eta gainerako kolektiboek dagozkien artean. Alde horietako batzuk are handiagoak izango lirake aldagai horiek egindako ikerketetako emaitzekin alderatuko bagenu. Hala ere, aipatu beharra dugu baita ere azken urteotan talde ezberdinetako enplegu-tasek izandako murrizketa oso antzekoa izan dela; are gehiago, bi talde horiek dagokien langabeziaren murrizketa-tasa batezbestekoaren gainetik egon da. Izan ere, esan dezakegu emakumeak lan-merkatuko kuota handitu duela, gizonaren kuotarekin alderatuta, eta EBeko gainerako herrialdeetan ikusten den egoeratik gertuago kokatzen dela, nahiz eta oraindik ez den maila horietara heltzen.

Aipatutako problematika kolektibo horiek eskura dezaketen lanaren kalitatean ere antzematen da, besteak beste, lan hori behin-behinekoagoa dela, nahiz eta aldi honetan zehar oro har enpleguak gora eta langabeziak behera egin duten. Horren inguruan generoen eta adin-taldeen arteko ezberdintasunak

esanguratsuak dira, bai mailari bai bilakaerari dagokienez. Emakumeen artean behin-behinekotasunak %30 ingurukoa izaten jarraitzen du, gizonena baino bost puntu handiagoa. Alde hori hazi egin da hamarkada honetan, nahiz eta kolektibo horretan guztizko kontratazioak eta kontratazio finkoak gora egin duten, eta gizonezkoen artean baino bi aldiz gehiago; bestalde, 24 urtetik beheragoko gazteei dagokienez, behin-behinekotasunak %70 gaintzen du. Emakumeen artean ere, lanaldi partzialeko kontratuen kopurua handiagoa da. 1996an, mota horretako kontratuen %64 emakumeei egin zitzaizkien eta 2004. urtean, berriz, %71; horrela, beraz, gizonezkoen kopuruaren bikoitza hazi zen.

Lan arloan dituen arazoak direla medio arreta berezia eskaintzea merezi duen beste kolektiboetako bat urtebete baino gehiago lanik gabe dauden (alegia, luzaroko langabezian) dauden pertsonena da. 1996. urtearen hasieran, EAEko guztizko langabe-kopuruaren %60 baino gehiago ziren, baina 2004. urtearen amaieran, ehuneko hori %40ra murriztu da, eta gainerako langabezia-motak baino azkarrago. Izan ere, ikerketa honen ondorioetako bat da aurretik lan-esperezia duten pertsonen lana aurkitzeko aukera asko dituztela, lehen lana bilatzen dutenek baino askoz ere gehiago. Hala, beraz, langabezian dauden pertsonen ehuneko oso handi batek 12 hilabete igaro baino lehen aurkitzen du lana, ia %94ak; hori dela eta, horiek langabezian ematen duten denboraldia oso gutxitan izaten da 4 hilabetetik gorakoa. Kontuan izan behar dugu erabilitako datuak duela oso gutxi amaitu den aldiari dagozkiola (2000-2003).

Aipatu kolektiboen ezaugarri bereizleetako batzuk Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak egiten duen Lan Merkatuaren Erroldan jasotako informazioan jartzen dira agerian. 2001. urteari dagokion alean, honakoa adierazten da: EAEn langabezian dauden biztanle guztietatik %45,1 luzaroko langabeak dira; zifra hori %47,9ra heltzen da emakumeei dagokienez. Gainera, luzaroko langabeen

kopurua horien adinarekiko zuzenki proportzionala da. Esandakoaren adierazgarri gisa, 24 urte baino gutxiago dituzten langabeetatik %27,4k baino ez darama urtebete baino gehiago lan bila eta 45 urtetik gorakoan artean, ostera, %66,9k. Euskal Autonomia Erkidegoko luzaroko langabeen %41,8k oinarritzko ikasketak ditu eta %24,7k, berriz, unibersitatekoak.

Gure lan-merkatuak bizi duen moduko egoera kontuan hartuta —izan ere, langabezia-tasak Europako batez besteko tasaren gainetik egotea lortu du, baita hedapen ekonomikoko aldietan ere—, garrantzitsua da zehatz-mehatz ezagutzea zergatik ezin den tasa hori eskuragarri dauden giza baliabideak ezin hobeki erabiltzea ahalbidetuko duten mailetara murriztu; aipatu bezala, ezin izan da tasa hori murriztu, enplegu-politika aktiboak abian jarri diren arren. Dirudenez, zenbait talde demografikori (batez ere, gazteei, emakumeei, 45 urtetik gorakoei eta minusbaliatuei) laneratzen laguntzeko abiarazi diren politika ekonomikoak ez dira nahikoak talde horietan langabezia-tasa beste kolektibo batzuenen parera murrizteko, eta, beraz, itxuraz, ez diote arazoaren jatorriari aurre egiten; alderantziz, neurri horiek epe laburreko irtenbide gisa ezartzen dira eta ez dirudi kontuan hartzen duenik zeintzuk diren benetan kolektibo horiek dituzten arazoaren arrazoiak.

Orain aurkezten dugun ikerketa bi zatitan banatzen da. Lehenengoak lehen lanaren inguruko zenbait alderditan jartzen du arreta, besteak beste, lehen lana aurkitzeko aukeretan eta lehen lan horren ezaugarrietan (nagusiki gazteek ikasitakoaren mailarekin eta ikasitakoarekin berarekin bat ote datorren); eta, bigarrenak lehenik lan egin duten langabeen taldeari erreparatzen dio eta lana aurkitzeko dituen aukerak baldintzatzen dituzten faktore erabakigarriak aztertzen ditu. Bi kasuetan, ez dira soilik lana aurkitzen laguntzen duten faktore nagusiak aztertzen, baizik eta baita lana azkar aurkitzen laguntzen dutenak ere.

Lortutako emaitzen artean azpimarratu beharrekoa da, gazteei dagokienez, inolako lan-esperientziarik ez izateak oso lan-egoera ahulean jartzen dituela, nahiz eta horien hezkuntza-maila gero eta handiagoa den. Nolanahi ere, kasu gehienetan, ikasketen tipologia ez da lan-merkatuaren eskaria asetzeko egokiena

izaten, eta, hori dela-eta, desoreka sortzen da prestakuntza akademikoaren eta lan-beharren artean. Ikerketa honen bidez lortutako emaitzek argi eta garbi uzten dute, gazteei eskaintzen diren lan-aukerei buruzko informazioa eta hezkuntzaren eta lan-merkatuaren arteko loturen inguruko lanbide-orientazio hobea emango balitzaie, enplegu-emaitzak eta lehen lana bilatzen duten gazteak elkarren beharretara hobeto egokituko liratekeela, bai kantitateari bai kalitateari dagokienez, eta, horri esker, langabezia egiten diren aldiak laburtu egingo lirateke, baita horien iraupena murriztu ere.

44 urtetik gorako pertsonen dagokienez, topatu ohi duten zailtasun nagusia hartutako prestakuntzaren eta gaur egungo lan-merkatuak behar duen prestakuntza-motaren artean dagoen desoreka da.

Nolanahi ere, bai gazteen taldean bai 44 urtetik gorako pertsonen taldean, lana aurkitzeko zailtasun handienak dituztenak emakumezkoak dira. Horien artean, ikasketa-mailarekin batera (gizonezkoek baino batezbesteko handiagoarekin), ikasketa-motak ere garrantzi handia du; horren ildotik, ikus dezakegu emakume ugari dagoela giza zientziak, gizarte-zientziak eta osasuna bezalako ikasketa-arloetan, sortzen diren lanpostu hutsen kopurua baino askoz ere gehiago, eta, horren eraginez, zientzia teknikoekin erlazionatutako ikasketen sektoreetan lana aurkitzeko aukerak nabarmen gehitzen dira.

Ikerketa honek argibideren bat eman dezake egoera ahulagoan dauden taldeak *epe luzera* gutxitzea ahalbidetuko duten politikak diseinatzeko. Garrantzitsua da, noski, arazoa epe laburrean menperatzea, baina are garrantzitsuagoa da oinarriak jartzea arazoiari, ahal den neurrian behintzat, behin betiko irtenbidea aurkitu ahal izateko. Ezinbestekoa da gure lan-merkatua hobeto ezagutzea eta ulertzea langabeziaren arazoa epe luzera konpondu ahal izateko.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiogu hasierako txostena idatzi duen taldeari, hots, ekonomian doktore den Arantza Ugidos andreak zuzentzen duen EHUko Ekonomi Analiaren Oinarriak II Saileko lan-taldeari, oinarritzko lana zehaztasun eta ardura handiz gauzatu baitu.

Aurkibidea

1. IKERKETAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA	9
2. IKUSPEGI OROKORRA: LANAREN BILAKAERA AZTERTUTAKO ALDIAN	15
2.1. BIZTANLERIA, JARDUERA ETA LANA	15
2.2. LANGABEZIA	23
2.3. LEHEN LANA	35
2.4. HASIERAKO HEZKUNTZATIK LEHEN LANERA IGAROTZEKO PROZESUA	47
2.4.1. Kolektiboaren ezaugarri nagusiak	48
2.4.2. Hasierako hezkuntzatik lan-merkatuan baneratzeko prozesua deskribatzen duten faktoreak	50
2.4.3. Lehen lanaren eta eskuratutako prestakuntzaren arteko bat-etortze maila	56
LEHEN ZATIA: HASIERAKO HEZKUNTZATIK LEHEN LANERA IGAROTZEKO PROZESUA	61
3. LEHEN LANERA IGAROTZEARI BURUZKO ANALISI ENPIRIKOA	63
3.1. LEHEN LANERA IGAROTZEN DIREN GAZTEEN EZAUGARRI NAGUSIAK	63
3.2. LEHEN LANA AURKITZEKO AUKERAK ETA BILATZE DENBORA	71
3.2.1. LEHEN LANA AURKITZEKO AUKERAK EAEn aldi osoan zehar	72
3.2.2. LEHEN LANA AURKITZEKO AUKERAK ESTATUAN	73
a) Lehen lana aurkitzea baldintzatzen duten faktoreak: lagin osoari dagozkion emaitzak	75
b) Lehen lana aurkitzea baldintzatzen duten faktoreen analisia, sexuaren arabera	81
3.3. LEHEN LANAREN EZAUGARRIAK	88
3.4. LEHEN LANAREN ETA ESKURATUTAKO PRESTAKUNTZAREN ARTEKO EGOKITZE MAILA	97
BIGARREN ZATIA: LAN ESPERIENTZIA DUTEN LANGABEAK	107
4. LAN ESPERIENTZIA DUTEN LANGABEEN ANALISI ENPIRIKOA	109
4.1. LAN ESPERIENTZIA DUTEN LANGABEEN EZAUGARRI NAGUSIAK	109
4.2. LANA AURKITZEKO AUKERAK ETA BILATZEN EMANDAKO DENBORA	129
4.2.1. Lana aurkitzea baldintzatzen duten faktorek: lagin osoari dagozkion emaitzak	133
4.2.2. Lana aurkitzea baldintzatzen duten faktoreen analisia, sexuaren arabera	144
LABURPENA ETA ONDORIOAK	159
5. ONDORIO NAGUSIAK	161
5.1. LEHEN LANA AURKITZEA BALDINTZATZEN DUTEN FAKTOREAK	166
5.1.1. FAKTORE BALDINTZATZAILEAK EAEn	166
5.1.2. FAKTORE BALDINTZATZAILEAK ESTATUAN	166
5.1.3. LEHEN LANAREN EZAUGARRIAK ETA BAT ETORTZE MAILA	167
5.2. LAN ESPERIENTZIA DUTEN LANGABEEK LANA AURKITZEA BALDINTZATZEN DUTEN FAKTOREAK	169
5.2.1. FAKTORE BALDINTZATZAILEAK EAEn	170
5.2.2. FAKTORE BALDINTZATZAILEAK ESTATUAN	171
ERANSKINA	175
6.1. ERABILITAKO ALDAGAIAK	177
6.2. "BAT DATOR" ALDAGAIA TAXUTZEA	182
6.2.1. Trebakuntza mailaren araberako bat etortzea	182
6.2.2. Ikasketa sektorearen araberako bat etortzea	183
6.2.3. Bi aldagaiak gurutzatzen diren eremua eta "bat dator" kategoria taxutzea	185
6.3. KONTSULTATUTAKO BIBLIOGRAFIA	185

1. Ikerketaren helburua eta metodologia

LANERATZEKO ZAILTASUN BEREZIAK DITUZTEN KOLEKTIBOAK EAEn izeneko ikerketaren helburu nagusia kolektibo horiek zeintzuk diren eta zein ezaugarri dituzten ezagutzeko eta gainerako kolektiboen antzeko enpleguren bat aurkitzeko garaian zein eragozpen nagusirekin egin ohi duten topo erakustea da.

Egin diren ikerketa gehienetan, kolektibo horiek zeintzuk diren ezagutzeko batez besteko langabeziatasen datu agregatuak (makroekonomikoak) hartu izan dira oinarri gisa, baina ez dute maila indibidualen (**mikroekonomikoan**) sakondu kolektibo horiek langabeziatik atera eta lana aurkitzeko dituzten zailtasunen elementu erabakigarri nagusiak detektatzeko aldera.

Gainera, lan-merkatuan arazoak dituzten kolektiboen inguruan ahalik eta informazio osatuena eta zehatzena izateko, beharrezkoa da **analisi dinamikoa** egitea. Egin ohi den analisi estatikoa, abiapuntu modura garrantzitsua den arren, osatugabe dago, ez baititu kontuan hartzen intereseko aldagaian eragina duten aldagaiek denboran zehar jasaten dituzten aldaketak —intereseko aldagaia langileen enplegagarritasuna handitzea edo hobetzea da, edo, modu baliokidean, langabeziaren eragina eta iraupena murriztea—.

Jar dezagun adibide praktikoa. 1995ean —%24ko langabezia-tasarekin—, mota guztietako pertsonak zeuden langabezian; aitzitik, 2001ean —%11ko langabezia-tasarekin—, pertsona-talde jakin batzuk bakarrik zeuden lanik gabe. 6 urte horietan zehar, pertsona-talde handi batek lanpostu egonkorra aurkitu du, beste pertsona-talde batek noizbehinkako lana edo lan ezegonkorra aurkitu du (adibidez, aldi baterakoak; pertsona horiek, beraz, lana aurkitu dute, baina gero berriz ere lanik gabe geratu dira, eta hori behin baino gehiagotan gertatu zaie denboraldi horretan zehar) eta beste talde batek ez du lanik batera aurkitu (eta, ziurrenik, azken honen talde honi dagozkion ezauga-

rien antzekoak dituzten pertsonak lana aurkitu dute. Horren arrazoia analisi honetan aztertuko da).

Jakina, 2001eko egoera estatikoari erreparatu eta hori 1995eko egoera estatikoarekin alderatuz gero, ez dago informaziorik tartean gertatu denaren inguruan; hori aztertzea interesgarria da eta, nolabait, analisi dinamikoa egitera ere behartzen gaitu.

Baina, horrez gain, beharbada pertsona horien ezaugarriak ere aldatu egin dira denboraldi horretan zehar. Batzuek prestakuntzan sakondu dute, beste batzuek euren familia-egoera aldatu dute (seme-alabak izan dituzte eta, horren ondorioz, lan-merkatua utzi behar izan dute; e.a.) edo hezkuntza-maila handiagoa duten gazteek lanpostu berean hezkuntza-maila txikiagoa duten gazteak ordeztu dituzte; zenbait kasutan, gainera, lana aurkitzeko orduan ez da gauza bera 18 edo 24 urte izatea.

Honaino, lan-eskaintza bakarrik aztertzen da, eskaria aintzat hartu gabe, nahiz eta hau ere beharbada aldatu den: zikloaren aldirik onenean egoteak esan nahi du oro har lan gehiago dagoela talde guztientzat eta, beraz, batzuek lana aurkitzea lortu dute euren “*enplegagarritasun-maila*” txikia izan arren; ziklo baxuan, berriz ere langabezian egongo dira. Zerbitzu-sektorearen alde eta industria-sektorearen aurka egitura-aldaketaren bat eginez gero, lehen langabezian zeuden zenbait talderentzat (instrukzio-maila txikiko emakumeentzat) errazagoa izan daiteke orain lana aurkitzea eta, aldiz, okerragoa izan daiteke espezializatorik gabeko gizonetzkoen egoera, e.a.

Horiek lan-eskaintzaren analisi estatikoa baino egiten ez dugunean galtzen dugun guztiaren adibide gisa erabil daitezke.

Hori dela eta, ikerketa honen bidez, gure lan-merkatua hobeto ezagutzen eta ulertzen saiatuko gara eskura dauden datu-base egokienak oinarri hartuta; halaber, lana aurkitzeko zailtasun gehien dituzten langile-taldeak zeintzuk diren ikusiko dugu eta, horre-

kin batera, zailtasun horiek sortzen dituzten faktore nagusiak detektatuko ditugu. Horretarako, datuei ez diegu ikuspegi estatiko soiletik bakarrik erreparatu-ko, baizik eta baita beste ikuspegi berriago batetik ere, ondorio aberatsagoak eta interesgarriagoak atera ahal izateko.

Helburua ez da laneratzeko arazoak dituzten kolektiboak zeintzuk diren a priori ezartzea, baizik eta ikerketa laneratzeko arazo horiek aztertzerantz bideratzea eta, ondoren, horiek zehazki kolektibo jakinen bati dagozkion finkatzea.

Horrela, hobeto ikus daitezke zein ezaugarri bereizle dituzten talde horiek eta zeintzuk diren zehazki lana (edozein lan) edo lan ona (egokia, edozelan definitzen dugula ere) aurkitzeko arazoak, lanari buruzko inkestetan erabil daitezkeen ezaugarri guztiak (pertsonalak, hezkuntzakoak, familiakoak, geografikoak, e.a.) ondo ustiatuta.

Gainera, esan beharra dago ezberdina dela lehen lana aurkitzea eta lana aurkitzea, azken kasu honetan lan hori lehenengoa ez denean.

Bi kasu horietan, helburua zailtasun gehien dituzten kolektiboak detektatzea da, bana-banako datuen analisi **mikroekonomikoan** gehiago sakonduta, kolektibo horiek langabeziatik atera eta lana aurkitzeko dituzten zailtasunen eragile nagusiak detektatu ahal izateko.

Lan-planari ekiteko, datuen **analisi deskribatzaile** oso zorrotza egingo dugu (lan enpiriko ororen aurreko, eta funtsezko, etapa) eta, horretarako, lagin-eko gizabanako guztiak aztertuko ditugu.

Aurreko fase deskribatzaile hau funtsezkoa da, laneratzeko zailtasun gehien izan dituzten langileak zeintzuk diren iradokiko baitu. Horrela, beraz, analisi estatiko hau egiteko, lehendabizi EINEk garatzen duen Biztanleria Aktiboaren Inkestako (BAI) datuak aztertzen hasiko gara.

Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) inkesta jarraitua da eta bere helburu nagusia jarduera ekonomikoa ezagutzea da, horren giza osagaia aintzat hartuta. Lan-merkatuan aurki daitezkeen biztanleria-aren kategoria ezberdinei buruzko informazioa ematen du (persona okupatuak, langabeak, aktiboak eta ez-aktiboak) eta kategoria horien sailkapena egiten du

hainbat aldagai oinarritzat hartuta. Aldi baterako emaitza-segida homogeenok lortzea ere ahalbidetzen du.

Inkestak gizabanakoaren sexuari, adinari, bizileku duen probintziari, hezkuntzari eta horri dagokion arloari eta egoera zibilari buruzko informazioa ematen du. Halaber, gizabanakoaren lan-egoerari buruzko xehetasunak ere eskaintzen ditu. Gizabanakoa lanean badago, lan-motari buruzko informazioa ematen du (okupazioa, arloa, kontratu-motak) eta, langabezia egonez gero, berriz, lana aurkitzeko erabiltzen dituzten bilatze-metodoen berri ematen da.

Ikerketa honetan iturri hori aukeratzeko beste arrazoi garrantzitsu bat da 2000ko bigarren hiru hilabetean BAI beste zenbait galdera barneratzen direla beren beregi **hezkuntzatik lan-merkatura igarotzearen** ingurukoak. Aldi horretan inkestak beste modulu bat ere barneratu zuen ikasketak amaitu edo bertan behera utzi dituzten gazteak lan-merkatura igarotzearen ingurukoak. Modulu hori azken hamar urteetan (1991tik inkesta egin zeneko urtera) ikasketak edo hasierako prestakuntza amaitu, bertan behera utzi edo urtebete baino gehiago eten dituzten 16 eta 35 urte bitarteko pertsonen zuzenduta dago (ikasketek dagokienez, aipatu beharrekoa da ezinezkoa dela ikasketak utzi eta bukatzearen artean bereiztea). Hasierako hezkuntza lehen hezkuntzatik hasita eta urtebete baino gehiagoko inolako etenik gabe egiten diren ikasketak edo prestakuntza dira. Ikasketez edo prestakuntzaz hitz egiten dugunean, horietan ikaske- ta orokorrak nahiz lanbide-ikasketak barneratzen ditugu, horiek arautuak edo ez-arautuak eta lanaldi osokoak edo partzialekoak diren kontuan hartu gabe.

Modulu horri esker, lehen enplegu esanguratsua aurkitzeko aukeretan (erraztasun edo zailtasunean) eragina izan dezaketen ingurune ekonomikoaren faktoreak eta banakako ezaugarriak azter ditzakegu. BAI lehen enplegu esanguratsua inkesta egin duen hasierako ikasketak edo prestakuntza lehen aldiz amaitu, bertan behera utzi edo eten ondoren aurkitzen duen lana izango da, gutxienez 6 hilabetez eta astean 20 ordu edo gehiago aritzen bada.

Analisi hori egiteko, moduluaren xede den biztanleria osatzen duten 16 eta 35 urte bitarteko 11.277 gazteko lagina hartu da (horietatik 714 EAE

bizi dira); moduluko galderei erantzun zieten atzerri-tarrak (guztizko lagin horren %1,12) lagin horretatik kanpo utzi dira. Ez dira lagin horretan barneratu ezta ere ikasketak amaitu edo bertan behera utzi zituzten 16 urtetik beherako gazteak, legeriari jarraiki ezin baitute oraindik lan-merkatuan sartu.

Modulu honetan inkesta egin dutenek ikasketak bertan behera utzi edo eten zituzteneko aldia kontuan hartuta erantzun diete galderei eta, beraz, jasotako informazioa ez dagokio 2000ko bigarren hiruhilekoari, baizik eta 1991 eta 2000 bitarteko aldiari.

BAIz gainera, batzuetan **Europar Batasuneko Etxeen Paneleko (PHOGUE)** informazio osagarria erabiliko da. Horrek Europako Erkidegoari buruzko informazio estatistikoa eskaintzen digu, alderdi estatistikoki dagokionez etxeei zuzendutako gainerako inkestekin (BAI, FPI) integratua. Horren helburua Batzordeak duen partidei buruzko informazio-beharrari erantzutea da, eskumen-eremu ezberdinetan gizarte-politika prestatzeko eta politika horiek Europar Batasunaren (EB) lurralde osoan dituen ondorioen jarraipena egiteko.

Panel honek informazio longitudinala biltzen du, alegia, denboran zehar aldi ezberdinetan etxe- eta pertsona-multzo berari buruzkoa; bertan, intereseko aldagaien aldaketa gordina (gizabanakoari dagokiona) ikus daiteke, eta ez, soilik, aldaketa garbia; hala-ber, gertakari batetik bestera nola igarotzen den, zenbat denbora dagoen eta zenbat irauten duten aztertzen da. Hau da, pertsona- eta etxe-multzo berraren jarraipena egiten du eta baldintzak eta politika sozioekonomikoak aldatzean euren bizitzan zer aldatzen den eta aldaketa horien aurrean nola jokatzten duten aztertzen du.

Hezkuntza-prestakuntza-enplegua harremana panel honetan jasotzen da, ezin baita behar bezala landu zeharkako azterlanetan; bertan, eskolatik lan-mundura igarotzeko prozesua aztertzen da eta lanetik erretirora eta langabeziatik enplegura igarotzeko prozesuei, lan-ezintasunari eta laneko gizarte-laguntzari lotuta egin diren lanbide-prestakuntzako politiken eraginkortasuna ebaluatzen da.

Ildo horretatik, PHOGUEk lan-merkatuaren bilakera aztertzen du, enpleguaren epe laburreko mugimenduei buruzko informazioarekin batera, horien ar-

tean, langabezia-motak (iraupen laburrekoak, iraupen luzeak eta lanaldi partzialeko enpleguak), noiz-behinkako langabezia lanera itzultzea, lanaldi partzialeko enpleguaren arrazoiak eta ezaugarriak, laneratze-agentziek lan-bilaketaren emaitzan duten eragina, lana eta langabezia txandatzearen arrazoiak, lana izatetik inaktibitateko egoerara —eta alderantziz— igarotzeko maiztasuna eta arrazoiak, prestakuntza-mailaren eta egoera sozioekonomikoaren arteko harremana, gurasoen prestakuntza, haien lanbidea eta egoera profesionala, eskolatik lanera igarotzeko prozesuaren kalitatea, lanaren egonkortasuna eta lan-aldaketen maiztasuna prestakuntzari dagokionez edo diru-sarreraren bilakaera prestakuntza-mailaren arabera, e.a.

Ikerketa honi hasiera ematen dion analisi estatiko hau, interesgarria den arren, osatugabe dago. Alde batetik, ez dira kontuan hartzen lana aurkitzeko aukeretan eta azkartasun-mailan eta, ondorioz, baita langabeziaren iraupenean ere, eragina duten aldagai argitzaileek denboran zehar dituzten aldaketak. Bestalde, ez gara gizabanako berak alderatzen ari eta aldagai argitzaile horiek ez dagozkien ondorioak dituztela esaten ari gintezke, analisi estatikoaren bidez kontrola ezin daitezkeen aldaketen eraginez sortuak izango balira.

Lehenengoz lanean hasteari buruzko informazio gehigarri honekin, hobeto uler dezakegu igarotze hori (zaila baita zehatz-mehatz ulertzea eskuragarri ditugun beste datu-base batzuetan) eta, horrela, xehe-tasun handiagoz azter dezakegu zein kolektibok dituzten zailtasunak *lehen lana* aurkitzeko.

Lehen lana bakarrik aintzat hartuz gero, laginean gazteak baino ezin ditugu barneratu, baina, horri esker, sexua, hezkuntza-maila, egiten dituzten ikasketak, lan-egoera, gurasoen hezkuntza eta bizileku duten probintzia bezalako aldagaiek lehen lana aurkitzeko **aukeretan** eta horretarako azkartasun-mailan eraginik ba ote duten azter dezakegu.

Lehen lana aurkitzeko aukeren analisi enpirikoa egiteko, gizabanako bat hartu behar dugu erreferentzia modura, horrela, intereseko aldagai ezberdinek (sexua, ikasketak-maila, ikasketen arloa, gurasoen lan-egoera, e.a.) aukera horietan duten eragina neur-tu ahal izango baitugu. Horretarako, erreferentziatzko

gizabanakoak eta, horrekin alderatuta, ezaugarri bakar batengatik desberdina den beste gizabanako batek lehen lana aurkitzeko dituzten aukeren artean batezbestekoa atera behar dugu (izan ere, bi gizabanako horien artean aldagai edo ezaugarri bakarra aldatzen da eta aztertzen ari garen gainerakoak berdin edo konstante mantentzen dira).

Gainera, lana aurkitzea bezain garrantzitsua denez enplegu egokia eta egonkorra aurkitzea, ez zaigu interesatzen soilik lehen lana aurkitzeko aukeretan eragina duten faktore nagusiak zeintzuk diren aztertzea, baizik eta baita zein motatako lanak aurkitzen dituzten ere (industria, eginkizunak, kontratu-mota, e.a.).

Horrela, hasierako ikasketak amaitu, bertan behera utzi edo eten zituztenean gazteek euren lehen lanean egin behar izan zituzten zereginak prestakuntza akademikoan aukeratu zuten arloarekin eta bereganatu duten kualifikazio-mailarekin bat datozen lanpostuak diren aztertuko dugu.

Horrela, informazio hori biltzen duen aldagai kuantitatiboa osatzen da, **bat etortze maila** neurtzen duena. Aldagai horrek bat balioa du pertsonaren lanpostua hasierako ikasketak amaitu, bertan behera utzi edo eteten dituen momentuan dituen prestakuntza-mailarekin eta ikasketen arloarekin bat datorrela edo hauek baino goragoko kategoriakotzat dela pentsatzen bada¹, eta zero aurkako egoeran. Lanpostu jakin batean aritzeko, pertsona jakin batek duen kualifikazio-maila behar bada, baina ikasketak egiteko aukeratutako arloa ezberdina bada, **bat ez datorrela** esaten da.

Ikerketa honen bigarren fasean, xehetasun handiagoz aztertuko dira talde horietako bakoitzak lana aurkitzeko dituzten zailtasun edo oztopoak. Hori dela-eta, lana aurkitzeko zailtasunak dituzten kolektiboak sakonago aztertzeari ekingo diogu, **testuinguru dinamikoa** ere aintzat hartuta. Horri esker, kolektibo jakin batzuek lan-merkatuan aurkitu dituzten zailtasunen atzean zein faktore nagusi dauden argituko dugu.

Fase honetan, bi zati bereiz daitezke:

Lehen zatian **euren lehen lana bilatzen dabiltzan langileak** dira nagusi. Horri esker, *gazteenen kolektiboa eta hezkuntza-sistematik lan-bizitzara igarotzeko prozesua* aztertu ahal izango ditugu. Lortu-

tako datuek talde horretan zailtasun gehien dituztenak eta zailtasun horien eragile diren faktore nagusiak jarriko dizkigute agerian. Zenbait aldagai objektibok zailtasun horiek neurtzen lagun diezagukete, horien artean, langabezia-tasak eta lehen lana aurkitu bitartean igarotzen den denboraldiaren iraupenak. Baina, horrez gain, zailtasun horiek ez dira soilik lana aurkitzerakoan sortzen, baizik eta baita lan *egokia* aurkitzerakoan ere; hori dela-eta, zein motatako lanpostutara heltzen diren, euren hezkuntza-mailarekin eta egindako ikasketekin koherenteak ote diren, e.a.

Ikerketaren zati honetan, lehen lana lortzen duten langileen artean ezberdintasunik ba ote dagoen ikusi nahiko genuke, nahiz eta ekoizpenaren ikuspegitik ez den inolako ezberdintasunik antzeman. Gure ustez, alderdi hori interesgarria da, lehen lana langile ororen lanbide-karreran oso erabakiorra izan baitaiteke.

Bigarren zatian lana aurkitzeko dagoen arazoaren beste alderdi bat aztertzen da; alegia, **langileak lehendik esperientzia** izan dezakeela lan-merkatuan.

Bereizketa hori garrantzitsua da, langilea lehendik jada lanean aritu bada, lana aurkitzeko aukeretan eragina izan dezaketen faktoreak baitaude, lehendik esperientziarik ez duten langileen kasuan gertatzen ez den bezala; faktore horien artean ditugu, besteak beste, lehengo lanbidea, lanpostua edo arloa, izan dituen lanen kopurua eta langabezia izan den aldiak. Kasu honetan, jada ez ginateke a priori adin-talde jakin batean zentratuko. Jarraitu beharreko urratsak aurreko paragrafoan emandakoen antzekoak izango lirateke, baina, talde hau heterogeneoagoa denez, egingo den analisisian aniztasun handiago hori ere hartu beharko litzateke aintzat.

Bigarren etapa honetan intuiziozko metodo kuantitatibo oso sinpleak aplikatuko dira; horiei esker, intereseko aldagaien eragina modu zehatzagoan isola dezakegu (intereseko aldagai horiek aurretik egindako analisi deskribatzailetik ateratzen dira). Zati honetan ere, Biztanleria Aktiboaren Inkesta Lotua erabiliko dugu; kasu honetan, gizabanakoa sei hiruhilekotan jarraian baino ez dugu aztertzen, hau da, urte eta erdi, eta informazio hori Etxeen Paneleko datuekin osatuko dugu (Panel horrek ondoz ondoko bost urtetan zehar (1994tik 1998ra) gizabanako berdinei buruz jasotako informazioa erakusten du).

Hirugarren fasean, kolektiboak multzotan banatuko dira, ezaugarri homogeenen (taldearen barruan) eta bereizgarrien (beste talde batzuekin alderatuta) arabera, horien potentzialtasunak adieraziko dira eta oztupoak kentzeko neurri egokiak ezarriko dira. Era horretan, behin arazoa behar bezala detektatuta eta zein taldetan eragiten duen finkatuta, askoz ere errazagoa da arazoari modu eraginkorrean aurre egingo dioten konponbideak (politika ekonomikoak) proposatzea.

Aipatu beharrekoa da ikerketa honen emaitzak, funtsean, bi laginetatik datozela, biak ere **EIN**ek egiten duen **Biztanleria Aktiboaren Inkestatik (BAI)** ateratakoak, eta, beraz, horietatik lortutako informazioaren fidagarritasun-maila aztertutako biztanleriarekin duen egokitzapen-mailaren arabera egongo da (lagina biztanleriaren zati adierazgarria da, horren ezaugarriak erakusten dituen).

- Lehenik eta behin, BAiren 2000ko **bigarren hiruhilekoari dagokion hezkuntzatik lan-merkatura igarotzeko modulutik**. Modulu horretan, euren ikasketak edo hasierako prestakuntza azken hamar urteotan (hots, 1991tik 2000ra bitartean) amaitu, bertan behera utzi edo urtebetez baino gehiagoz eten dituzten 16 eta 35 urte bitarteko pertsonak barneratzen dira eta hori oinarri hartuta, lehen lan esanguratsua (hots, gutxienez 6 hilabete

iraun eta astean 20 ordu edo gehiago sartzea daren lana) aurkitzeko aukerak azter daitezke. Hasierako lagina 11.277 gaztek osatuta dagoen arren (horietatik 714 EAEn bizi dira), datuak homogeneizatzeko aldera azterlan enpirikoan 2.454 kasuren jarraipena egiten da Espainian eta 136rena EAEn (elkarrizketa egin zenetik —1997tik 2000ko ekainera— datuak ahalik eta berrienak izan daitezzen ahalegindu gara eta, bertan, gurasoei buruzko informazioa eta aurkitutako lanari buruzko informazio osoa dutenak hartu dira aintzat).

- Bigarrenik, **Fluxuen Inkesta edo Biztanleria Aktiboaren Inkesta** Lotua deituta. Inkesta horrek 2000ko lehen hiruhilekotik 2003ko hirugarren hiruhilekora arteko aldia barne hartzen du. Inkesta hiru hilean behin egiten da eta gizabanako berdin jarraipena egiten du, 18 hilabetez Estatuan eta 15 hilabetez, aldiz, EAEn; horrela, laginak ahalik eta gizabanako gehien bilduko ditu eta analisi enpiriko zehatza egin ahal izango da (datu horiek behar bezala anonimatu dira, informazioaren konfidentzialtasuna bermatze aldera). Laginak 392 jarraipen egiten ditu EAEn eta 1.723 Estatu osoan. Jarraipenaren xede diren gizabanakoak langabezian daude lehen elkarrizketa egiten zaienean eta gehienez ere hiru hilabete daramatzate lan-egoera horretan.

2. Ikuspegi orokorra: Lanaren bilakaera aztertutako aldian

Arestian aipatu bezala, beharrezkoa da aurretik analisi deskribatzailea egitea, lana aurkitzeko zailtasun handienak dituzten langileak zeintzuk diren emango baitu aditzera.

Analisi estatiko honek urte jakin batzuetan jartzen du arreta eta, pertsonen hainbat ezaugarritan oinarrituta, lan-merkatuan dauden aldeak eta horien bilakaera aztertzen ditu. Horrez gain, lan hori lehen lana den edo ez ere hartuko da kontuan, aipatu dugun bezala.


2.1. Biztanleria, jarduera eta lana

Espainiako gizarteak azken urteotan jasan dituen aldaketa demografikoak aztertzea ezinbestekoa da lan-merkatuaren adierazle nagusiek berriki izan duten eta etorkizunean izango duten bilakaera ulertzeko.

Joan den mendearen bukaerako azken urteetan, gizarteak aldaketa garrantzitsuak jasan zituen eta, horiei esker, garatuen zeuden inguruko gizarteetara hurbildu zen. Aldaketa horien artean, ugalkortasunaren beherakada, emakumeek lan-munduan duten parte-hartzearen handitzea eta hezkuntzaren gorakada dira aipagarrienak.

Oinarrizko adierazle demografikoen artean, ugalkortasuna aldatu da gehien azken denboraldian. Espainia, Italiarekin batera azken urteotan munduko ugalkortasun-indize sintetikorik baxuena (hau da, seme-alaben batez besteko kopururik txikiena emakumeko) duen herrialdea izanik, hainbat aldaketa jasaten ari da eta horiek areagotu egingo dira datozen urteetan. Estatuan, ugalkortasun-indize sintetikoak behera egin du, 70eko hamarkadan emakume bakoitzari batez beste hiru seme-alaba baitzegozkion eta men-

1. IRUDIA. UGALKORTASUN-INDIZE SINTETIKOA. ESTATUA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



Iturria: "Biztanleriaren mugimendu naturala", Estatistikako Institutu Nazionala.

de berriaren hasieran, aldiz, 1,2 seme-alaba, EAEko indizea 1,06koa izanik (1. irudia).

Jaiotza-kopuruak izan duen beherakadak, datozen urteetan suspertu egin daitekeen arren, biztanleriaren osaera aldatu du eta, hori dela-eta, biztanleria aktiboan nahiz langabeen kopuruan izango du eragina.


Estatistikako Institutu Nazionalak 1991ko errol-dako datuez baliatuta egin dituen proiektzioek erakusten dutenaren arabera (2. irudia), Espainiako biztanleen osaera adina aintzat hartuta aldatu egin da eta are gehiago aldatuko da datozeen urteetan ere. Horrela, 70 urtetik gorako biztanleen kopurua, 1970ean guztizko biztanle-kopuruaren %6 izatetik, 2003an biztanle guztien %12 izateraino hazi da eta %24 izatera ere helduko da 2050ean. Bestalde, 30 eta 39 urte bitarteko adin-taldea 1970ean biztanle guztien %13 zen; 2003an, aldiz, %17 ingurukoa da eta 2050ean %11ra murriztuko da. Oro har, lanerako adina duten biztanleen ehunekoak behera egingo du datozen urteetan; horrek 65 urtetik gorakoen kopurua gehitzea eragingo du eta, ondorioz, belaunaldien arteko menpekotasuna handitu egingo da.

Lanerako adina, hots, 16 eta 65 urte bitartean, duten biztanleen kopurua pixkanaka-pixkanaka hazten joan da azken urteotan, 60ko eta 70eko hamarkadetan izan zen baby-boom delakotik sortutako belaunaldiak lan-merkatuan sartzearen ondorioz (3. irudia), baina gutxitzen joango da belaunaldi gazteenen kopurua murriztu ahala. Horrela, aktibo gutxi batzuek arduratu beharko dute gero eta ez-aktibo gehiago egoteak ekarriko duen gizarte-gastuaz.

Lan-merkatuan, 16 eta 65 urte bitarteko biztanleak (lanerako adina duten biztanleak) oso ezberdin banatzen dira gizon eta emakumeen artean. Adin-talde horretako biztanleen kopuruak gora egin duen arren 70eko hamarkadaz geroztik, jarduerarekiko harremanaren arabera duen banaketa asko aldatu da gizon eta emakumeen artean (4.1 eta 4.2 irudiak).


Gizonei dagokienez, lanerako adina dutenen artean okupatuen ehunekoa murriztu egin da eta 70eko hamarkadaren bukaeran %80ekoa inguru izatetik, azken urteotan %60 baino zertxobait gehixeago izatera igaro da. Emakumeei dagokienez, zifra hori hazi egin da eta ia %27koa izatetik %36 baino zertxobait gehixeago izatera heldu da denboraldi berean. Horrela, beraz, la-

2. IRUDIA. BIZTANLEEN BANAKETAREN PROIEKZIOA, ADIN-TALDEKA (%), ESPAINIA



Iturria: EIN, "2001eko erroldan oinarritutako biztanleriari buruzko proiektzioak".

3. IRUDIA. LANERAKO ADINA DUTEN BIZT. ETA MENDEKOT.RATIOA



Iturria: EIN, "2011eko erroldan oinarritutako biztanleriari buruzko proiektzioak".

nerako adina duten biztanleen arteko okupatuen guztizko ehunekoa orain dela 30 urtekoaren berdina da, nahiz eta atzeraldietan murriztu egin den (80ko hamarkadaren erdialdean eta 90ekoaren hasieran).

70eko hamarkadaren erdialdetik hona Euskal Autonomia Erkidegoan %55 inguruko jarduerataza erregistratu da, nahiz eta azken urteotan apur bat gora egin duen. Horren oinarrian emakumezkoen jarduerataza izan duen hazkunde nabarmena dago, gizonzkoenak behera egin duen bitartean (41. irudia).

Azken 20 urteotan, 20 eta 49 urte bitarteko gizonzkoen jarduerataza ia-ia ez dira aldatu; aitzitik, gazteenen (hots, 16 eta 19 urte bitarteko gizonzkoen) eta helduagoen (hau da, 55 urtetik gorakoen) jarduerataza nabarmen murriztu dira (42. irudia). Jarduerataza altuenak 25 eta 49 urte bitarteko gizonzkoenak dira, %95 ingurukoak.


Bestalde, 25 urte baino gehiagoko adin-taldeetan barneratzen diren emakumezkoen jardueratasek hazkunde garrantzitsua izan dute 80ko hamarkadaren azken urteetatik hasita, 55 urtetik gorako taldeetan izan ezik, horiek lan-merkatuan duten partaidetza konstan-

te mantendu baita (43. irudia). Ostera, 20 eta 24 urte bitartean eta 16 eta 19 urte bitartean dituzten emakumezkoen jardueratasek murriztu egin dira, batez ere azken talde horri dagokiona, 1976an %52ko jarduerataza izatetik 2000n %11koa izatera igaro baita.

Hori ere emakumea lan-merkatuan barneratu izanarekin lotuta dago. Ikasi duten emakumeen kopurua gehitzen joan ahala, biztanle aktiboen artean ere emakumeen kopuruak gora egin du. Bitarteko adin-taldeetan, alegia, 24 eta 35 urte bitartekoei dagozkietan, adin hori duten biztanle guztietatik goi-mailako ikasketak dituzten emakumeen proportzioa jada %40 ingurukoa da 2001ean. Gizonzkoen kasuan, proportzio hori %30 baino zertxobait handixeagoa da urte berean. Hala ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, emakumeen hezkuntza-mailan gorakada ikusgarria egon den arren, oraindik ere laneratzeko zailtasun ugari dituzte.


Hortaz, EAEko lan-merkatuaren osaera aldatu egin da; horrela, gora egin du 25 eta 54 urte bitarteko emakume aktiboen kopuruak eta behera, berriz (eta modu nabarmenean gainera), 16 eta 19 urte bi-

4A. IRUDIA. 16 URTETIK GORA GIZONEN BANAKETA, JARDUERAREKIKO DUTEN HARREMANANREN ARABERA




Iturria: E.I.N. "BAI".

4B. IRUDIA. 16 URTETIK GORA EMAKUMEEN BANAKETA, JARDUERAREKIKO DUTEN ERLAZIOAREN ARABERA



Iturria: E.I.N. "BAI".

5. IRUDIA. JARDUERA-TASA, GUZTIZKOA ETA SEXUAREN ARABERAKOA. EAE

Iturria: E.I.N. "BAI".

tarteko biztanle aktiboen kopuruak, nola gizonezkoen hala emakumezkoen dagokienez. 20 urtetik beherako biztanle aktiboen kopuruan izandako beherakada azken urteotan gazteen prestakuntza-maila handitu egin delako gertatu da. Gainera, azken 15 urteotan, EAEn bigarren hezkuntzako nahiz unibertsitateko ikasketak egin dituztenen jarduera-tasak zertxobait hazi dira eta lehen hezkuntzako nahiz hortik beheragoko ikasketak dituztenen jarduera-tasak, berriz, murriztu, eta nabarmen murriztu ere (8. irudia).

Bestalde, inaktibitate-tasa konstante mantendu da azken 20 urte hauetan zehar, nahiz eta bere osararen zenbait aldagata gertatu direla antzeman dezakegun (45. irudia). Etxeko lanetan diharduten pertsona ez-aktiboen ehunekoa gutxitu egin da eta erretirodunen nahiz pentsiodunen dagokien ehunekoa, aldiz, hazi. Urte horietan guztietan zehar inolako aldagatarik jasan ez duen taldea ikasketen arabera sailkatutako pertsona ez-aktiboena da; talde horrek ez-aktiboguztien %19 hartzen du bere baitan.


Kontuan izan behar dugu Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak atzeraldia izan zuela 1976tik

1985era bitarteko aldian; atzeraldi horren adierazgarri dugu enplegu-tasan izandako murrizketa (46. irudia). 80ko hamarkadaren bukaera aldera, tasa horrek nolabaiteko susperraldia izan zuen. 1992an eta 1993an, ordea, guztia zapuztuta geratu zen eta tasak berriro behera egin zuen. 1995az geroztik, gora doa apurka-apurka, nahiz eta 2002an oraindik ez den heltzen 1976an erregistratutako %52ra.


Hala eta guztiz ere, sexuen arteko aldeak nabarmenak dira. Enplegu-tasa orokorrean aurretik izan zen beherakada neurri handi batean gizonezkoen enplegu-tasak behera egin zuelako eta emakumeena murrizketa hori konpentsatzeko adina hazi ez zelako gertatu zen. 80ko hamarkadaz geroztik, emakumeen enplegu-tasa etengabe hazten joan da eta, neurri handi batean, azken urteotan enpleguan erregistratu den gorakadaren eragilea izan da.

Gizonen eta emakumeen enplegu-tasen arteko aldeari dagokionez, azken urteotan txikitzen joan den arren, ezin izan da desagerrarazi eta 1994az geroztik, egonkor mantendu da, aldea 20 bat portzentaje-puntukoa izanik.

6. IRUDIA. GIZONEZKOEN JARDUERA-TASAK ADIN-TALDEKA. EAE




7. IRUDIA. EMAKUMEZKOEN JARDUERA-TASAK ADIN-TALDEKA. EAE




Adinaren arabera, enpleguan ere alde handiak daude gizon eta emakumeen artean, hurrenez hurren, 14 eta 15. irudietan ikus dezakegun bezala. Gizonez-

koen artean, enplegu-tasek oro har adin-talde guztientzat behera egin dute 1976az geroztik, nahiz eta talde horietako bakoitzak izan duen ibilbidea oso ez-

8. IRUDIA. JARDUERA-TASAK IKASKETA-MAILAREN ARABERA. EAE




9. IRUDIA. JARDUERA-TASA (%), INAKTIBITATE-MOTAREN ARABERA




berdina izan den. 55 urtetik gorakoentzat enplegu-tasak behera egin du etengabe eta gazteenentzat (hots, 16 eta 19 urte bitartekoentzat), berriz, ia etengabe.

Aldaketa nabarmenenak 20 eta 24 urte bitarteko adin-taldean antzeman daitezke, portaera ziklikoagoa izanik. Emakumeei dagokienez, 16-19 eta 20-24 urte

10. IRUDIA. ENPLEGU-TASA, GUZTIZKOA ETA SEXUAREN ARABERAKOA. EAE




11A. IRUDIA. ENPLEGU-TASA, ADIN-TALDEAREN ARABERA. EAE. GIZONEZKOAK



Iturria: EIN, "BAI".

bitarteko adin-taldearen enplegu-tasek ere behera egin dute, gizonezkoen dagozkienek baino are gehiago. Emakumeen enplegu-tasetan aipatu beharreko alder-

di garrantzitsuenak 25 eta 54 urte bitarteko emakumeen taldean izan den etengabeko gehikuntza da. 30 urte eskasetan, emakume horien enplegu-tasa adin-

11B. IRUDIA. ENPLEGU-TASA, ADIN-TALDEAREN ARABERA. EAE. EMAK.

Iturria: EIN, "BAI".

tarte horretako emakumeen %25 baino gutxiagokoa izatetik azken urtean %60 gainditzera pasa da.

2.2. Langabezia


Aztertutako urteetan lan-merkatuan antzeman dugun beste alderdi garrantzitsuetako bat langabezia-tasa ikaragarriak erregistratu direla da, neurri batean, enpleguak izan duen gorakadarekin bat etorri ez den jarduera-hazkundeak eraginda. Langabezia 80ko hamarkadaz geroztik lan-merkatuak dituen arazo nagusienetako bat da eta, batez ere, gazteengan eta emakumeengan du eragina. Izan ere, EAEn, guztizko langabezia-tasa biztanleria aktiboaren %25 ingurukoa izan zen 1994an, Europar Batasuneko zifrarik altuena, eta batez ere emakumeengan izan zuen eragina, 1985 eta 1995 artean %30 gainditu baitzuen. Nolanahi ere, azken urteotan, beherakada jasan du eta, gaur egun, %7,5 baino baxuagoa da eta Europar Batasuneko tasaren azpitik dago; hori dela eta, lan-merkatura sartzeko zailtasunak nabarmen murriztu dira oro har.

Langabeziari dagokionez, 1976an EAEk Espainiako estatuko langabezia-tasarik baxuenetakoa zuen (%4); tasa hori hazten hasi zen eta 1986an eta


1993an azken 20 urteotako tasarik altuenak erregistratu ziren, %25 ingurukoak. 1994az geroztik, guztizko langabezia-tasa murrizten joan da eta 2002an %8koa izan da. Langabezia-tasak batez ere emakumeengan izan du eragina; 1993an, adibidez, %34ko langabezia-tasa erregistratu zuen kolektibo horrek. Azken urteotan, langabezia-tasa altuenak 16 eta 19 urte bitarteko emakumezkoek eta, horien atzetik, 20 eta 24 urte bitartekoek izan dituzte; aldi horretako urte gehienetan, tasa horiek %50etik gorakoak izan dira. Gainerako adin-taldeei dagokienez, langabezia-tasak gora egin du eta 2000. urtean, %13tik gorakoa izatera heldu da (13.A irudia).

Gizonezkoiei dagokienez, 16-19 urte bitarteko gazteak eta, horien atzetik, 20-24 urte bitartekoak dira langabezia-tasa altuenak dituztenak; tasa horiek ez dira urte askotan %50etik gorakoak izan (emakumezkoen kasuan bezala), baina ez dira %20tik behera egon 1998ra arte. 2000n, 20-24 urte bitarteko gizonezkoen langabezia-tasa %17koa izan zen, nahiz eta 2004an %21,5ekoa izatera heldu den (13.B irudia). Gainerako adin-taldeetan, 25-29 urte bitartekoan izan ezik, langabezia-tasek ez dute %15 gainditu aztertutako urteetan.

12. IRUDIA. LANGABEZIA-TASA, GUZTIZKOA ETA SEXUAREN ARABERAKOA. EAE




13A. IRUDIA. EMAKUMEEN LANGABEZIA-TASAK, ADIN-TALDEKA. EAE




Eskuratutako ikasketa-mailaren arabera, 1985 eta 2002 artean langabezia-tasarik altuena bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten gazabanakoei dagokie

eta, bigarren altuena, unibertsitateko ikasketak dituztenei, nahiz eta 2001ean bi tasa horiek parekatu egin diren (16. irudia).

13B. IRUDIA. GIZONEZKOEN LANGABEZIA-TASAK, ADIN-TALDEKA. EAE



14. IRUDIA. LANGABEZIA-TASAK, IKASKETA-MAILAREN ARABERA. EAE




Iturria: EIN, "BAI".


2001ean langabezian zeuden biztanleak xehe-tasun handiagoz aztertuz gero, ikus dezakegu langabezian dauden gizonezko gehienak ezkongabeak

direla, logikoa den bezala, langabezian dauden gizonezkoen ehunekorik altuenak 25-34 urte bitartekoei (%35) eta 20-24 urte bitartekoei (%22,9) bai-

15. IRUDIA. LANGABEEN BANAKETA, SEXUAREN ETA EGOERA ZIBILAREN ARABERA. EAE. 2000




16. IRUDIA. LANGABEAK, SEXUAREN ARABERA ETA ADIN-TALDEKA. EAE. 2001




tagozkie. Bestalde, langabezian dauden emakume-ei dagokienez, ezkongabeen eta ezkonduen kopurua antzekoa da, guztizko tasa %91koa izanik (15.

irudia). Bai gizonezkoei bai emakumezkoei dagokienez, langabeen heren bat baino zertxobait gehixeago 25-34 urte bitartean dago. Emakume langa-

17. IRUDIA. LANGABEEN BANAKETA, SEXUAREN ETA ESKURATUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA. EAE. 2001



18. IRUDIA. LANGABEEN BANAKETA, SEXUAREN, SEKTOREAREN ETA LANGABEZIAN EMANDAKO DENBORAREN ARABERA. EAE. 2001



been taldean, bigarren lekuan 35-44 urte bitarteko taldea dago (%27,6) eta gizonezko langabeen berriz, 20-24 urte bitartekoena (%22,9) (16.

irudia). Gainera, langabezian dauden gizonen %32,2k eta emakumeen %37,8k goi-mailako ikasketak dituzte (17. irudia).

Halaber, ikus dezakegu emakume langabe asko, hots, %45, aurretik, hiru urte baino gutxiagoko epean, zerbitzu-sektorean lanean aritutakoak zirela. Emakume langabeen beste talde garrantzitsu batek, %27k, orain dela hiru urte baino gehiago utzi zuten euren azken lana eta emakume langabeen %21 lehen lana bilatzen ari da. Gizonezkoei dagokienez, %33 aurretik zerbitzuen sektorean aritu zen lanean, %19 industrian eta %15 eraikuntzan. Gizonezkoen %12k baino ez darama hiru urte baino gehiago langabezian eta %18 bere lehen lana bilatzen ari da (18. irudia). Gaur egun langabezian dauden baina, aurretik, nekazaritzan aritu ziren gizonezkoen eta emakumezkoen ehunekoa oso eskasa da; halaxe ematen digute aditzera EAEn sektore horretan erregistratu diren jarduera-tasa baxuek.


Lan-merkatuan langabezia arazo larria dela ikusita, hurrengo urratsean xehetasun handiagoz eta talde demografikoen arabera aztertuko dugu ez bakarrik langabeziak duen eragina (langabezia-tasak), baizik eta baita langabeziaren beste alderdi garrantzitsu batzuk ere, besteak beste, iraupena.

Langabezia, neurritz kanpokoa izan arren, langileek denboraldi labur batez (adibidez, lehen lana aurkitu arte) jasan beharreko egoera denean, ez da oso pro-


blematikoa, ez, behintzat, langileek luzaroan pairatu beharrekoa denean bezainbeste. 19. irudian, langabeen ehunekoa adierazten da, lana bilatzen emandako denboraren arabera; bertan ikus dezakegunez, 70eko hamarkadaz gerotik, aldaketa nabarmenak gertatu dira langabeen banaketan. 70eko hamarkadaren bukaeran, langabe gehienek sei hilabete baino gutxiago zeramatzen langabezian. 80ko hamarkadan zehar, bi urte baino gehiago langabezian zeudenen kolektiboak hartu zuen indar gehien. Gaur egun bezalaxe, talde honetan langabeen ehuneko oso altuak erregistratu dira (2004ra arte ez da %30etik jaitsi).

Kolektibo honek sortzen du kezka handiena, ikerketa askok eta askok aztertzen duten bezala, luzaroko langabeek iraupenarekiko menpekotasunaren arazoa ere izan baitezakete. Fenomeno hori herrialde askotan antzeman da; horren arabera, gerta daiteke luzaroan lanik egin ez duten langabeek, zenbat eta denbora gehiago egon langabezian, orduan eta aukera gutxiago izatea egoera horretatik ateratzeko. Fenomeno hori azaltzen duten interpretazio tradizionalak dio urtebete baino gehiago langabezian dagoen pertsona batek zain gaiztoa eman diezaiokela enplegu-emaleari; honek pentsa dezake gizaba-

19. IRUDIA. LANGABEEN BANAKETA, LANGABEZIAN EMANDAKO DENBORAREN ARABERA. EAE. (%)



Iturria: EIN, "BAI".

20. IRUDIA. LANA BILATZEN EMANDAKO BATEZ BESTEKO DENBORA, ADIN TALDEKA. EAE. 2001

nakoa ez dela oso produktiboa eta horregatik dar-mala hainbeste denbora langabezian. Aztertutako aldiaren zatirik handienean zehar, urtebete baino gehiago lan bila dabiltzan langabeen kopurua (alegia, luzaroko langabezian daudenena) langabe guztien %50etik gorakoa izan da, zifra benetan kezagarria. Azken urteotan, ehuneko hori %36ra murriztu da (langabeziaren definizioa aldatzearekin bat etorriz; definizio berria 2001eko lehen hiruhilekoan sartu zen indarrean). Dirudienez, beraz, EAEn, langabeziak duen eraginaz gain, beste arazo kezagarri eta espezifiko bat ere badago: hots, horren iraupena; izan ere, luzaroko langabeziak eragin nabarmena izaten jarraitzen du, azken urteotan murriztu egin den arren.

Arestian aipatutako datuak berretsi egiten dira langabeak lana bilatzen emandako denboraren arabera nola banatzen diren ikusten dugunean: emakumezkoen %40,3k 2 urte baino gehiago ematen dituzte lana bilatzen. Ehuneko horri langabezian urte 1 eta 2 urte artean daramatzaten emakumeena gehitzen badiogu, ikus dezakegu emakume langabeen %55,6k urtebete baino gehiago daramala egoera horretan. Kontuan izanik ur-


tebete baino gehiago lan bila aritzea luzaroko langabeziatzat hartzen dela, esan dezakegu EAEn emakume gehienak (%55,6) luzaroko langabezian daudela; egoera horretan dauden gizonezkoak %43,6 dira (20. irudia).

EAEn, lana bilatzen ematen den denbora, batez beste, 27,73 hilabetekoa da gizonezkoen kasuan (23,3 hilabetekoa Estatu osoan) eta 40,60koa emakumezkoen kasuan¹ (27,9 hilabetekoa Estatu osoan). Lana aurkitzeko behar den denbora gero eta gehiago da adinak aurrera egin ahala, bai gizonezkoen bai emakumezkoen dagokienez, eta, beraz, langabe zaharragoen artean langabezia iraunkor mantentzen dela ikus dezakegu. Egoera are larriagoa da emakumeentzat.


Era berean, bi sexuei dagokienez, lana bilatzen batez besteko denbora gehien behar izan duen kolektiboa 36 eta 45 artekoa da. Adin-talde hori aztertzea ere interesgarria da; izan ere, lan-bizitzaren erdiko urteak dira eta, beraz, urrun dago bai hezkuntza-garaitik bai erretiro aurreratutik. Deigarria da adin-talde honetako langabeak, nola gizonezkoak hala emakumezkoak, batez beste 18 hilabete baino

¹ 2000. urteko bigarren hiruhilekoari buruzko BAiko datuak; bertan, EAEn dagokion azpilagineko langabeen kopurua 500ekoa da, horietatik %63 emakumezkoak.

21. IRUDIA. LANA BILATZEN EMANDAKO BATEZ BESTEKO DENBORA (HILABETE-KOPURUA EAE-2000)



22. IRUDIA. LANA BILATZEN EMANDAKO BATEZ BESTEKO DENBORA (HILABETE-KOPURUA), IKASKETA-MAILAREN ARABERA. EAE. 2000




Iturria: EIN, "BAI".

gehiago egon ohi direla langabezian, hezkuntza-maila edozein dela ere. Adin-talde honetan, gazteek baino langabezia-tasa handiagoak ez dituzten arren,

adin hauetan langabezia iraunkor mantentzen da. Langabezian dauden adin-talde honetan langabeek batez beste bi urte baino askoz ere gehiago behar di-

23. IRUDIA. LANA BILATZEN EMANDAKO BATEZ BESTEKO DENBORA (HILABETE-KOPURUA), IKASKETA-SEKTOREAREN ARABERA. EAE. 2000



Iturria: EIN, "BAI".

tuzte lana aurkitzeko. Erdi-mailako edo unibertsitateko ikasketak dituzten emakumeek ere hiru urte baino gehiago eman ohi dituzte lana bilatzen. Emakumeen artean langabezian denbora gehien ematen duen taldea goi-mailako lanbide-heziketari dagokiona izan arren, aipatu beharrekoa da oso emakume gutxi dagoela hezkuntza-maila horretan.

16 eta 24 urte bitarteko gizonezkoek batez beste urtebete baino gutxiago behar izaten dute lana aurkitzeko eta 24 urtetik gorakoek, berriz, 2 urte baino gehiago. Emakume langabeei dagokienez, 25 urtetik beherakoek 19 hilabete inguru ematen dituzten lana bilatzen eta 24 urtetik gorakoak 45 hilabetez egoten dira langabezian (21. irudia).

Ikasketa-mailaren arabera, gizonezkoen datuei erreparatu gero, lana bilatzen batez besteko denbora gutxien ematen dutenak bigarren hezkuntzako lehen etapari dagozkion ikasketak dituztenak dira (20,40 hilabete, batez beste); horien atzetik, lizentziadunak eta/edo diplomatuak daude (21,28 hilabete).

Aitzitik, lana bilatzen denbora gehien daramatenak lehen hezkuntzako ikasketak dituztenak dira (43,24 hilabete). Emakumezkoek dagokienez, batez besteko iraupenik txikiena lizentziadunei eta/edo diplomatuei dagokie, 30,74 hilabete (22. irudia).

Ikasketa-sektorearen arabera, euren ikasketak natura eta osasun-zientzien sektorean eta zientzia hutsean edo teknologiararen sektorean egin dituzten gizonezkoek batez beste 16 hilabete baino gutxiago behar izaten dituzte lana bilatzeko; aldiz, euren ikasketak beste edozein sektoretan egin dituztenek batez beste 30 hilabete baino gehiago behar izaten dituzte. Lana bilatzeko denbora gutxien behar duten emakumeak ikasketak norberaren garapenari, hezkuntzari, arteari eta bestelakoei lotutako sektorean egin dituztenak dira (24,77 hilabete, batez beste); aldiz, ikasketak oinarrizko programen bidez egin dituztenek 43,86 hilabete behar izan dituzte eta gizarte-zientziak eta giza zientziak aukeratzen dituztenek (EAEko emakume askok) batez beste 40,40 hilabete² (23. irudia).

² Gogoan izan behar dugu, EAerako oso informazio gutxi dugunez, ezinezkoa dela datuak horiek baino zati txikiagotan banatzea; horrez gain, aztertutako adin-talde bakoitzak behar duen denborari dagozkion batezbestekotan desbideratze estandar nabarmenak antzematzen dira. Halaxe gertatzen da zientzia hutsei eta teknologiari lotutako ikasketa-sektorean, 60,42 hilabeteko desbideratze estandarra baitu.

Jarraian, langabezian dauden pertsonak aztertu-ko ditugu; horretarako, lehen lana bilatzen dutenak eta aurretik lanean aritutakoak direnak bereiziko ditugu. Erantsitako taula oinarritzat hartuta, lehenik aipatu behar da, lehen lana den edo ez den kontuan hartu gabe, emakumeek lana bilatzen emandako batez besteko denbora (hilabete-kopurua) gizonezkoen dagokiena baino handiagoa dela. Lehen lana ez denean, aldea 10 hilabetekoa da eta lehen lana denean, berriz, 22 hilabetekoa. Beste alderdi interesgarri bat da lehen lana bilatzen dabiltzan emakumeek denbora

gehiago behar izaten dutela aurretik lan egin duten emakumeek baino, eta kontrakoa gertatzen dela gizonezkoen artean.

EAEen lehen lana bilatzen ari diren pertsonen batez besteko adina 23 urtekoa da gizonezkoen kasuan eta 27koa emakumezkoen kasuan. Aurretik lan egin dutenei dagokienez, gizonezkoen nahiz emakumezkoen batez besteko adina 36 urtekoa da. Bestalde, lehen lana bilatzen dabiltzan langabe gehienek 35 urte baino gutxiago dituzte. Aldiz, aurretik inoiz lan egin duten gizon eta emakumeen arteko banaketa heterogeneoagoa da (alegia, alde handiagoak daude adin-taldeen artean). Gizonezkoen dagokienez, %32,19k 25 eta 35 urte bitartean ditu eta %28k 46 eta 65 urte bitartean. Emakume langabeen taldean, %34,71k 25 eta 35 urte bitartean ditu eta %30,99k 36 eta 45 bitartean. 24 urte baino gutxiago dituzten emakumeen ehunekoa gizonezkoen dagokiena baino 9 portzentaje-puntu txikiagoa da (24. irudia).


Ikasketa-mailaren arabera, langabezian dauden eta euren lehen lana bilatzen ari diren pertsona askok, nola gizonezkoak hala emakumezkoak, diploma-

1. TAULA. LANA AURKITZEKO BATEZ BESTEKO DENBORA, SEXUAREN ARABERA EAE -2000. HILABETEKOA, DESBIAZIO ESTANDARRA ETA OHARREN KOPURUA.

		Gizon.	Emak.	Guztira
Lehenengo lana	Hilabete	25,54	47,28	40,10
	Desbiazio estandarra	(31,5)	(47,65)	(44,05)
		37	75	112
Lehen lan egin d.	Hilabete	28,29	38,52	34,67
	Desbiazio estandarra	(37,09)	(42,48)	(40,79)
		146	242	388

Iturria: EIN, "BAI, 2000ko bigarren hiruhilabetekoa"

24. IRUDIA. LANGABEEN BANAKETA, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA, AURRETIK LAN EGIN DUTEN EDO EZ AINTZAT HARTUTA. EAE. 2000



Iturria: EIN, "BAI".


turei eta/edo lizentziaturei dagokien prestakuntza-maila eskuratu dute (%48k eta %28k, hurrenez hurren); horien atzetik, bigarren hezkuntzako bigarren etaparaino heldu direnak ditugu³. Lan-esperientziaren bat duten gizonezkoen kolektiboan batez ere lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako lehen etapa egin duten gizonezkoak daude. Aurretik inoiz lan egin duten emakume langabeen kolektiboan batez ere bigarren hezkuntzako lehen eta bigarren etapak eta lehen hezkuntza egin dituztenak daude (25. irudia).

Langabeen ikasketa-motari dagokionez, lan-esperientziaren bat dutenen artean, ikasketa-sektore nagusia oinarrizko programena da⁴. Gizonen eta emakumeen artean aldeak antzematen dira egindako ikasketei dagokionez; alde horiek are nabarmenago-

ak dira lehen lana bilatzen dutenen artean. Horrela, adibidez, lehen lana bilatzen ari diren emakume langabeei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu ia %27k giza eta gizarte-zientzietan egin dituztela euren ikasketak; aldiz, lehen lana bilatzen ari diren gizonezko langabeen kasuan, gehienak zientzia hutsen eta teknologiaren sektorekoak dira (26. irudia).

Hala, beraz, datuei erreparatuta ikus dezakegu lehen lana bilatzen ari diren gizonezkoen kolektiboan %32,43k zientzia hutsen eta teknologiaren sektorean egin dituela bere ikasketak eta %24,32k, berriz, giza eta gizarte-zientzien sektorea eta oinarrizko programak aukeratu dituela bere ikasketak egiteko. Bestalde, lehen lana bilatzen ari diren emakumezkoen kolektiboari dagokionez, %41,33k oinarrizko pro-

25. IRUDIA. LANGABEEN BANAKETA, SEXUAREN ETA LORTUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA, AURRETIK LAN EGIN DUTEN EDO EZ AINTZAT HARTUTA (EAE-2000)




Iturria: EIN, "BAI".

³ Bigarren hezkuntzako bigarren etapari, batxilergoko ikasketak eta erdi-mailako lanbide-heziketak barneratzen dira.


⁴ Ikasketa-sektorearen aldagaia 5 sektoretan banatzen da. Honako hauek dira: Zientzia hutsak eta teknologia: fisika, kimika, geologia, matematika, estatistika, informatika eta ingeniariak, industria eta ekoizpena, arkitektura eta eraikuntza; Natur eta osasun-zientziak: bizitzaren zientziak, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza, albaitaritza, gizarte-zerbitzuak eta osasuna; Giza eta gizarte-zientziak: gizarte-zientziak, merkataritzako irakaskuntza eta zuzenbidea eta giza zientziak; Norberaren garapena, hezkuntza, artea eta sektore ezezagunak: hezkuntzaren zientziak, arteak, zerbitzu pertsonalak, ostalaritza eta turismoa, kirolak, segurtasun-zerbitzuak eta sektore ezezagunak eta norberaren garapena; eta, azkenik, Oinarrizko programak (hots, oinarrizko hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntzako lehen etapa eta batxilergoa).

26. IRUDIA. LANGABEEN BANAKETA, SEXUAREN ETA IKASKETA-SEKTOREAREN ARABERA, AURRETIK LAN EGIN DUTEN EDO EZ AINTZAT HARTUTA. EAE. 2000



Iturria: EIN, "BAI".

27. IRUDIA. LANGABEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA, BILATUTAKO LAN-MOTA AINTZAT HARTUTA (EAE-2000)



Iturria: EIN, "BAI".

gramen sektorean egin ditu bere ikasketak eta %26,67k, bestalde, giza eta gizarte-zientzien sektoretik bideratu ditu.

EAEn, euren ikasketak zientzia hutsen eta teknologiaren sektorean garatzen dituzten emakumezkoen ehunekoak %2,23koa baino ez da eta gizonezkoena, ostera, %22,52koa. Era berean, gizonezkoen ehunekoarekin alderatuta (%63,99), emakumezko gehiagok aukeratu du oinarritzko programen sektorea bere ikasketak gauzatzeko, hots, %69,21ak.

2.3. Lehen lana


Langabeei dagokienez azpimarratu beharreko beste alderdi bat da ezberdina dela lehen lana bilatzea edo lehendik lanean aritu izatea. Lan-jardueran barneratu berriak diren eta lehen lana bilatzen duten biztanleek esperientzia-ezaren arazoari egin behar diote aurre eta horrek lanpostua lortzeko zailtasunak sor diezazkieke. Aldiz, lehendik lanean aritu diren langabeek ez dute arazo hori, baina beste batzuk izan ditzakete, esate baterako, langabezian emandako denboran zehar giza kapitala galtzea edo adina, ho-

riek direla bide, enplegu-emaileak zaharregiak direla pentsa baitezake.

28. irudian, lehen lana azken hamar urteotan aurkitu duten 16 eta 35 urte bitarteko gazteek hori bilatzen emandako batez besteko denbora jasotzen da, sexuaren eta ikasketa-mailaren arabera. Hezkuntza-maila guztietan, lehen lana bi urte baino gehiago igaro ondoren aurkitzen duten langabeen ehunekoak oso altuak dira (hots, %30etik gorakoak), bai gizonei bai emakumei dagokienez, nahiz eta batez besteko denbora horiek oro har nabarmenagoak diren emakumeen artean (bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten emakumezkoen kasuan izan ezik).


Gainera, lehen lana bilatzen emandako denborari dagokionez nolabaiteko dualtasuna dagoela ematen du. Batetik, lana aurkitu zuten gazte gehienek bi urte baino gehiago behar izan zituzten horretarako; eta, bestetik, gehiengo horren ondotik datozenez 7 hilabete baino gutxiago behar izan zituzten. Horrela, beraz, gazte-talde batzuek lana nahikoa azkar aurkitzen dutela esan dezakegu eta beste batzuek, berriz, denbora asko ematen dutela bilatzen. Izan ere, hezkuntza-maila handitu ahala, bai gizonei

28. IRUDIA. 16-35 URTE BITARTEKO PERTSONEK LANA AURKITZEKO BEHARREZKO HILABETE-KOPURUA, BATEZ BESTE




Iturria: EIN, "Lan-merkatutzaren modulua".

29. IRUDIA. AZKENENGO HAMAR URTEETAN LANA TOPATU DUTEN 16-35 URTE BITARTEKO PERTSONEK BATEZ BESTEKO DENBORA, SEXUAREN ETA HEZIKETA MAILAREN ARABERA. (ESPAINIA)



30. IRUDIA. EAEn INOIZ LANIK EGIN EZ DUTENAK (LANGABEKOEN %)



Iturria: EIN, "BAI".

bai emakumeei dagokienez, murriztu egiten da lehen lana aurkitzeko bi urte baino gehiago behar di-

tuzten gazteen ehunekoa eta hazi 7 hilabete baino gutxiago behar dituztenena.


Lehen lana bilatzen duten langabeei (alegia, aurretik inoiz lan egin ez dutenei) dagokienez, ikus dezakegu kolektibo horrek garrantzi gutxiago duela langabeen guztizko kolektiboan (honek garbi uzten du aurretik inoiz lan egin duten langabeen ehunekoa nabarmen hazi dela azken urteotan, bai gizonezkoen bai emakumezkoen dagokienez; alegia, lan-txandakatzea gehitu egin da); hori guztira gorabehera, badira aldeak gizonezkoen eta emakumezkoen artean (30. irudia). Langabezia dauden emakumeen guztizko kopururik gehiago dira lehen lana bilatzen dutenak eta, beraz, horrek adierazten digu emakumeak zailtasun gehiago dituela lehen lana aurkitzeko. Gainera, aurretik inoiz lanik egin ez duten langabeen ehunekoa altuagoa izan da aldi osoan zehar EAEn Estatuan baino (azken bi urteetan izan ezik).

31.A eta 31.B irudietan, lehen lana bilatzen duten langabeen ehunekoa adierazten da, adin-taldea, gizonentzat eta emakumeentzat, hurrenez hurren. Pentsa dezakegun bezala, lehen lana bilatzen duten langabe gehienak gazteak dira, nahiz eta bi sexuen artean alde handiak antzeman daitezkeen. 90eko hamarkadan, gizonezkoen dagokienez, lehen lana bilat-

zen zebiltzan langabeen %20 16-19 urte arteko adin-taldean barneratzen zen, %40 20 eta 24 urte arteko adin-taldean eta %27 25 eta 54 urte artekoan. Emakumezkoen dagokienez, %12 baino ez zen lehen adin-taldean barneratzen eta bigarrenean, aldiz, %41; Nolanahi ere, pisu gehieneko adin-taldea 25 eta 54 urte arteko adin-taldea zuen, bertan emakume langabeen %47 baitzegoen. Beste zenbait alderdiren artean, kontuan izan behar da emakumeek denbora gehiago eskaintzen diotela prestakuntzari, ikusi dugun bezala, eta, ondorioz, beranduago sartzen direla lan-merkatuan.


Orain arte ikusitakoaren arabera, emakumeak eta adin gehiagokoak badira zailtasun gehien dituztenak laneratzeko, interesgarria da ezagutzea zein motatako metodoa erabiltzen duten langabeek lana bilatzeko (29. irudia). Langabeek lana bilatzeko gehien erabiltzen duten metodoa enplegu-bulego publikoren bategan (INEM) izena ematearena da. Langabearen definizioa (hots, jardunean ez dagoen eta lana modu aktiboan bilatzen ari den pertsona) zehatz-mehatz hartuko bagenu, metodo hori aukeratzean langabe asko eta asko kolektibo horretatik kanpo geratuko li-

31A. IRUDIA. LEHEN LANA AURKITZEKO BATEZ BESTESEKO AUKERAK, URTEEN ARABERA. GIZONEZKOAK




Iturria: EIN, "BAI".

31B. IRUDIA. LEHEN LANA AURKITZEKO BATEZ BESTESEKO AUKERAK, URTEEN ARABERA.



Iturria: EIN, "BAI".

32. IRUDIA. LANGABEKOEN ARTEAN, LANA AURKITZEKO BATEZ BESTEKO METODOAK (ESTATUAN)



Iturria: EIN, "BAI".

rateke, dakigun bezala, INEMek ez baitie lana ematen bere bezeroei. Aitzitik, INEMek langabeziagatik prestazioa eta prestakuntzako ikastaroak eskaintzen dizkie, besteak beste, eta horiek izateko nahitaezkoa da INEMen izena emanda egotea. 1994 eta 2000 bitartean, langabeen %25ek gutxi gorabehera jasotzen zuten langabeziagatik prestazioren bat (Europar Batasuneko Etxeen Paneleko datuetan oinarrituta), nahiz eta zifra hori apurka-apurka murrizten joan den.

Lehen lanaren ezaugarriak aztertzeko, lehen lana aurkitu dutenei dagokienez, banakako datuetan oinarritutako datu-basea erabiltzen da, hots, *Europar Batasuneko Etxeen Panela*. Inkesta horrek eskuragarri dauden beste inkestekin alderatuta duen abantaila da 7 urtetan zehar (1994-2000) etxe berak elkarrizketatu zituela eta, horri esker, aldagai sozioekonomiko ezberdinen alderdi dinamikoak azter daitezke. Espainiari dagokionez, inkesta 7.206 etxerekin hasi zen (17.893 gizabanako, guztiak 16 urtetik gorakoak); 2000. urtean, 5.061 etxe mantendu ziren (12.317 gizabanako). Europako Panelaren beste abantaila bat da errentarekin eta soldatekin erlazioatutako aldagaiak barneratzen dituela, Espainiako beste inkesta


batzuetan (esaterako, Biztanleria Aktiboaren Inkestan) ez daudenak; inkesta Europar Batasun osoan egiten denez, herrialdeak euren artean zuzenean aldera ditzakegu.

33. irudian, euren lehen lana duten gizon eta emakumeek lan horretan batez beste zenbat urterekin hasi ziren agertzen zaigu. Emakumeentzat lanertzeko batez besteko adina handiagoa da gizonei dagokiena baino. Hala, beraz, gizonentzat, 20,58 urtekoa izan zen 1994an eta 21,35 urtera heldu da 2000n; emakumeentzat, berriz, 24,4 urtekoa izan zen 1994an eta 26,2ra heldu da 2000n (gizonen eta emakumeen batez besteko adina alderatuta, 1994an aldea 3,8 urtekoa izan zen eta 2000n, ostera, 4,8 urtekoa).

Gainera, 1994an euren lehen lana zuten emakumezkoen %24k 50 urte edo gehiago zituen; gizonezkoen kasuan, tasa hori ozta-ozta heltzen da %1era. Aldiz, 1994an euren lehen lana zuten gizonezkoen %79k 25 urte baino gutxiago zituen; emakumeen kasuan, ehuneko hori %40tik beherakoa da.

Adinen banaketa horretan ikus dezakegunez, gizonezkoek emakumezkoek baino lan-mugikortasun

33. IRUDIA. LEHEN LANA AURKITZEN DENEKO BATEZ BESTEKO ADINA, SEXUAREN ARABERA (ESPAINIA)



Iturria: Eurostat, "Europar Batasuneko Etxeen Panela".

handiagoa dute. Horrez gain, kontuan hartzen badugu baita ere laneratzeko adina handiagoa dela emakumeentzat, esan dezakegu emakumeek denbora gehiago behar izaten dutela laneratzeko, baina, behin aurkituta, gizonezkoek baino luzarago ematen dutela euren lehen lanean.


Arreta kolektibo homogeenagoan jartzeko, euren lehen lana duten langileen lagina lan horretan bi urte baino gutxiago daramatzatenetara mugatzen da. Horrela, azpilagin horrek batez besteko adina aintzat hartuta gazteenak diren eta lan-merkatuan berriki sartu diren gizabanakoak hartzen ditu bere baitan.

Lehenik eta behin, lehen lan horretan orduko jasotzen den soldata aztertzen da, hurrenez hurren, gizonen eta emakumeen guztizko laginari dagokion batez besteko soldatarekin alderatuta (31. irudia). Gizon eta emakume okupatuen guztizko laginean, gizonezkoek, oro har, emakumezkoek baino soldata handiagoa dute datuek erakusten dizkiguten urte guztietan. 2000n, gizonezkoen batez besteko soldata 4,8 eurokoa zen orduko eta emakumezkoena, berriz, 4,2 eurokoa orduko.

Bestalde, orduko jasotzen den batez besteko soldatari dagokionez euren lehen lana duten eta lan horretan bi urte baino gutxiago daramatzaten okupatuen egoera oso bestelakoa da. Lehenik eta behin, batez besteko soldata orduko askoz ere baxuagoa da langile-talde honentzat. Euren lehen lana duten gizonezkoek batez beste 1,76 euro jasotzen dituzte orduko (orduko jasotzen den batez besteko soldata baino %64 baxuagoa, betiere, gizonezko okupatu guztiak aintzat hartuta) eta emakumezkoek 1,91 euro orduko (%45 baxuagoa).

Lehen lanari dagokionez sexuen artean dauden soldata-ezberdintasunetan deigarriena da emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago irabazten dutela aztertu diren ia urte guztietan. Alde horren arrazoia emakumeak gizonezkoak baino hobeto prestatuta laneratzaren direla izan daiteke. Langile guztien artean, emakumeek gizonen baino gutxiago kobratzearen arrazoi bat izan daiteke emakumeek hezkuntza-maila handiagoa izatearen fenomeno nahikoa berria dela Espainian eta oraindik ez dela emakume enplegatu guztiengana heldu. Beste arrazoi bat izan daiteke emakumeen lanbide-ikasketek ez dutela gizonezkoen erritmo berean aurrera egiten eta,

34. IRUDIA. ESPAINIAN LANEAN DAUDEN PERTSONEN SOLDATA, ORDUKO (GUZTIRA ETA LEHEN LANA)



Iturria: Eurostat, "Europar Batasuneko Etxeen Panela".

denborarekin, haiek atzean geratzen dira. Gai honen inguruko literaturan, zenbait ikerketa gizon eta emakumeen artean dauden soldata-ezberdintasunak aztertzen eta azaltzen saiatzen dira.

Aztertu beharreko bigarren alderdia lehen lana aurkitu eta bertan bi urte baino gutxiago daramatzaten langileek eskuratu ohi duten lan-mota da. Honen barruan, egitekoa, kontratu-mota eta lehen lan horri dagokion jarduera-sektorea aztertuko ditugu. Gizon gehienek oinarritzko okupazioetan aurkitu dute euren lehen lana, dendari eta langile modura (guztira, %70ek baino gehiagok); aldiz, emakume gehienek zerbitzu-etako zereginetan dihardute (guztira, %30), edota enplegatu (%20) nahiz profesional modura (%20). Neurri batean, hezkuntza-mailak baldintzatzen du zein motatako lanean aritu ahal izango duten.

Lehen lana duten emakumeak batez ere bi hezkuntza-taldetan banatzen dira, hots, unibertsitate-hezkuntzari eta lehen hezkuntzari dagozkionetan. Aitzitik, gizonen kasuan, bigarren hezkuntza egin dutenen proportzioa handiagoa da eta modu uniformeagoan banatuta daude aztertu diren hiru hezkuntza-mailatan (35.A eta 35.B irudiak).

Kontratu-motaren arabera (36.A-B irudiak), lehen lanean bi urte baino gutxiago daramatzaten enplegatu gehienek, %65 2000n, aldi baterako kontratuak dituzte, nahiz eta hazi egin den kontratu mugagabea dutenen kopurua (1994an %15 izatetik 2000n %28 da). Aipatu beharreko beste alderdi bat kontraturik gabe lanean dauden pertsonen ehunekoak izan duen murrizketa dugu, batez ere emakumezkoen dagokionez. Kontraturik gabeko emakumezkoen ehunekoa, 1994an %12koa bazen ere, 2000n ozta-ozta helden da %3ra.

Kontratu mugagabeen proportzioak gora egin du bai gizonezkoen bai emakumezkoen artean, nahiz eta kontratatuta mugagabearekin lan egiten duten emakumeen ehunekoak txikiagoa izaten jarraitzen duen gizonezkoenarekin alderatuta. Gainera, lehen lanean bi urte baino gutxiagoko antzinatasuna duten pertsonen %70ek baino gehiagok sektore pribatuan dihardu. Langile horiek barne hartzen dituen ekoizpen-

sektoreari dagokionez (37.A eta 37. irudiak), gehienak zerbitzu-sektorean ari dira, hots, gizonezkoen %60 inguru eta emakumezkoen %80, nahiz eta bi ehuneko horiek oso gutxi egin duten behera 1994az geroztik.


Amaitzeko, azken bi urteetan lehen lana aurkitu duten langile horien ezaugarriak aztertuko ditugu, alegia, lanean hasi aurretik langabezian zeuden edo ez, eta, hala izanez gero, zenbat denbora egon ziren langabezian (38 eta 39. irudiak). Kontuan izan behar dugu talde hori ezin dela biztanleria osoaren adierazgarri gisa hartu, bertan ez baitira barneratzen aztertutako aldi horretan zehar lanik aurkitu ez duten langabeak⁵. Nolanahi ere, alderdi honi esker, arazo gehiagori edo gutxiagori aurre egin ondoren azkenean lana aurkitzen duten horiek lan-merkatuan zein baldintzatan sartzen diren ezagutu dezakegu.

Talde horretan ikus dezakegunez, kolektiboaren %56 baino gehiago langabezian egon da lehen lana aurkitu aurretik eta, aztertutako zazpi urteetatik, batez beste 24,7 hilabete eman ditu egoera horretan. Sexuaren arabera, ez dago alde esanguratsurik lehen lana aurkitu aurretik langabezian egon direnen ehunekoan (gizonezkoen %56,2 eta emakumezkoen %56,5). Badago alderik, ordea, langabezia-egoera horren batez besteko iraupenean, gizonezkoek 21,2 hilabete eman baitzituzten langabezian eta emakumezkoek, berriz, 28,6.

Bukatzeko, 39. irudiak erakusten digu lehen lana aurkitu aurreko langabezia-egoeraren batez besteko iraupenak 1996an erregistratu zuela mailarik altuena gizonentzat eta 1998an emakumeentzat; orduz geroztik, beherakada antzeman da eta, aztertutako aldiaren amaieran, bi kolektiboak modu nabarmenean elkarrengana hurbiltzen joan dira. Bai batzuen bai besteen kasuan, langabezia-egoerak 21-35 urte bitarteko adin-taldean iraun du gehien batez beste. Egoerak beti gehiago irauten du emakumeentzat gizonezkoentzat baino, salbuespenak 2000. urtea eta 21-35 urteko bitarteko adin-taldea izanik (azken honetan gizonezkoen langabezia-egoerak emakumezkoenak baino ia lau hilabete gehiago irauten du batez beste).


⁵ Izan ere, ezinezkoa da oraindik lana aurkitu ez eta bilatzen jarraitzen dutenen langabezia-egoerak zenbat irauten duen neurtzea, definizioz, oraindik langabezian daudela pentsatuko baita elkarriketa egiten den unean lanik ez badute.

35A. IRUDIA. OKUPATUEN BANAKETA, PRESTAKUNTZA-MAILAREN ARABERA (ESTATUA) GIZONEZKOAK




Iturria: Eurostat, "Europar Batasuneko Etxeen Panela".

35B. IRUDIA. OKUPATUEN BANAKETA, PRESTAKUNTZA-MAILAREN ARABERA (ESTATUA) EMAKUMEZKOAK




Iturria: Eurostat, "Europar Batasuneko Etxeen Panela".

36A. IRUDIA. LEHEN LANEAN BI URTE BAINO GUTXIAGO DARAMATZATEN LANGABEEN BANAKETA, KONTRATU-MOTAREN ARABERA (ESPAINIA). GIZONEZKOAK




Iturria: Eurostat, "Europar Batasuneko Etxeen Panela".

36B. IRUDIA. LEHEN LANEAN BI URTE BAINO GUTXIAGO DARAMATZATEN LANGABEEN BANAKETA, KONTRATU-MOTAREN ARABERA (ESPAINIA). EMAKUMEAK




Iturria: Eurostat, "Europar Batasuneko Etxeen Panela".

37A. IRUDIA. GIZONEZKOEN LEHEN LANARI DAGOKION SEKTOREA (ESPAINIA)




Iturria: Eurostat, "Europar Batasuneko Etxeen Panela".

37B. IRUDIA. EMAKUMEEN LEHEN LANARI DAGOKION SEKTOREA (ESPAINIA)




Iturria: Eurostat, "Europar Batasuneko Etxeen Panela".

38. IRUDIA. LEHEN LANA LANGABEZIAN EGON ONDOREN AURKITU DUTEN LANGILEEN BANAKETA (ESPAINIA)



Iturria: Eurostat, "Europar Batasuneko Etheen Panela".

39. IRUDIA. LEHEN LANA AURKITU AURRETIK LANGABEZIAN EMANDAKO BATEZ BESTEKO DENBORA, ADIN-TALDEAREN ETA SEXUAREN ARABERA (ESPAINIA)



Iturria: Eurostat, "Europar Batasuneko Etheen Panela".

Hortaz, atal honen laburpen gisa, zera aipa daiteke: 1976an Euskal Autonomia Erkidegoak Espainiako estatuko langabezia-tasarik baxuenetakoa zuen; tasa hori hazten hasi zen eta 1986an eta 1993an azken 20 urteotako tasarik altuenak erregistratu ziren, %25 ingurukoak. 1994az geroztik, guztizko langabezia-tasa murrizten joan da eta 2002an %8koa izan da.

70eko hamarkadaren erdialdetik hona Euskal Autonomia Erkidegoan %55 inguruko jarduera-tasa erregistratu da, nahiz eta azken urteotan apur bat gora egin duen. Horren oinarrian emakumezkoen jarduera-tasak izan duen hazkunde nabarmena dago, gizonezkoenak behera egin duen bitartean; izan ere, emakumeen jarduera-tasak 1976an %30etik behera egotetik 2004an %45 gainditzera igaro dira. Horrela, beraz, gizonezkoen dagokienez, lanerako adina duten okupatuaren ehunekoa murriztu egin den bitartean (70eko hamarkadaren amaieran %80 inguruko izatetik, azken urteotan %60tik gora egotera igaro da), emakumeen dagokienez, zifra hori ia %27koa izatetik, 2004an %40 baino zertxobait gorago egotera igaro da. Kontuan izan behar da 1985az geroztik, EAEn sortu diren ia 300.000 lanpostuetatik, %70 emakumezkoek bete dituztela, EInen BAiko datuei jarraiki.

Langabezia-tasak batez ere emakumeengan izan du eragina; 1992 eta 1995 artean, adibidez, %30etik gorako langabezia-tasa erregistratu zuen kolektibo horrek. Azken urteotan zehar, langabezia-tasa altuenak emakume gazteek (16 eta 24 urte bitartekoak) izan dituzte; izan ere, urte gehienetan (1982tik 1997ra bitartean) %50etik gora egon dira eta ez dira inoiz %40ren azpitik egon. Gainerako adin-taldeetako emakumeen dagokienez, langabezia-tasa gehienek %30ekoa izan zen 1993an eta %25etik gorakoa izan zen 1991tik 1995era bitartean; azken urteotan, ordea, %10ekoa da.

Langabezian dauden emakumeen guztizko kopurutik gehiago dira lehen lana bilatzen dutenak eta, beraz, horrek adierazten digu emakumeak zailtasun gehiago dituela lehen lana aurkitzeko; gizonezkoen dagokienez, zailtasun gehienak gazteek dituzte. Adin goragoko taldeentzat ere, lehen lana bilatzen dabilzan emakumeen ehunekoa gizonezkoena baino askoz ere handiagoa da. Izan ere, emakumeek denbora gehiago eskaintzen diote prestakuntzari, ikusi dugun bezala, eta, ondorioz, beranduago sartzen dira lan-merkatuan. Hortaz, laneratzeko arazo gehiago dituen talde honetan emakumeen egoera da larriena, horien artean langabezia-tasak altuagoak direlako eta langabezian egondako batez besteko denbora luzeagoa delako, euren hezkuntza-mailak gizonezkoena gainditu duen arren.

Gainera, emakume gehienak (%55,6) luzaroko langabezian daude; egoera horretan dauden gizonezkoak %43,6 dira. Lana bilatzen ematen den denbora, batez beste, 27,73 hilabetekoa da gizonezkoen kasuan eta 40,60koa emakumezkoen kasuan.

Horrela, EAEn emakumezkoak dira langabezia-tasarik altuena dutenak, batez ere, 24 urtetik beherakoak, eta, horrez gain, baita luzaroko langabeziaren eragin handiena pairatzen dutenak ere; gainera, luzaroko langabeziaren arazoa areagotu egiten da 25 urtetik gorako emakumeen artean, horiek lortutako ikasketen maila edozein dela ere. Hala eta guztiz ere, kaltetuenak euren ikasketak gizarte-zientzien sektorean eta oinarriko programen sektorean egin dituztenak dira, nahiz eta beste arlo batzuk aukeratu dituztenen kasuan ere emaitzak ez diren hobeak.

Gizonezkoen dagokienez, 16-19 urte bitarteko gazteak eta, horien atzetik, 20-24 urte bitartekoak dira langabezia-tasa altuenak dituztenak; tasa horiek ez dira urte askotan %50etik gorakoak izan (emakumezkoen kasuan bezala), baina ez dira %20tik behera egon 1998ra arte. Hala ere, 35 urtetik gorakoengan eta, bereziki, lehen hezkuntzako ikasketak dituztenengan du eragin nabarmenena oso luzaroko langabeziak.

Gainera, emakumeen artean, luzaroko langabeziak lehen lana bilatzen ari direnei eragiten die batez ere eta gizonezkoen artean, aldiz, aurretik lan-esperientziaren bat izan dutenei, nagusiki, 36 eta 45 urte bitarteko gizonezkoek.

Langabezia-egoeratik ateratzeko arazo larriak dituen beste kolektibo bat 40 urtetik gora dituzten luzaroko langabeena da. Aztertutako aldiaren zatirik handienean zehar, urtebete baino gehiago lan bila dabilzan langabeen kopurua (alegia, luzaroko langabezian daudenena) langabe guztien %50etik gorakoa izan da, nahiz eta azken urteotan, ehuneko hori %43ra murriztu den (2004). Dirudienez, beraz, EAEn, langabeziak duen eraginaz gain, beste arazo kezagarri eta espezifiko bat ere badago: hots, horren iraupena; izan ere, luzaroko langabeziak eragin nabarmena izaten jarraitzen du, azken urteotan murriztu egin den arren.

Kolektibo honen arazoekiko kezkaren oinarria luzaroko langabeek beste traba bat dutela da; hots, iraupenarekiko menpekotasuna. Ikusi bezala, lana aurkitzeko behar den denbora gero eta gehiago da adinak aurrera egin ahala, bai gizonezkoek bai emakumezkoek dagokienez, eta, beraz, langabe zaharagoen artean langabezia iraunkor mantentzen dela ikus dezakegu. Egoera are larriagoa da emakumeentzat. Lana aurkitzeko behar den batez besteko hilabete-kopurua urtebetetik gorakoa da 24 urte baino gehiagoko gizonezkoentzat eta bi urtetik gorakoa, berriz, 50 urte baino gehiagokoentzat. Emakumezkoen datuei erreparatuta, langabezian emandako aldien iraupena batez beste urtebete baino gehiagokoa da 19 urtetik gorakoentzat (gizonentzat baino gutxiago) eta bi urte baino gehiagokoa 20-24 urte bitarteko adin-taldetik hasita.

Egindako analisitik ondoriozta dezakegun bezala, gazteek eta, batez ere, emakumeek dituzte zailtasun gehien lana aurkitzeko momentuan. Lan-jardueran barneratu berriak diren eta euren lehen lana bilatzen duten pertsonen esperientzia-ezaren arazoari egin behar diote aurre eta, horrek zailtasunak ekar diezazkieke lanpostua eskuratzeko. Izan ere, gazteen egoera benetan kezagarria da, langabezia-tasa altuak, kontratu ez-egonkorak eta soldata txikiak baitituzte, eta, beharbada, horixe da Espainian eta EAEn gurasoen etxetik berandu joatearen eta familia berandu sortzearen arrazoietakoa bat.

Gainera, langabezia-egoeratik irteteko dituen arazo larriak direla medio kontuan hartu beharreko beste kolektibo bat luzaroko langabezian dauden pertsonena da, batez ere, 40 urtetik gorakoan; horiek, halaber, iraupenaren menpe ere badaude, alegia, zenbat eta denbora gehiago igaro langabezian, orduan eta zailtasun handiagoak dituzte egoera horretatik ateratzeko.

2.4. Hasierako hezkuntzatik lehen lanera igarotzeko prozesua

Esan bezala, 2000ko bigarren hiruhilekoan, Biztanleria Aktiboaren Inkestak beste modulu bat barneratzen du ikasketak amaitu edo bertan behera utzi dituzten gazteak lan-merkatura igarotzearen ingurukoa. Modulu hori azken hamar urteetan (1991tik inkesta egin zeneko urtera) ikasketak edo hasierako presta-

kuntza amaitu, bertan behera utzi edo urtebete baino gehiago eten dituzten 16-35 urte bitarteko pertsonen zuzenduta dago, adin horietakoak barne⁶. Hasierako hezkuntza lehen hezkuntzatik eta urtebete baino gehiagoko inolako etenik gabe egindako ikasketak edo prestakuntza da. Ikasketak edo prestakuntza esaten dugunean, ikasketa orokorrak nahiz lanbide-ikasketak barneratzen dira, horiek arautuak edo ez-arautuak eta lanaldi osokoak edo partzialekoak izan.

⁶ Kontuan izan behar dugu ezinezkoa dela ikasketak utzi eta bukatzearen artean bereiztea.

2. TAULA. KASU-KOPURUA ETA BATEZ BESTEKO ADINA

	Kasu-kop.	Bat. best. adina	Ohiko desbider.	Min.	Max.
1991	860	19,75	2,99	16	27
1992	1.054	20,02	3,13	16	28
1993	1.083	19,95	0,09	16	29
1994	1.270	20,09	3,25	16	29
1995	1.353	20,41	3,35	16	31
1996	1.318	20,75	3,43	16	32
1997	1.387	21,01	3,57	16	33
1998	1.323	21,07	3,52	16	33
1999	1.301	21,37	3,64	16	35
2000	328	21,52	4,02	16	35
Guzt.	11.277	20,58	3,43	16	35

Iturria: BAI, "Igarotzeen modulua, 2000ko bigarren hiruhilekoa".

Modulu horri esker, hasierako ikasketak amaitu ondoren lehen enplegu esanguratsua⁷ aurkitzeko aukeretan (erraztasun edo zailtasunean) eragina izan dezaketen ingurune ekonomikoaren faktoreak eta banakako ezaugarriak azter ditzakegu.

Analisi hori egiteko, Estatu osoari dagokionez modulua xede den biztanleria osatzen duten 16 eta 35 urte bitarteko 11.277 gazte barneratzen dituen lagina⁸ hartu da (horietatik 714 EAEn bizi dira); moduluko galderei erantzun zieten atzerritarrak (guztizko lagin horren %1,12) lagin horretatik kanpo utzi dira. Modulu honetan inkesta egin dutenek ikasketak bertan behera utzi edo eten zituzteneko aldia kontuan hartuta erantzun diete galderei eta, beraz, jasotako informazioa ez dagokio 2000ko bigarren hiruhilekoari, baizik eta 1991 eta 2000 bitarteko aldiari.

Atal honetan aztertutako aldian, 1991tik 2000ra, ikasketak eten edo bertan behera utzi zituzten gazteen kopururik handiena 1995ean eta 1997an erregistratu zen, 2. taulak erakusten digun bezala; taula horretan, azken 10 urteotan ikasteari utzi dioten gazteen batez besteko adina aipatzen da⁹. Izan ere, ikasketak eten edo bertan behera uzten dituzten gazteen batez besteko adina hazten joan da urteek au-

rerra egin ahala. Ez da harritzekoa adinak gora egin izana, hezkuntzaren inguruko lege ezberdinetan egin diren aldaketen ondorioz, derrigorrezko irakaskuntza 16 urtera arte luzatu baita (aldaketa horiek 1996tik aurrera hasi dira indarrean sartzen).

Hemendik aurrera aintzat hartuko dugun adina gazte horiek ikasketak amaitu edo eten zituztenean zuten adina izango da. Hori lortzeko, ikasketak amaitu zituzteneko urteari jaino zireneko urtea kenduko diogu¹⁰.

2.4.1. Kolektiboaren ezaugarri nagusiak

3. eta 4. taulek EA Erako laginaren ezaugarri nagusiak erakusten ditu. Emakume gehienek erdi-mailako lanerako prestakuntza eta unibertsitateko ikasketak dituzte, hots, %29,58k eta %25,07k, hurrenez hurren. Bestalde, gizonezko gehienak goi-mailako lanbide-heziketari dagokion mailan sailkatuta daude, %41,23; horien atzetik, unibertsitateko ikasketak egiten dituztenak daude (%16). Emakumeen %5,63k eta gizonen %8,64k bakarrik dute bigarren hezkuntzako lehen etapari dagokiona baino prestakuntza-maila baxuagoa.

Gainera, emakumezkoek eta gizonezkoek ikasketaren arlo ezberdinak aukeratu ohi dituzte, emakumezko-

⁷ BAI'n lehen enplegu esanguratsua izango da inkesta egin duenak hasierako ikasketak edo prestakuntza amaitu, bertan behera utzi edo lehen aldiz eten ondoren aurkitzen duen lana, gutxienez 6 hilabetez eta astean 20 ordu edo gehiago aritzen bada.

⁸ Ez dira lagin horretan barneratu ikasketak amaitu edo bertan behera utzi zituzten 16 urtetik beherako gazteak, legeriari jarraiki ezin baitute oraindik lan-merkatuan sartu.

⁹ 2000ko datua ekainera arte baino ez da heltzen.

¹⁰ Adina jakiteko, jaiotze-hilabetea eta ikasketak amaitu zireneko hilabetea hartzen dira kontuan; ikasketak amaitu zireneko hilabetearen inguruan informaziorik ez badago, urtea bakarrik hartzen da (3.846 kasu).

**3. TAULA. PRESTAKUNTZA-MAILA,
SEXUAREN ARABERA - EAE**

	Emak.	Gizon.	Guztira
Ikasketa-maila			
Lehen hezkuntza	2 (0,56)	3 (0,84)	5 (0,70)
Bigarren hezkuntzako lehen etapa bukatu gabe	6 (1,69)	2 (0,56)	8 (1,12)
Bigarren hezkuntzako lehen etapa bukatuta	12 (3,38)	26 (7,24)	38 (5,32)
Erdi-mailako LLH	31 (8,73)	46 (12,81)	77 (10,78)
Batxilergoa	31 (8,73)	42 (11,70)	73 (10,22)
Goi-mailako LLH	105 (29,58)	148 (41,23)	253 (35,43)
Berriarazo titulua eta diplomaturak	76 (21,41)	32 (8,91)	108 (15,13)
Unibertsitateko ikasketak	89 (25,07)	59 (16,43)	148 (20,73)
Espezializazioak eta doktoregoak	3 (0,85)	1 (0,28)	4 (0,56)
Ikasketa-sektorea			
Zientzia hutsak eta teknologia	25 (7,04)	203 (56,55)	228 (31,93)
Natur eta osasun-zientziak	46 (12,96)	7 (1,95)	53 (7,42)
Giza eta gizarte-zientziak	177 (49,86)	50 (13,93)	227 (31,79)
Norberaren garapena, hezkuntza, arte eta sektore ezezagunak	60 (16,90)	28 (7,80)	88 (12,32)
Oinarrizko programak	47 (13,24)	71 (19,78)	118 (16,53)
Adin-tarteak			
8-15 urte	18 (4,83)	46 (11,36)	64 (8,23)
16-18 urte	58 (15,55)	99 (24,44)	157 (20,18)
19-21 urte	126 (33,78)	136 (33,58)	262 (33,68)
22-25 urte	143 (38,34)	99 (24,44)	242 (31,11)
26-35 urte	28 (7,51)	25 (6,17)	53 (6,81)
Guztira	355	359	714

Iturria: BAI, "Igarotzeen modulua. 2000ko bigarren hiru hilekoa".

ek giza eta gizarte-zientzien sektorea (%49,86) eta gizonezkoek zientzia hutsen eta teknologiaren sektorea (%56,55). Estatuan ere, gizonezkoek batez ere zientzia hutsen eta teknologiaren sektorean (%56,55ek) eta oinarrizko programetan (%36,14k) egin ohi dituzte

te euren ikasketak eta emakumezkoek, berriz, giza eta gizarte-zientzien sektorean (%38,67k) eta oinarrizko programetan (%26,29k). Estatuan bezalaxe, emakume gutxien barneratzen dituen ikasketa-arloa zientzia hutsei eta teknologiari dagokiona da eta gizonezko gutxien erregistratzen dituen natur eta osasun-zientziena.

3. taulan, gainera, gizonak eta emakumeak adin-taldeka nola banatzen diren agertzen zaigu, euren ikasketak bertan behera utzi, eten edo amaitu ziteztenean zuten ikasketa-mailari jarraiki. Emakume askok, hau da, %38,34k, 22 eta 25 urte bitartean amaitu, bertan behera utzi edo eteten dituzte ikasketak; horien atzetik, ikasketak amaitu, bertan behera utzi edo etetean 19 eta 21 urte bitartean dituzten emakumeak daude, adin horrekin amaitzen baitira unibertsitateko ikasketak. Bestalde, gizon askok (%33,58) 19 eta 21 urte bitartean amaitu, bertan behera utzi edo eteten dituzte ikasketak.

Familiaren ezaugarriei dagokienez, besteak beste, gurasoen hezkuntza-maila eta lan-egoera¹¹, gehien kasuan, nola gizonezkoak hala emakumezkoak, gurasoek lehen hezkuntzako ikasketak edo maila beheragokoak dituzte, Estaturako lagin osoan gertatzen zen bezala. Halaber, gehiengoaren kasuan, aita enplegu-egoeran dago eta ama, berriz, inaktibitate-egoeran.

Era berean, gizon eta emakumeen artean aldeak antzematen dira bereganatutako prestakuntza-mailari eta euren ikasketak egiteko aukeratzen duten sektoreari dagokienez, Estatu osoan gertatzen zen bezalaxe. Horrez gain, aipatu beharrekoa da EAEko gazteek Estatukoek baino prestakuntza-maila ertain handiagoa dutela (EAEn Estatuan baino gizonezko eta emakumezko gehiagok dituzte diplomaturak edo goragoko ikasketak¹²).

Orain arte, ikerketak hasierako hezkuntzatik lan-merkatura igarotzearen inguruko moduluan, 2000ko

¹¹ Gurasoen lan-egoerari buruzko informazioa gurasoekin bizi diren gazteei baino ez dagokie (gazte horien gurasoak identifikatzeko, 2000ko bigarren hiru hilekoari buruzko datuak biltzen dituen Biztanleria Aktiboaren Inkestan jasotako informazioa erabiltzen da). Izan ere, "gurasoekin bizi da" aldagaian jasotako informazioa 2000ko bigarren hiru hilekoari dagokio eta, beraz, ez dator bat ikasketak amaitu edo eten zireneko unearrekin.

¹² 7. taulan, prestakuntza-mailak goitik behera jarrita daude, maila txikienetik handienara. Sailkapen hori 2000. urteko Hezkuntzaren Estatuko Sailkapenean (HES-2000) oinarritzen da (honek INSN-97 sailkapenaren irizpideei jarraitzen die). Hortaz, goi-mailako lanbide-heziketa goi-mailako irakaskuntzan barneratu behar da.

4. TAULA. FAMILIAREN EZAUGARRI NAGUSIAK, SEXUAREN ARABERA

	Emak.	Gizon.	Guztira
Aitaren prestakuntza-maila			
Lehen hezkuntza edo gutxiago	242 (66,12)	263 (66,58)	505 (66,36)
Derrigorrezko bigarren hezkuntza	36 (9,84)	50 (12,66)	86 (11,30)
Batxilergoa edo baliokidea	46 (12,57)	26 (6,58)	72 (9,46)
Goi-mailako ikasketak edo baliokidea	42 (11,48)	56 (14,18)	98 (12,88)
Guztira	366	395	761
Amaren prestakuntza-maila			
Lehen hezkuntza edo gutxiago	269 (73,50)	307 (77,53)	576 (75,59)
Derrigorrezko bigarren hezkuntza	41 (11,20)	47 (11,87)	88 (11,55)
Batxilergoa edo baliokidea	38 (10,38)	19 (4,80)	57 (7,48)
Goi-mailako ikasketak edo baliokidea	18 (4,92)	23 (5,81)	41 (5,38)
Guztira	366	396	762
Aitaren lan-egoera			
Okupatua	144 (58,06)	224 (71,79)	368 (65,71)
Langabezian	8 (3,23)	7 (2,24)	15 (2,68)
Ez-aktiboa	96 (38,71)	81 (25,96)	177 (31,61)
Guztira	248	312	560
Amaren lan-egoera			
Okupatua	83 (29,96)	107 (31,47)	190 (30,79)
Langabezian	14 (5,05)	15 (4,41)	29 (4,70)
Ez-aktiboa	180 (64,98)	218 (64,12)	398 (64,51)
Guztira	277	340	617

Iturria: BAI, "Igarotzeen modulua. 2000ko bigarren hiruhilekoa".


bigarren hiruhilekoari dagokion Biztanleria Aktiboaren Inkestakoan, jasotzen diren galderei erantzun dieten gazteak deskribatu ditu batez ere. Ikusi beza-

la, gizon eta emakume gehienek bigarren hezkuntzako lehen etapari dagokiona baino prestakuntza-maila handiagoa dute; aldiz, lehen hezkuntzako ikasketak edo maila beheragokoak dituzten gizon eta emakumeen ehunekoak minimoa da. Bestalde, gizon eta emakumeen artean aldeak antzematen dira bereganatutako prestakuntza-mailari eta euren ikasketak egiteko aukeratzen duten sektoreari dagokienez. Jarraian, xehetasun handiagoz aztertuko ditugu hasierako hezkuntzatik lan-merkatura egindako igarotzeak.

2.4.2. Hasierako hezkuntzatik lan-merkatura igarotzeko prozesua deskribatzen duten faktoreak

Ondoren, EAEn bizi diren gazteak lan-merkatura nola igarotzen diren aztertuko dugu. Lagin honetan barneratzen diren gazteak, euren ikasketak edo prestakuntza bertan behera utzi, eten edo amaitzen dituztenean, hiru egoera hauetakoren batera igarotzen dira:

- lan-egoerara; alegia, lana bilatzen emandako denbora hilabete baino gutxiago izan da.
- langabezia-egoerara; hemen barneratzen direnek hilabete baino gehiago eman zuten lan bila. Horiek bi multzotan banatzen dira: enplegua aurkitu dutenak eta, 2000n (elkarrizketa egin zeneko urtean), oraindik langabezian daudenak.
- eta, azkenik, inaktibitate-egoerara. Egoera honetan daudenek ez zuten lanik bilatu hasierako ikasketak bertan behera utzi, eten edo amaitu zituztenean.



EAEko gazteak ondoko diagraman azaltzen den moduan igarotzen dira hasierako hezkuntzatik lan-merkatura:


Eskeman ikus dezakegun bezala, 1991 eta 2000 artean ikasketak amaitu edo urtebete baino gehiago eten zituzten gazteen artean, oso gutxi aurkitu zuten lana azkar (hau da, hilabete baino gutxiago bilatzen aritu ondoren), emakumezkoen %3,94k eta gizonzkoen %8,64k baino ez. Emakumezkoen %91,83 eta gizonzkoen %86,07 hezkuntza-sistematik langabezia-egoerara igaro ziren eta emakumezkoen %4,23 eta gizonzkoen %5,29, aldiz, inaktibitate-egoerara.

Aztertutako emakumeei dagokienez, %57,75ek batez beste 24,26 hilabete lan bila aritu ondoren aurkitu zuen lana (desbideratze estandarra 26,04koa izanik); gizonzkoen kasuan, %71,87k batez beste 20,66 hilabete lan bila aritu ondoren aurkitu zuen lana (des-

bideratze estandarra 23,34koa izanik). EAEn bizi diren emakumezkoen %34,08 eta gizonzkoen %14,21 oraindik langabezian zeuden 2000ko ekainean.

Estatuan bezalaxe, EAEn ere lan-egoerara igarotzen diren gizonzkoen ehunekoa emakumezkoena baino handiagoa da. Denboraldi bat langabezian eman ondoren lan-merkatura igarotzen direnei dagokienez alde nabarmena dago gizon eta emakumeen artean. Gainera, langabezian geratu ziren eta, elkarrizketa egin den unean, oraindik egoera horretan jarraitzen duten gizonzkoen ehunekoa EAEn (%14,21) Estatuan (%24,97) baino txikiagoa da. Emakumei dagokienez, ehuneko hori antzekoa da bai EAEn bai Estatuan.

EAEko emaitzak Estatukoekin alderatu ahal izateko, azken horiei dagokien diagrama aurkezten da. Bertan, Estatuko gazteek hezkuntzatik lan-merkatura nola igarotzen dira adierazten da:




Langabezia- edo inaktibitate-egoerara igarotzen direnak batez ere lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten gizon eta emakumeak dira; aldiz, lan-egoerara igarotzen direnak goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten emakumeak eta, batez ere, gizonak dira (40.A eta 40.B. irudiak).

Gizonzkoen dagokienez, langabezia- edo inaktibitate-egoerara igarotzeari buruzko datuek erakusten dute askok goi-mailako lanbide-heziketako eta batxilergoko ikasketak dituztela. Emakumeak lan-egoerara igarotzeari dagokionez, askok diplomaturak eta lizentziaturak dituzte. Azpimarratu beharrekoa da inaktibitate- edo langabezia-egoerara igarotzen diren

emakume askok lizentziaturaren bat dutela (%26,67k eta %23,14k, hurrenez hurren).


Ikasketa-arlo edo sektoreari dagokionez, bai lan-egoerara bai langabezia- edo inaktibitate-egoerara igarotzen diren gizonen batez ere zientzia hutsen eta teknologiaren arloan eta oinarrizko programetan egin dituzte euren ikasketak. Aldiz, lan-egoerara nahiz langabezia-egoerara igarotzen diren emakumeek giza eta gizarte-zientzien arloan egin dituzte euren ikasketak. Oinarrizko programen arloa aukeratu duten emakume asko igaro da inaktibitate-egoerara eta ia batek berak ere ez du zuzenean lana aurkitu (41.A eta 41.B. irudiak).

40A. IRUDIA. LAN-MERKATURATZEA EAEN, IKASKETA-MAILAREN ARABERA. GIZONEZKOAK




Iturria: EIN, "BAI-Lan-merkaturatzeen modulua".

40B. IRUDIA. LAN-MERKATURATZEA EAEN, IKASKETA-MAILAREN ARABERA. EMAKUMEAK




Iturria: EIN, "BAI-Lan-merkaturatzeen modulua".

41A. IRUDIA. LAN-MERKATURA IGAROTAKO GIZONEZKOEN BANAKETA, IKASKETA-SEKTOREAREN ARABERA. EAE



Iturria: EIN, "BAI-Lan-merkaturatzeen modulua".

41B. IRUDIA. LAN-MERKATURA IGAROTAKO EMAKUMEEN BANAKETA, IKASKETA-SEKTOREAREN ARABERA. EAE



Iturria: EIN, "BAI-Lan-merkaturatzeen modulua".

Familiaren ezaugarriari dagokienez, lagin honetako gazte gehienek gurasoek lehen hezkuntzako ikasketak edo hori baino maila beheragokoak egin dituzte eta, beraz, Estatuan bezalaxe, hasierako ikasketak amaitu, bertan behera utzi edo eten ondoren egoera batera zein bestera igarotzen diren gazte gehienek artean ezaugarri hori nagusitzen da. Gurasoen lan-egoerari dagokionez, lau egoera horietakoren batera igarotzen diren gazte gehienek artean, aita jardunean dago eta ama, berriz, inaktibitate-egoeran.

5. taulan egoera batera zein bestera igarotzen diren gazteen banaketa dugu, bizileku duten autonomia-erkidegoaren arabera. Lehen lana berehala aurkitu zuten gazteen %15,96 Kataluniari dagokio, %11,74 Andaluziari eta %10,83 Valentziako Erkidegoari.

Lana bila aritu ondoren aurkitu duten gazteen ehunetik altuenak Andaluzian (%14,27) eta Katalunian (%11,46) erregistratu dira. EAE bosgarren lekuan dago bi kategoria horietan. Langabeei dagokienez, ehunetik altuena Andaluziak du (%28,48); gainera, alde handia dago ehuneko horren eta bigarren tokian dagoen autonomia-erkidegoari (hots, Gaztela eta Leoni) dagokion %8,39ren artean. EAE seigarren lekuan dago, %5,25arekin.

6. taulak lehen lana aurkitzeko behar den batez besteko denbora (hilabete-kopurua) adierazten du, EAEko gazteen ezaugarri nagusiak kontuan hartuta eta sexuaren arabera. Kasu honetan, analisiak lana hilabete baino gutxiago bilatzen aritu ondoren aurkitu duten gazteengan jartzen du arreta¹³. Aldagai hori

5. TAULA. AUTONOMIA-ERKIDEGOAK, LAN-MERKATURA EGINDAKO IGAROTZEEN ARABERA

Autonomia-Erkid.	Lana zuzenean	Lana aritu ond.	Langabezia	Inaktibitatea	Guztira
Andaluzia	64 (11,74)	908 (14,27)	934 (28,48)	169 (15,52)	2075 (18,40)
Aragoi	35 (6,42)	326 (5,12)	80 (2,44)	49 (4,50)	490 (4,35)
Asturias	6 (1,10)	136 (2,14)	164 (5,00)	28 (2,57)	334 (2,96)
Balearrak	11 (2,02)	190 (2,99)	48 (1,46)	12 (1,10)	261 (2,31)
Kanariak	38 (6,97)	342 (5,37)	162 (4,94)	79 (7,25)	621 (5,51)
Kantabria	7 (1,28)	144 (2,26)	104 (3,17)	31 (2,85)	286 (2,54)
Gaztela eta Leon	50 (9,17)	620 (9,74)	275 (8,39)	90 (8,26)	1035 (9,18)
Gaztela-Mantxa	20 (3,67)	437 (6,87)	181 (5,52)	61 (5,60)	699 (6,20)
Katalunia	87 (15,96)	729 (11,46)	233 (7,11)	169 (15,52)	1218 (10,80)
Valentziako Erkidegoa	59 (10,83)	586 (9,21)	167 (5,09)	85 (7,81)	897 (7,95)
Extremadura	9 (1,65)	164 (2,58)	137 (4,18)	58 (5,33)	368 (3,26)
Galizia	42 (7,71)	376 (5,91)	217 (6,62)	92 (8,45)	727 (6,45)
Madrilgo Erkidegoa	30 (5,50)	427 (6,71)	215 (6,56)	60 (5,51)	732 (6,49)
Murtzia	17 (3,12)	189 (2,97)	86 (2,62)	29 (2,66)	321 (2,85)
Nafarroa	19 (3,49)	180 (2,83)	43 (1,31)	23 (2,11)	265 (2,35)
EAE	45 (8,26)	463 (7,28)	172 (5,25)	34 (3,12)	714 (6,33)
Errioxa	3 (0,55)	118 (1,85)	27 (0,82)	5 (0,46)	153 (1,36)
Ceuta eta Melilla	3 (0,55)	29 (0,46)	34 (1,04)	15 (1,38)	81 (0,72)
Guztira	545	6364	3279	1089	11277

Iturria: BAI, "Igarotzen modua. 2000ko bigarren hiruhilekoa".

¹³ Gazteek hasierako ikasketak amaitu, bertan behera utzi edo eten zituzteneko hilabeteari eta lanean hasi zirenekoari buruzko informazioa biltzen duen galdera batzuetan hutsik geratu da galdesortan, kasuan kasuko hilabetea 1997ri edo aurreko urteren bati zegokionean. Hortaz, 4.864 kasutarako bakarrik lortu da informazio osatua.

6. TAULA. LEHEN LANA AURKITU ARTE IGAROTAKO BATEZ BESTEKO DENBORA, SEXUAREN ARABERA - EAE

	Hilabete kopurua			Desbideratze estandarra			Kasu kopurua		
	Emak.	Gizon.	Guztira	Emak.	Gizon.	Guztira	Emak.	Gizon.	Guztira
Adin-taldeak									
16-18 urte	39,50	27,48	31,06	(29,67)	(26,86)	(27,96)	14	33	47
19-21 urte	23,28	16,50	19,19	(26,96)	(19,90)	(23,09)	46	70	116
22-25 urte	22,61	23,00	22,77	(25,01)	(25,59)	(25,13)	64	45	109
26-35 urte	18,00	18,44	18,29	(17,54)	(21,15)	(19,60)	10	18	28
Ikasketa-maila									
Lehen eta big. hezk.	21,75	23,73	23,20	(23,92)	(26,39)	(24,92)	4	11	15
Batxilergoa	15,50	25,73	21,42	(16,59)	(29,14)	(24,61)	8	11	19
Erdi-mailako LLH	19,08	21,41	20,45	(21,14)	(22,34)	(22,70)	12	17	29
Goi-mailako LLH	29,60	17,86	21,53	(31,44)	(21,19)	(25,30)	35	77	112
Diplomaturak	18,79	14,27	17,51	(22,67)	(14,50)	(20,65)	38	15	53
Lizentziaturak eta espezializazioak	28,68	26,63	27,68	(25,66)	(27,93)	(26,62)	37	35	72
Ikasketa-sektorea									
Zientzia hutsak eta tek.	14,56	16,50	16,35	(24,53)	(18,41)	(18,84)	9	104	113
Natur eta osasun-zientziak	13,67	80,33	22,00	(14,80)	(19,55)	(27,03)	21	3	24
Giza eta gizarte-zientziak	29,97	30,12	30,01	(29,67)	(25,76)	(28,52)	67	25	92
Norberaren garapena, hezkuntza, artea eta sektore ezezaguna	22,85	14,86	20,12	(23,40)	(24,31)	(23,72)	27	14	41
Oinarriko programak	20,80	25,55	23,97	(18,62)	(28,07)	(25,08)	10	20	30
Guztira	24,26	20,66	22,27	(23,34)	(23,34)	(24,61)	134	166	300

Iturria: BAI, "Igarotzen modulua. 2000ko bigarren hiruhilekoa".

7. TAULA. LANBIDEAK, SEXUAREN ARABERA

Lanbideak	Kasu kopurua			Ehunekoak		
	Emak.	Gizon.	Guztira	Emak.	Gizon.	Guztira
Zuzendaritza eta kudeatzailtza	8	9	17	3,65	3,11	3,35
Unibertsitateko eta bigarren hezkuntzako irakasleak	13	4	17	5,94	1,38	3,35
Zientzia hutsen eta teknolog. sekt. dagozkion unib. lanbid.	1	13	14	0,46	4,50	2,76
Natur eta osasun-zientzien sekt. dagozkion unib. lanbideak	1	1	2	0,46	0,35	0,39
Giza eta gizarte-zientzien sekt. dagozkion unib. lanbideak	16	10	26	7,31	3,46	5,12
Zientzia hutsen eta teknologiaren sektoreari dagokion unib. lehen zikloko titulazioren bati lotutako lanbideak	4	9	13	1,83	3,11	2,56
Natur eta osasun-zientzien sektoreari dagokion unib. lehen zikloko titulazioren bati lotutako lanbideak	7	0	7	3,20	0,00	1,38
Irakaskuntzaren sektoreari dagokion unibertsitateko lehen zikloko titulazioren bati lotutako lanbideak	8	5	13	3,65	1,73	2,56
Giza eta gizarte-zientzien sektoreari dagokion unibertsitateko lehen zikloko titulazioren bati lotutako lanbideak	0	1	1	0,00	0,35	0,20
Zientzia hutsen eta teknologiaren sektoreko teknikariak	2	19	21	0,91	6,57	4,13
Natur eta osasun-zientzien sektoreko teknikariak	3	2	5	1,37	0,69	0,98
Haur-hezkuntzako eta ibilgailuak gidatzearen arloko teknik.	3	0	3	1,37	0,00	0,59
Finantza-eragiketako eta administrazio-kudeaketako teknikariak	32	17	49	14,61	5,88	9,65
Administrazio-kudeaketan administrari-lanetan diharduten enpleguak	35	14	49	15,98	4,84	9,65
Zerbitzu-sektoreko eta beste sektore batzuetako langileak	67	34	101	30,59	11,76	19,88
Nekazaritzako jardueretarako langile kualifikatuak	0	0	0	0,00	0,00	0,00
Industriako langile kualifikatuak	12	121	133	5,48	41,87	26,18
Kualifikazio gabeko langileak	7	29	36	3,20	10,03	7,09
Fuerzas Armadas	0	1	1	0,00	0,35	0,20
Guztira	219	289	508	100,00	100,00	100,00

Iturria: BAI, "Igarotzen modulua. 2000ko bigarren hiruhilekoa".

kalkulatzeko, lanean hasi zireneko datari hasierako ikasketak amaitu, bertan behera utzi edo eten zireneko data kendu behar zaio

Bai gizonezkoei bai emakumezkoei dagokienez, batez besteko denbora gehiena behar duen adin-taldea 16 eta 18 urte bitartekoa da; bertan, emakumeek

batez beste 29 hilabete behar izaten dituzte eta gizonezkoek 27 hilabete. Gizonezkoen kasuan, 19 eta 21 urte bitarteko adin-taldeak behar du batez beste denbora gutxien lehen lana aurkitzeko (16,5 hilabete) eta, emakumezkoen kasuan, berriz, 26 eta 35 urte bitarteko adin-taldeak (18 hilabete).

Lana bilatzen emandako batez besteko denbora prestakuntza-mailaren arabera aztertuz gero, ikus dezakegu batezbestekorik txikiena diplomaturei dago kiela¹⁴, bai gizonezkoentzat bai emakumezkoentzat; horien atzetik, goi-mailako lanbide-heziketa dago gizonezkoen kasuan eta erdi-mailako lanbide-heziketa emakumezkoen kasuan. Estatuan ez bezala, EAEn lehen lana bilatzen ematen den denboraren batezbestekorik txikiena ez dagokio lizentziaturei.

Ikasketa-sektoreari dagokionez, emakumezkoentzat, natur eta osasun-zientzien sektorean eta, gizonezkoentzat, norberaren garapenari, hezkuntzari, arteari eta bestelakoei dagokien sektorean behar izan da batez beste denbora gutxien lana aurkitzeko. Bai gizonentzat bai emakumeentzat, giza eta gizarte-zientzien sektorean behar izan da batez beste denbora gehien lana aurkitzeko.

Azkenik, Estatu osoan bezalaxe, EAEn ere emakumeen ehunekorik handienak zerbitzu-sektoreko eta beste sektore batzuetako langileei dagozkien lanpostuetan (%30,59), administrazio-kudeaketaren sektoreko administrari-lanetako lanpostuetan (%15,98) eta finantza-eragiketarako eta administrazio-kudeaketako teknikariei dagozkien lanpostuetan (%14,61) aurki daitezke. Gizonezkoen datuei erreparatuta ikus dezakegunez, %41,87k industriako langile kualifikatu gisa aurkitzen du lana, %11,76k zerbitzu-sektoreko nahiz beste sektore batzuetako langile kualifikatu gisa eta %10,03k kualifikazio gabeko langile gisa (7. taula).

2.4.3. Lehen lanaren eta eskuratutako prestakuntzaren arteko bat-etortze maila

Jarraian, funtsean deskribatzailea den analisiaren bidez, EAeko gazteek hasierako ikasketak amaitu, bertan behera utzi edo eten zituztenean aurkitutako lehen

lana aukeratutako ikasketa-sektorearekin eta prestakuntza akademikoan hartutako kualifikazio-mailarekin bat datorren edo ez aztertuko dugu. Ondoren, 3.4 atalean, analisi ekonometrikoa egingo da, nolabait sofistikatua eta atal honetan egiten dugunaren ezberdina, neurri batean behintzat; analisi ekonometriko horren bidez, gizabanako gazteak bere ikasketa-maila eta sektorearekin bat datorren lehen lana aurkitzea zein faktore nagusik baldintzatzen duten azalduko dugu.

Azpimarratu beharrekoa da hemen aztertzen duguna *lortutako lehen lana* dela, eta ez modulu honi dagokion elkarrizketa egiteko orduan gizabanakoek duten lana, nahiz eta kasu askotan horixe litzatekeen egokiena, bigarren lana edo ondorengo beste lanen bat lortzean lan-esperientzia handiagoa izango baita. Hala, beraz, ez dugu daturik ondorengo hilabeteetan izandako lanbide-karreraren jarraipena egin ahal izateko eta, ondorioz, ezta lortzen den lana prestakuntzarekin bat datorren edo ez jakiteko ere.

Horretarako, hezkuntza-mailaren arabera egin den lanbideen kualifikazio-mailen taula propioa erabiliko da. Taula horretan, 5 kualifikazio-maila bereizten dira:

- 1. maila: lehen eta bigarren hezkuntza (derrigorrezko ikasketak; 6-16 urte)
- 2. maila: erdi-mailako LLH eta batxilergoa (bigarren hezkuntzako 2. etapa; 16-18 urte)
- 3. maila: goi-mailako LLH (18-20/21 urte)
- Diplomaturak eta/edo unibertsitateko berariazko tituluak (18-21/22 urte)
- Lizentziaturak eta espezializazioak (goi-mailako ikasketak; 18-22/23 urte edo gehiago)

Ondoren, lagina osatzen duten gazteak multzo ezberdinetan banatuko ditugu, kualifikazio-mailak hartuta egin dugun sailkapenaren eta ikasketak egiteko aukeratu duten arloaren arabera. Gazte horiek 5 ikasketak arlotan sailkatu direnez eta 5 kualifikazio-maila daudenez, guztira 18 talde¹⁵ ezberdin ditugu lanpostuekin elkartzeko.

¹⁴ Kontu handiz ibili behar dugu batezbesteko horiek interpretatzeko orduan, EAerako azpilaginak horren inguruko kasu gutxi aurkezten baititu. Emakumezkoek batezbesteko txikiagoa dute batxilergoko mailan, baina maila horretan lau emakumezko baino ez daude.

¹⁵ 18 talde bakarrik daude, 1. kualifikazio-maila, lehen eta bigarren hezkuntzari dagokiona, oinarriko programen arloari baitagokio soil-soilik; halaber, oinarriko arlo hori 2. kualifikazio-mailara heltzen da, batxilergoari dagokion prestakuntza-maila arlo honetan barnatzen baita.


Bestalde, lanbideei dagokienez, horiek 17 lanbide-talde homogeneotan banatu dira, kargua betetzeko beharrezko kualifikazio-maila eta dagokion arloa¹⁶ erreferentzi gisa hartuta.

Azkenik, aldagai kualitatiboa osatzen da, *bat etortzea* neurtzeko. Horrek bat balioa du pertsonaren lanpostua hasierako ikasketak amaitu, bertan behera utzi edo eteteko unean dituen prestakuntza-mailarekin eta ikasketen arloarekin bat badator edo hauek baino goragoko kategoriakoa bada¹⁷, eta zero aurkako egoeran. Pertsona jakin batek lanpostu jakin baterako kualifikazio-maila egokia badu, baina ikasketak beste arlo batean egin baditu, *bat ez datorrela*¹⁸ esaten da.

Lehen emaitzak erakusten digu EAEn emakumeen %65,30ari eta gizonezkoen %62,15ari dagokionez, lehen lanean bete behar izan zituzten zereginak ez datozela bat aukeratutako ikasketa-sektorearekin eta bereganatutako ikasketa-mailarekin (Estatuan, emakumeen %56,95entzat eta gizonezkoen %51,39rentzat).

Batxilergoko nahiz goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak egin dituzten gizonezkoen %86k baino gehiagok euren ikasketa-mailarekin bat ez datorren lehen lana aurkitu du. Egindako ikasketekin bat datorren lehen lana aurkitu dutenak batez ere lizentziaturak dituztenak eta erdi-mailako lanbide-heziketako¹⁹ prestakuntza-mailara heldu direnak ditugu (%64 eta %61,76, hurrenez hurren) (42.A. irudia).

42A. IRUDIA. GIZONEZKOEN BANAKETA, LANPOSTUAREN ETA IKASKETEN ARTEKO BAT-ETORTZE MAILA AINTZAT HARTUTA



Iturria: EIN, "BAI".


¹⁶ Kualifikaziorik gabeko langileei lana eskaintzen zaienean kualifikazio-maila 1 denez eta maila horretako ikasketak ezin direnez oinarritzko programena ez den beste arlo batean sailkatu, maila honetan ezin izan ditugu jarduera-sektoreak bereizi.

¹⁷ Bat datorrela pentsatzen den edo ez jakiteko, LES-94 sailkapenean 2, 3 eta 4 digitu dituzten lanpostuen izenetan oinarritu gara.

¹⁸ Bai zuzendaritza eta kudeaketako lanpostuetan daudenak bai unibertsitateko eta bigarren hezkuntzako irakaskuntzan dihardutenak, ezagutza-arlo ezberdinetako lanpostuak direnez eta ezin denez identifikatu zein arlori dagozkion, dena delako arloarekin bat datozela esaten da; bestela esanda, horientzat aldagai kualitatiboak bat balioa hartzen du.


¹⁹ Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenez, lehen kualifikazio-mailan daudela esaten da; horien lanbidea edozein dela ere, ez da pentsatzen gutxietsita daudenik.

42B. IRUDIA. EMAKUMEEN BANAKETA, LANPOSTUAREN ETA IKASKETEN ARTEKO BAT-ETORTZE MAILA AINTZAT HARTUTA




Iturria: EIN, "BAI".

43A. IRUDIA. LANBIDEAREN ETA IKASKETA SEKTOREAREN ARTEKO BAT-ETORTZE MAILA. EAEn. GIZONEZKOAK.



Iturria: EIN, "BAI".

43B. IRUDIA. LANBIDEAREN ETA IKASKETA-SEKTOREAREN ARTEKO BAT-ETORTZE MAILA. EAEn. EMAKUMEAK

Iturria: EIN, "BAI".

Estatuan bezalaxe, EAEn ere emakumeen gehien-goarentzat, aurkitzen duten lehen lana ez dator bat bereganatu duten prestakuntza-mailarekin, horien ikasketak-maila edozein dela ere (lizentziaturak dituztenak salbu). Egoera hori batez ere batxilergoko eta goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituztenen artean antzematen da (42.B. irudia).

Ikasketak-sektoreari dagokionez (16 eta 17. irudiak), ikus dezakegu EAEn euren ikasketak giza eta

gizarte-zientzien sektorean eta norberaren garapenari, hezkuntzari, arteari eta bestelakoei dagokien sektorean egin dituzten gizonetakoak direla euren kualifikazio-mailaren eta aurkitutako lanaren artean bat-etortze mailarik txikiena dutenak. Bestalde, emakumezkoek dagokienez, arazo hori euren ikasketak oinarrizko programetan eta giza eta gizarte-zientzien sektorean egin dituztenek dute.

EAEn 1991 eta 2000 artean ikasketak amaitu edo urtebete baino gehiago eten zituzten gazteei buruzko datu ezberdinen deskribapena laburbiltze aldera, honako alderdi hauek azpimarratu ditzakegu:

- 1991 eta 2000 artean ikasketak amaitu edo urtebete baino gehiago eten zituzten gazteen artean, oso gutxi aurkitu zuten lana azkar (hau da, hilabete baino gutxiago bilatzen aritu ondoren), emakumezkoen %3,94k eta gizonetako %8,64k baino ez. Emakumezkoen %91,83 eta gizonetako %86,07 hezkuntza-sistematik langabezia-egoerara igaro ziren eta emakumezkoen %4,23 eta gizonetako %5,29, aldiz, inaktibitate-egoerara.
- Emakumeen %57,75ek batez beste 24,26 hilabete lan bila aritu ondoren aurkitu zuen lana; gizonetako kasuan, %71,87k batez beste 20,66 hilabete lan bila aritu ondoren aurkitu zuen lana. EAEn bizi diren emakumezkoen %34,08 eta gizonetako %14,21 oraindik langabezian zeuden 2000ko ekainean.

- *Estatuan bezalaxe, Euskal Autonomia Erkidegoan ere lan-egoerara igarotzen diren gizonetzkoen ehunekoak emakumezkoena baino handiagoa da. Denboraldi bat langabezian eman ondoren lan-merkatura igarotzen direnei dagokienez alde nabarmena dago gizon eta emakumeen artean. Gainera, langabezian geratu ziren eta, elkarrizketa egin den unean, oraindik egoera horretan jarraitzen duten gizonetzkoen ehunekoak EAEn (%14,21) Estatuan (%24,97) baino txikiagoa da. Emakumeei dagokienez, ehuneko hori antzekoa da aztertutako bi eremuetan.*
- *Langabezia- edo inaktibitate-egoerara igarotzen direnak batez ere lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonak dira, bai gizonetzkoak bai emakumezkoak; aldiz, lan-egoerara igarotzen direnak goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten emakumeak eta, batez ere, gizonak dira. Gizonetzkoen dagokienez, galdesortaren bidez jaso ziren datuek erakusten digute horietako askok goi-mailako lanbide-heziketako eta batxilergoko ikasketak dituztela. Emakumeen kasuan lan-egoerara igarotzeari buruzko datuak aztertuz gero, ikus dezakegu horietako askok diplomaturak eta lizentziaturak dituztela. Azpimarratu beharrekoa da inaktibitate- edo langabezia-egoerara igarotzen diren emakume askok lizentziaturaren bat dutela.*
- *Lana bilatzen emandako denboraren batezbestekorik txikiena diplomaturei dagokie, bai gizonetzkoentzat bai emakumezkoentzat; horien atzetik, goi-mailako lanbide-heziketa dago gizonetzkoen kasuan eta erdi-mailako lanbide-heziketa emakumezkoen kasuan. Estatuan ez bezala, EAEn lehen lana bilatzen ematen den denboraren batezbestekorik txikiena ez dagokio lizentziaturei.*
- *EAEn emakumeen %65,30ari eta gizonetzkoen %62,15ari dagokionez, lehen lanean bete behar izan zituzten zereginak ez datoz bat aukeratutako ikasketa-sektorearekin eta bereganatutako ikasketa-mailarekin. Batxilergoko nahiz goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak egin dituzten gizonetzkoen %86k baino gehiagok euren ikasketa-mailarekin bat ez datorren lehen lana aurkitu du. Egindako ikasketekin bat datorren lehen lana aurkitu dutenak batez ere lizentziaturak dituztenak eta erdi-mailako lanbide-heziketako prestakuntza-mailara heldu direnak ditugu. Estatuan gertatzen den bezalaxe, EAEn ere emakumeen gehiengoarentzat, aurkitzen duten lehen lana ez dator bat bereganatu duten prestakuntza-mailarekin, horien ikasketa-maila edozein dela ere (lizentziaturak dituztenak salbu). Egoera hori batez ere batxilergoko eta goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituztenen artean antzematen da. Nolanahi ere, ez dugu daturik ondorengo hilabeteetan izandako lanbide-karrieraren jarraipena egin ahal izateko eta, ondorioz, ezta lortzen den lana prestakuntzarekin bat datorren edo ez jakiteko ere.*
- *Ikasketa-sektoreari dagokionez, ikus dezakegu EAEn euren ikasketak giza eta gizarte-zientzien sektorean eta norberaren garapenari, hezkuntzari, arteari eta bestelakoei dagokien sektorean egin dituzten gizonetzkoak direla euren kualifikazio-mailaren eta aurkitutako lanaren artean bat-etortze mailarik txikiena dutenak. Bestalde, emakumezkoen dagokienez, arazo hori euren ikasketak oinarrizko programetan eta giza eta gizarte-zientzien sektorean egin dituztenek dute.*

**LEHEN ZATIA
HASIERAKO
HEZKUNTZATIK LEHEN
LANERA IGAROTZEKO
PROZESUA**

3. Lehen lanera igarotzeari buruzko analisi empirikoa

Lan honen lehen fasean (funtsean, deskribatzailea izan den horretan) egindako analisitik ondoriozta dezakegun bezala, lana aurkitzeko zailtasun gehien dituzten kolektiboetako bat gazteei dagokiena da. Kolektibo honen egoera benetan deigarria da, hainbat arrazoi direla medio: langabezia-tasa altua duelako, pertsona horiek lanik gabe egoteak giza baliabideak galtzea dakarrelako, eta euren ibilbide profesionalari dagokionez, kalte egiten dielako lan-bizitzaren hasieran luzaroan langabezian egoteak.

Lana aurkitzeko zailtasun nabarmenak dituen beste kolektibo bat emakumeei dagokiena da. Kolektibo honek ere berebiziko garrantzia du; izan ere, emakumeek gero eta parte-hartze handiagoa dute lan-merkatuan eta, horren ondorioz, biztanleria aktiboaren osaera sakon-sakonetik aldatzen ari da.

Emaitza horiek oinarri hartuta, ikerketaren fase honetan, bi kolektibo horiek hobeto ezagutzen ahaleginduko gara, ikuspegi empirikotik begiratuta. Kolektibo horietan, bi talde egingo dira: bata lan-esperientziarik izan ez duten langabeena, eta bestea, lan-esperientzia dutenena.

Lehen taldean, gazteak aztertuko ditugu, baita horien lan-merkataturatzea ere, hezkuntzako etapa formalek hasita; azterketa hori baterakoa nahiz sexua-aren arabera bereizitakoa izango da. Aldiz, bigarren taldean, eta kopuruari erreparatuta kolektibo nagusia emakumezkoena izan arren, gizonezkoak ere aztertuko ditugu; horrela, analisi konparatiboa egin ahal izango dugu eta horrek lanaren ikuspegitik emakumeek bizi duten errealitatea hobeto ezagutzeko aukera emango digu.

Kolektibo horietako bakoitzarentzat, aparteko ikerketa egingo dugu, lana aurkitzeko zailtasun horiek eragiten dituzten faktore nagusiak zeintzuk diren de-

tektatzeko, bai Estatuari dagokionez bai EAEn esparruari dagokionez ere. Azterketa empirikoa egiterakoan, honako hauek gauzatu behar dira: aurretik analisi deskribatzailea egin behar da; hori amaitzean, analisi empiriko estatikoa; eta, azkenik, analisi dinamiko xehatuagoa.

Jarraian, egindako ikerketaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Hasteko, gazteen inguruko analisiaren emaitzak, lehen lanera igarotzeko prozesua eta lehen lanaren ezaugarriak emango ditugu; halaber, arreta berezia jarriko dugu aurkitzen duten lehen lan hori, kualifikazio-mailak eta jarduera-sektorea aintzat hartuta, bereganatu duten ikasketak-mailarekin eta auke-ratu duten ikasketak-sektorearekin bat datorren edo ez ikusteko. Ahal den guztietan, lehendabizi gazte guztiak barneratzen dituen lagina aztertuko da eta, ondoren, generoaren araberako analisi xehatuagoa egingo da, gizonezkoak eta emakumezkoak bereizita.

Lanaren bigarren zatian, lan-esperientzia baduten langabeei dagozkien emaitzak aurkeztuko ditugu, egitura-mota berari jarraiki.

3.1. Lehen lanera igarotzen diren gazteen ezaugarri nagusiak

Gazteak lehen lanera zein baldintzatan igarotzen diren aztertzeko erabilitako datu-basea 2000. urteko bigarren hiruhilekoari buruzko *Biztanleria Aktiboaren Inkestari* dagokio, zehazki, *Hezkuntzatik lan-merkatu-ara igarotzeari buruzko moduluari*. Modulu honek euren ikasketak 1991 eta 2000ko ekaina bitartean amaitu zituzten 16 eta 35 urte bitarteko gazteei buruzko informazioa biltzen du. Analisi hau egiterakoan, kontuan izanik hasierako lagina oso heterogeneoa dela eta aztertutako *datuak atzera begirakoak*²⁰ direla, ahalik eta homogeneoena izango den lagina osat-

²⁰ Kasu horietan, oso garrantzitsua da eskatzen den informazioa denboran oso urrun ez egotea, horren inguruan ezer ahazteak eragin ditzakeen erroreak saihesteko.

1. TAULA. HEZKUNTZATIK LAN-MERKATURA EGIN DIREN IGAROTZEAK

Egindako igarotzea	Estatua			EAE		
	Emak.	Gizona	Guztira	Emak.	Gizona	Guztira
Lana zuzenean	21	44	65	0	4	4
% bertikala	1,69	3,62	2,65	0,00	6,15	2,94
% horizontala	32,31	67,69	100,00	0,00	100,00	100,00
Lana (bilatzen aritu ondoren)	497	584	1.081	28	43	71
% bertikala	40,08	48,11	44,05	39,44	66,15	52,21
% horizontala	45,98	54,02	100,00	39,44	60,15	100,00
Langabezia	561	386	947	36	12	48
% bertikala	45,24	31,80	38,59	50,70	18,46	35,29
% horizontala	59,24	40,76	100,00	75,00	25,00	100,00
Inaktibitatea	161	200	361	7	6	13
% bertikala	12,98	16,47	14,71	9,86	9,23	9,59
% horizontala	44,60	55,40	100,00	53,85	46,15	100,00
Guztira	1.240	1.214	2.454	71	65	136
% bertikala	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00	100,00
% horizontala	50,53	49,47	100,00	52,21	47,79	100,00

Iturria: EIN, "BAI" (2000 bigarren hiruhilabetekoa).

zen ahalegindu gara, ikasketak amaitzeko urteari dagokionez, eta urte hori ahalik eta gertuen egotea el-karrizketa egin zeneko urtetik (hots, 2000ko ekaina).

Horrela, Estatu osorako eta EAerako laginak euren ikasketak 1997 eta 2000ko ekaina bitartean amaitu edo eten zituzten gizon eta emakumeak barneratzen ditu eta euren gurasoei buruzko informazioa eta aurkitutako lanaren inguruko informazio guztia ematen digu. Estatuari dagokionez, lagina 2.454 pertsonak osatzen dute, horietatik %50,53 emakumezkoak izanik. EAerako lagina askoz ere txikiagoa da, hots, 136 pertsona, horietatik %52,21 emakumezkoak izanik.

1. taulan, euren ikasketak amaitu edo bertan behera utzi zituztenean gazteak lan-merkatuan zein egoerara igaro ziren aurkezten zaigu. *Lana berehala* (alegia, hilabete baino gutxiago bila ibili ondoren) aurkitu zuten gazteen ehunekoa %2,65ekoa baino ez da Estatu osorako laginean eta %2,94koa EAEkoan. Guztizko ehuneko horretan, emakumeen kopurua gizonekoena baino txikiagoa da Estatuan eta nulua da EAEn. Lana bila ibili ondoren aurkitu zutenei dagokionez, Estatuan %40,08 emakumezkoak dira eta %48,11 gizonekoak. Euskal Autonomia Erkidegoan, lana aurkitzen duten emakumezkoen ehunekoa %39,44koa besterik ez da; gizonekoen ehunekoa, ostera, %66,15era heltzen da.

Estatuan, *langabezira* igaro ziren emakumezkoen ehunekoa, hots, %45,24, lana aurkitu zutenena baino

handiagoa da; aldiz, *langabezira* igaro ziren gizoneko-koen ehunekoa, hots, %31,8, lana aurkitu zutenena baino txikiagoa da. EAEn lagina osatzen duten pertsonen %35,29 batez beste 16,25 hilabete bila ibili ondoren igaro zen langabezia-egoerara; emakumezkoen erdia baino gehiago, hau da, %50,70, langabezia-egoeran geratu ziren; gizonekoek dagokionez, %18,46 baino ez zen egoera horretan geratu. EAEn, lana aurkitu zuten nahiz langabezia-egoerara igaro ziren gizon eta emakumeen ehunekoak alderatzen baditugu, alde handiak daudela antzeman dezakegu; horrela, beraz, gizonekoen erdiak baino gehiagok lana aurkitzea lortu zuen eta emakumezkoen erdia edo zuzenean langabezia-egoerara igaro zen.

Inaktibitate-egoerara igarotzearen kategorian, euren ikasketak amaitu edo bertan behera utzi ondoren lana bilatu ez zuten emakume eta gizonak ditugu²¹. Estatuko guztizkoan, egoera horretara emakumezkoen %12,98 eta gizonekoen %16,47 igarotzen da. Ikus dezakegun bezala, gizonekoen ehunekoa handiagoa da emakumezkoena baino. Orokorrean, inaktibitate-egoeran emakume gehiago egon ohi dira gizonak baino. Kasu honetan, beti kontuan izan behar dugu laginean 16 eta 35 urte bitarteko adin-tartea aztertzen dela. Gizonekoen batez besteko adina 20,76 urtekoa da eta emakumezkoena 21,21ekoa. Litekeena da lagin honetan ez-aktiboak euren ikasketak bertan behera utzita beste zerbait ikastea pentsatu duten gazteak izatea, edota euren ikasketak amaituta

²¹ Ezinezkoa da zehazki esatea zein motatako inaktibitatea den, erabilitako inkestan ez baita zehazten.

urte sabatikoa hartzea erabaki duten gazteak. EAEn, egoera honetara oso gazte gutxi igarotzen dira, ehonekoa oso antzekoa izanik gizon eta emakumezkoen artean, alegia, %9,86koa emakumezkoentzat eta %9,23koa gizonezkoentzat.

Lana aurkitzea baldintzatzen duten alderdiei buruz egin diren ikerketa ekonomiko gehienek ondorioztatzen dutenaren arabera, faktore nagusienetako bat gizabanakoaren hezkuntza da, bere giza kapitala gehitzen duten beste aldagai batzurekin batera. Lehen lanera egindako igarotzea aztertzerakoan, giza kapitaleko aldagai horiek are garrantzitsua go bihurtzen dira; izan ere, zenbait gizabanakok ez du lan-esperientziarik eta beste zenbaitzuen lanerako kualifikazioa soil-soilik egindako ikasketen arabera dago.

Jarraian, gazteak xehetasun handiagoz aztertuko ditugu, hezkuntza-garaia amaituta lan-merkatuan sartzen direnean zein egoerara igarotzen diren aintzat hartuta. EAerako laginari dagozkion datuen analisi deskribatzailea egingo dugu eta Estatu osoko gazteekin alderatuta zein alde dauden ikusiko ditugu.

2. taulan, gazteak zein egoerara igaro diren aurkezten zaigu, bereganatutako *prestakuntza-mailaren* arabera²². Bertan, hezkuntza-maila bakoitzean egoera batera zein bestera zenbat gazte igarotzen diren ikus dezakegu, baita egoera bakoitzean zeintzuk duten prestakuntza-maila bat edo beste ere. Azken zutabeak hezkuntza-mailaren arabera gazteek EAEn duten banaketa erakusten du.

Estatuko datuekin alderatuz gero, EAEn gazte gehienek, hots, %75,74k, goi-mailako ikasketak ditu²³. %13,97k bakarrik ditu batxilergoko ikasketak edo beheragoko mailen bati dagozkionak. Beste askok, %31,62k, goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak ditu; talde horretan gizonezkoen kopurua emakumeena baino handiagoa da (gizonezkoak %67,44 dira). %22,06k diplomaturaren bat egin du, multzo honetan gehienak emakumezkoak izanik (%70). Azkenik, guztizko gazte-kopurutik beste %22,06k unibertsitateko ikasketak ditu; maila honetan ere emakumezkoak dira nagusi, %60ko ehunekoarekin.

Has gaitezen ehuneko horiek zutabeka aztertzen; alegia, egoera bakoitzeko *banaketa hezkuntza-mai-*

2. TAULA. EGOERA BATERA EDO BESTERA IGAROTZEA, IKASKETA-MAILAREN ARABERA

Hezkuntza Maila	EAE					Estatua				
	Lan Z.	Lan (1)	Langab.	Inaktib.	Guztira	Lan Z.	Lan (1)	Langab.	Inaktib.	Guztira
2. hezk. edo gutx.	0	2	9	0	11	14	178	185	82	459
% col.	0,00	2,82	18,75	0,00	8,09	21,54	16,47	19,54	22,71	18,70
% fila	0,00	18,18	81,82	0,00	100,00	3,05	38,78	40,31	17,86	100,00
Batxilergoa	0	3	4	1	8	4	96	96	55	251
% col.	0,00	4,23	8,33	7,69	5,88	6,15	8,88	10,14	15,24	10,23
% fila	0,00	37,50	50,00	12,50	100,00	1,59	38,25	38,25	21,91	100,00
Erdi-mailako LLH	0	8	4	2	14	7	113	105	45	270
% col.	0,00	11,27	8,33	15,38	10,29	10,77	10,45	11,09	12,47	11,00
% fila	0,00	57,14	28,57	14,29	100,00	2,59	41,85	38,89	16,67	100,00
Goi-mailako LLH	3	26	9	5	43	15	242	186	52	495
% col.	75,00	36,62	18,75	38,46	31,62	23,08	22,39	19,64	14,40	20,17
% fila	6,98	60,47	20,93	11,63	100,00	3,03	48,89	37,58	10,51	100,00
Diplomaturak	1	17	10	2	30	14	173	175	54	416
% col.	25,00	23,94	20,83	15,38	22,06	21,54	16,00	18,48	14,96	16,95
% fila	3,33	56,67	33,33	6,67	100,00	3,37	41,59	42,07	12,98	100,00
Universits.	0	15	12	3	30	11	279	200	73	563
% col.	0,00	21,13	25,00	23,08	22,06	16,92	25,81	21,12	20,22	22,94
% fila	0,00	50,00	40,00	10,00	100,00	1,95	49,56	35,52	12,97	100,00
Guztira	4	71	48	13	136	65	1081	947	361	2.454
% fila	2,94	52,21	35,29	9,56	100,00	2,65	44,05	38,59	14,71	100,00

(1) Lan (bilt. ond.).

Iturria: EIN, "BAI" (2000 bigarren hiruhilabetekoa).

²² Bukaeran, aldagaien eranskina gehitu da; bertan, prestakuntza-mailari, ikasketa-sektoreari eta lanbideari dagozkion aldagaiak nola definitzen diren ezartzen da.

²³ Irakaskuntzaren Nazioarteko Saillkapen Normalizatuan (INSN-97), goi-mailako ikasketatzat hartzen dira goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak, diplomaturak eta unibertsitateko ikasketak.

laren arabera. Berehala lan-egoerara igarotzen direnen artean, EAerako laginean funtsean goi-mailako LLHko ikasketak dituztenak eta, neurri txikiagoan, diplomaturaren bateko tituludunak aurki ditzakegu; Estatukoan, berriz, batxilergoko eta erdi-mailako LLHko ikasketak dituztenak gutxiengoa dira. Bilatzen aritu ondoren lana aurkitzen dutenen artean, batez ere unibertsitateko edo 3. mailako ikasketak dituzten gazteak (%21,13 EAEn eta %25,81 Estatuan), diplomaturaren bat egin dutenak (EAEn %23,94 eta Estatuan %16 baino ez) eta goi-mailako LLHko ikasketak dituztenak (EAEn %36,62 eta Estatuan %22,39) daude. Hemen ere, batxilergoko ikasketak (%4,23) eta oinarrizko ikasketak (%2,82) dituzten gazteak gutxiengoa dira.

Langabezia-egoerara batez ere unibertsitateko ikasketak dituzten gazteak igarotzen dira (hots, %25 EAEn eta %21,12 Estatuan); egoera honetara gutxien igarotzen direnak batxilergoko ikasketak dituzten gazteak dira (%8,33 EAEn eta %10,14 Estatuan).

EAE eta Estatuaren arteko alderik handienak inaktibitate-egoerara igarotzeko prozesuan ikus ditzakegu. EAEn inaktibitate-egoerara batez ere goi-mailako LLHko ikasketak eta unibertsitateko ikasketak dituzten gazteak igarotzen dira eta Estatuan, berriz, lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketak (%22,71) eta unibertsitateko ikasketak (%20,22) dituzten gazteak. Estatuan, inaktibitate-egoerara igarotzen diren gazteetatik erdi-mailako LLHko ikasketak dituztenen kopurua da txikiena (%12,47). Aldiz, EAEn gazte horiek dira hezkuntza-maila txikiena dutenak (batxilergoa eta bigarren hezkuntza edo maila behe-eragoko ikasketak).

Ehunekoak lerroka aztertuz gero, egoera ezberdin horiek hezkuntza-maila bakoitzari dagokionez nola banatzen diren ikus dezakegu. Informazio horri esker, gazteak lan-egoerara igarotzen direnean normalean zein prestakuntza-maila duten ikus dezakegu.

Goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten gazte guztietatik, %67,45ek aurkitu zuen lana. Horien atzetik, diplomaturako ikasketak eta erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten gazteak ditugu; horietatik %60k eta %57,14k, hurrenez hurren,

aurkitu zuten lana. Unibertsitateko ikasketak dituzten gazteen guztizko kopurutik, %50 lan-egoerara igaro zen eta %40, aldiz, langabezia-egoerara.

Bigarren hezkuntzako ikasketak edo maila behe-eragokoak dituzten gazteetatik, gehienak, hots, %81,82, langabezia-egoerara igarotzen dira. Lan-merkatuan sartzean egoera honetara igarotzen da baita ere batxilergoko ikasketak dituzten gazteen erdia.

Datuek erakusten dutenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan gazteek bereganatu duten prestakuntza-maila Estatu osoan gazteek dutenaren gainetik dago. Horrek esan nahi du EAEn lanposturen bat betetzeko eskatzen den prestakuntza-maila handiago dela eta, hori dela eta, batez besteko maila baino behe-eragoko ikasketak dituzten gazte gehiago igarotzen dira langabezia-egoerara, Estatuan baino gehiago.

3. taulan, ikasketak egiteko aukeratutako *ikas-keta-sektorea* aintzat hartuta gazteak zein egoerara igaro ziren erakusten digu. Gazteek ikasketak sektore ezberdinei dagokienez duten banaketak adierazten digu gazte gehien baneratzten dituzten sektoreak batez ere zientzia teknikoaren sektorea²⁴ (%34,56), eta gizarte-zientzien sektorea (%22,79) direla; zientzia teknikoenean, gehienak gizonezkoak dira (%93,62) eta gizarte-zientzienean gizonezkoen kopurua oso txikia da (%16,13 baino ez). Estatuan, lagin honetako gazte askok, %28,44k, oinarrizko ikasketen sektorean egin dituzte ikasketak, hau da, lehen eta bigarren hezkuntzari eta batxilergoari dagozkien sektoreetan. Horren atzetik ditugu, batetik, gizarte-zientzien sektorea, %25,55arekin (emakumezkoak %66,51 dira), eta, bestetik, zientzia teknikoaren sektorea, %16,71ekin (emakumezkoak %11,71 baino ez dira). Gazte-kopururik txikiak baneratzten dituzten ikasketak sektoreak honako hauek dira: zerbitzuak (%4,6; gehienak emakumezkoak dira, hots, %66,37) eta hezkuntza eta giza zientziak (%8,07; bertan, %71,21 emakumezkoak dira).

Egoera batera edo bestera igarotzeko dagokionez, euren ikasketak zientzia teknikoaren sektorean egin zituzten gazteen guztizko kopurutik %76,6 lan-

²⁴ Sektore honetan baneratzten dira ondoko arlo hauei dagozkien ikasketak: ingeniariaritzak, arkitektura, mekanika, elektronika eta industria eta eraikuntzako beste prestakuntza tekniko batzuk. Aldagaien eranskinean, xehetasun osoz zehazten da ikasketak sektore bakoitza.

3. TAULA. EGOERA BATERA EDO BESTERA IGAROTZEA, IKASKETA-SEKTOREAREN ARABERA

Hezkuntza Maila	EAE					Estatua				
	Lan Z.	Lan (1)	Langab.	Inaktib.	Guztira	Lan Z.	Lan (1)	Langab.	Inaktib.	Guztira
Oinarrizk.	0	4	12	1	17	18	267	276	137	698
% col.	0,00	5,63	25,00	7,69	12,50	27,69	24,70	29,14	37,95	28,44
% fila	0,00	23,53	70,59	5,88	100,00	2,58	38,25	39,54	19,63	100,00
Hezkuntza, giza zientziak	0	8	7	1	16	7	65	98	28	198
% col.	0,00	11,27	14,58	7,69	11,76	10,77	6,01	10,35	7,76	8,07
% fila	0,00	50,00	43,75	6,25	100,00	3,54	32,83	49,49	14,14	100,00
Gizarte-Zientziak	0	16	13	2	31	5	297	244	81	627
% col.	0,00	22,54	27,08	15,38	22,79	7,69	27,47	25,77	22,44	25,55
% fila	0,00	51,61	41,94	6,45	100,00	0,80	47,37	38,92	12,92	100,00
Zientzia Hutsak	0	1	1	2	4	2	68	58	23	151
% col.	0,00	1,41	2,08	15,38	2,94	3,08	6,29	6,12	6,37	6,15
% fila	0,00	25,00	25,00	50,00	100,00	1,32	45,03	38,41	15,23	100,00
Zientzia-teknikoak	4	32	6	5	47	24	234	102	50	410
% col.	100,00	45,07	12,50	38,46	34,56	36,92	21,65	10,77	13,85	16,71
% fila	8,51	68,09	12,77	10,64	100,00	5,85	57,07	24,88	12,20	100,00
Natur eta osasun-zientziak	0	6	5	0	11	4	98	126	29	257
% col.	0,00	8,45	10,42	0,00	8,09	6,15	9,07	13,31	8,03	10,47
% fila	0,00	54,55	45,45	0,00	100,00	1,56	38,13	49,03	11,28	100,00
Zerbitzuak	0	4	4	2	10	5	52	43	13	113
% col.	0,00	5,63	8,33	15,38	7,35	7,69	4,81	4,54	3,60	4,60
% fila	0,00	40,00	40,00	20,00	100,00	4,42	46,02	38,05	11,50	100,00
Guztira	4	71	48	13	136	65	1081	947	361	2454
% fila	2,94	52,21	35,29	9,56	100,00	2,65	44,05	38,59	14,71	100,00

(1) Lan (bilt. ond.).

Iturria: EIN, "BAI" (2000 bigarren hiruhilabetekoa).

egoerara igaro zen; gizarte-zientzien sektorean egin zituztenetik, egoera horretara %51,61 igaro zen. Bestalde, EAEn oinarrizko ikasketak baino egin ez dituzten gazteen %70,59 langabezia-egoerara igaro zen²⁵.

Hilabete baino gutxiago bila aritu ondoren lana aurkitu duten gazteetatik, Estatuan %36,92k zientzia teknikoaren sektorean egin zituen ikasketak eta %27,69k oinarrizko ikasketen sektorean (sektore horietan batez ere gizonezkoak dira nagusi, %88,29 eta %57,16, hurrenez hurren). Lana hilabete baino gehiago bila ibili ondoren aurkitu zuten gazteetatik, %27,47k gizarte-zientzien sektorean egin zituen ikasketak, %24,7k oinarrizko ikasketen sektorean eta %21,65ek, bestalde, zientzia teknikoaren sektorean. Euren ikasketak amaitu edo bertan behera utzi ondoren lana bilatu bai baina, aztertutako aldi (hots, 1997tik 2000ko ekainera) ezer aurkitu ez duten gazteetatik, %29,14k oinarrizko programen sektorean egin ditu ikasketak, %25,77k gizarte-zientzien sektorean

eta %13,31k natur eta osasun-zientzien sektorean. Estatuan, garrantzitsua da ohartaraztea euren ikasketak hezkuntza eta giza zientzien sektorean egin dituzten gazteetatik, %49,49k (hau da, ia erdiak) ez duela lanik aurkitzen (langabezia-egoerara igarotzen da). Euren ikasketak natur eta osasun-zientzien sektorean egin dituzten gazte asko ere langabezia-egoerara igarotzen dira (%49,03). Azpimarratu beharrekoa da euren ikasketak zientzia teknikoaren sektorean egin dituzten askok lana aurkitzen dutela (ia %62k). Sektore honetan antzematen da baita ere alderik handiena lana aurkitzen duten (%62,92) eta lanik aurkitzen ez duten (%24,88) gazteen artean.

Ondoren, alderatu egingo ditugu **euren lehen lana aztertutako aldi horretan aurkitu zuten gazteen kopurua eta 2000ko ekainean oraindik lehen lana aurkitu gabe zeuden gazteen kopurua**. Gogoan izan behar dugu, gazteek euren lehen lana bilatzen hasten direnean zein zailtasuni aurre egin behar dieten aztertzeke, arreta batez ere euren ikas-

²⁵ Ehuneko horiek aztertzerakoan, kontuan izan behar dugu EAEko lagina oso txikia dela eta, beraz, ezin dela ezer esan gainerako sektoreei buruz.

ketak amaitu edo eten zituztenean lana bilatzeari ekin zioten gazteengan jarriko dugula eta, beraz, bukaerako lagin horretatik kanpo geratuko dira arrazoi ezberdinak direla medio lana bilatzen aritu ez ziren gazteak (guztira, 13 gazte EAEn eta 361 Estatuan). Laginetik kanpo utzi dira, baita ere, oso kasu arraroak; adibidez, ikasketak 30 urterekin edo gehiagorekin amaitzen dituztenenak, ikasketa horiek hirugarren mailako unibertsitateko ikasketak baino maila behe-ragokoak direnean. EAEn, azpilagin horri dagokionez, ez dago lan bila ari den 29 urtetik gorako gizabana- korik. Horrela, beraz, bukaerako lagina 122 gaztek osatuta dago (2.074 Estatuan), horietatik %51,64 emakumezkoak izanik (%51,54 Estatuan).

4. taulan, bi gazte-talde horien ezaugarri nagusiak ditugu. Horko datuen arabera, lehen lana aurkitu zutenen taldeak batez ere gizonezkoak hartzen ditu bere baitan, guztizko gazte-kopurutik %63; aldiz, el- karrizketa egin zen unean oraindik lehen lana aurkitu ez zutenei dagokien taldea batez ere emakumeek osatuta dago, hots, taldearen %74.

Ikasketa-mailari dagokionez, bi talde horien arte- ko alde nabarmenenak ikasketa-maila baxuenean antzematen dira (alegia, bigarren hezkuntzako ikas- ketetan edo beheragoko mailetakoen). Lana aurkitu zuten gazteen artean, ikasketa-maila hori duten gaz- teen ehunekoa %3 baino ez da eta lana aurkitu ez zu- tenen artean, berriz, ehuneko hori %19 da.

Ikasketa-sektorearen arabera, lana aurkitu zuten gazteen taldean sektore jakin batzuk nagusi direla ikus dezakegu; aldiz, lana aurkitu ez zuten gazteen ar- tean, sektoreak sakabanatuago daude. Lana aurkit- zea lortu zuten gazteen taldean, horietatik %70 bi sektore nagusitan banatzen dira: zientzia teknikoen sektorean (laginaren %48) eta gizarte-zientzien sek- torean (%21). Lana aurkitzerik lortu ez duten gazteen taldeari dagokionez, horietatik %28k gizarte-zient- zien sektorea aukeratu du euren ikasketak egiteko eta %26k, berriz, oinarritzko ikasketen sektorea. Az- ken sektore hau aukeratu dutenen artean, %5ek bai- no ez du lana aurkitzen.

Gurasoen ikasketa-mailari erreparatuta, lana aur- kitu zuten gazteetatik %63ari eta lana aurkitu ez zu-

tenetatik %79ari dagokionez, aitek lehen hezkuntza- ko ikasketak ditu (Estatuan %58 eta %65, hurrenez hurren). Lana aurkitu zuten gazteen %19ari dagokio- nez aitek unibertsitateko ikasketak ditu; ostera, lana aurkitu ez zuten gazteen kasuan, %9k baino ez du ai- ta prestakuntza-maila horrekin (Estatuan %17 eta %12, hurrenez hurren). Nola lan-egoerara hala langa- bezia-egoerara igarotzen diren gazte askoren kasuan, amak batez ere lehen hezkuntzako ikasketak besterik ez ditu.

Halaber, gurasoen *lan-egoera* ere aztertu da. Aita edo ama lanean badago, zein jarduera-sektoretan egiten duen lan zehazten da; aldiz, lanik egiten ez ba- du, langabezian edo ez-aktibo dagoen adierazten da. Lana aurkitu zuten gazteetatik, batek berak ere ez du aita langabezian eta lana aurkitu ez zutenetatik, %2k baino ez du aita egoera horretan (Estatuan %3 eta %7, hurrenez hurren). Aita gehienek, nola lana aurki- tu zuten gazteenak hala lana aurkitu ez zutenenak, batez ere industriaren sektorean eta zerbitzu-sektore- an egiten dute lan. Nola lan-egoerara hala langabe- zia-egoerara igaro ziren gazteen guztizko kopurutik, gehiengoaren kasuan ama inaktibitate-egoeran dago; hala eta guztiz ere, lan egiten duenetan, batez ere zerbitzu-sektorean egiten du lan, nola EAEn hala Es- tatuari dagokienez.

Autonomia-erkidegoen inguruko datuei errepara- tuz gero, lana aurkitu zuten gazteak batez ere honako autonomia-erkidego hauei dagozkie: %15 Andaluzia- ri, %12 Kataluniari, %11 Gaztela eta Leoni, %7 Va- lentiari, beste %7 Madrili eta %7 baita ere Euskal Autonomia Erkidegoari. Langabezia-egoerara igaro ziren gazteetatik, %29 Andaluzian bizi da, %10 Gaz- tela eta Leonen, %7 Katalunian eta beste %7 bat Ga- lizian.

6. taulan, bereganatutako ikasketa-maila eta eu- ren ikasketak egiteko aukeratutako sektorea aintzat hartuta²⁶, bi gazte-taldek lehen lana bilatzen eman- dako batez besteko denbora (hilabete-kopurua) aur- kezten zaigu, sexuaren arabera bereizita. Lehen talde horretan, lehen lana aurkitu duten gazteak barneratu- ko lirake soil-soilik (horien guztien kasuan, langa- bezia-aldia amaitu da); eta bigarrenean, berriz, gazte

²⁶ Zenbait laukitan daturik ez egoteak esan nahi du, esku artean dugun lagina aintzat hartuta, EAEn talde horretan ez dagoela ikas- keta-maila edo sektore hori duen emakume edo gizonik.

4. TAULA. JARDUERAREN ARABERAKO ALDAGAI NAGUSIEN BATEZBESTEKOAK

Aldagaia	EAE				Estatua			
	Lana		Langabezia		Lana		Langabezia	
	Batezb.	Desb.est.	Batezb.	Desb.est.	Batezb.	Desb.est.	Batezb.	Desb.est.
Gizonak	0,63	0,49	0,26	0,44	0,55	0,50	0,41	0,49
Ikask. bukatu zireneko adina min-max	21,56	2,69	21,32	2,75	21,19	3,23	21,10	3,22
	16-29		16-27		16-29		16-29	
Ikasketa-maila								
2. hezk. edo beherago	0,03	0,16	0,19	0,40	0,17	0,37	0,20	0,40
Batxilergoa	0,04	0,20	0,09	0,28	0,09	0,28	0,10	0,30
Erdi-mailako LLH	0,11	0,31	0,09	0,28	0,11	0,31	0,11	0,31
Goi-mailako LLH	0,39	0,49	0,19	0,40	0,23	0,42	0,20	0,40
Diplomaturak	0,24	0,43	0,21	0,41	0,16	0,37	0,18	0,39
Unibertsitatea	0,20	0,40	0,23	0,43	0,25	0,43	0,21	0,41
Ikasketa-sektorea								
Oinarrizkoak	0,05	0,23	0,26	0,44	0,25	0,43	0,29	0,46
Hezkuntza eta giza zientziak	0,11	0,31	0,15	0,36	0,06	0,24	0,10	0,31
Gizarte-zientziak	0,21	0,41	0,28	0,45	0,26	0,44	0,25	0,44
Zientzia hutsak	0,01	0,12	0,02	0,15	0,06	0,24	0,06	0,24
Zientzia teknikoak	0,48	0,50	0,13	0,34	0,23	0,42	0,11	0,31
Natur eta osasun-zientziak	0,08	0,27	0,09	0,28	0,09	0,28	0,13	0,34
Zerbitzuak	0,05	0,23	0,09	0,28	0,05	0,22	0,05	0,21
Gurasoen ikasketak								
Aitak unibertsitatea	0,19	0,39	0,09	0,28	0,17	0,37	0,12	0,33
Aitak batxilergoa	0,09	0,29	0,09	0,28	0,09	0,28	0,10	0,30
Aitak bigarren hezkuntza	0,09	0,29	0,04	0,20	0,17	0,38	0,13	0,34
Aitak lehen hezkuntza	0,63	0,49	0,79	0,41	0,58	0,49	0,65	0,48
Amak unibertsitatea	0,07	0,25	0,04	0,20	0,08	0,27	0,06	0,24
Amak batxilergoa	0,13	0,34	0,06	0,25	0,08	0,27	0,06	0,24
Amak bigarren hezkuntza	0,09	0,29	0,19	0,40	0,16	0,37	0,18	0,38
Amak lehen hezkuntza	0,71	0,46	0,70	0,46	0,68	0,47	0,70	0,46
Aitaren lan-egoera								
Lanean nekazaritzan	0,01	0,12	0,00	0,00	0,07	0,25	0,06	0,23
Lanean industrian	0,40	0,49	0,40	0,50	0,21	0,41	0,19	0,40
Lanean eraikuntzan	0,08	0,27	0,09	0,28	0,12	0,32	0,12	0,32
Lanean zerbitzuetan	0,36	0,48	0,26	0,44	0,42	0,49	0,36	0,48
Langabezia	0,00	0,00	0,02	0,15	0,03	0,18	0,07	0,25
Ez-aktibo	0,15	0,36	0,23	0,43	0,15	0,36	0,21	0,41
Amaren lan-egoera								
Lanean nekazaritzan	0,01	0,12	0,00	0,00	0,03	0,17	0,02	0,14
Lanean industrian	0,03	0,16	0,02	0,15	0,04	0,19	0,02	0,14
Lanean eraikuntzan	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,06	0,00	0,05
Lanean zerbitzuetan	0,19	0,39	0,36	0,49	0,23	0,42	0,20	0,40
Langabezia	0,08	0,27	0,00	0,00	0,06	0,23	0,06	0,24
Ez-aktibo	0,69	0,46	0,62	0,49	0,64	0,48	0,70	0,46
Gutziko langabezia-tasa	18,16	2,28	16,89	2,30	17,90	2,33	17,56	2,37
min-max	13,83-20,88		13,83-20,88		13,83-20,88		13,83-20,88	
Aztertutako hilabete-kopurua	22,24	9,99	16,55	9,65	21,12	10,26	19,39	10,45
Kasu-kopurua	75		47		1.136		938	

Iturria: EIN, "BAI, Hezkuntzarik lan-merkatutako igarotzeen modua" (2000ko 2. hiruhilekoa).

guztiak barneratuko lirateke, bai lehen lana aurkitu zutenak eta baita elkarrizketa egin zenean (hots, 2000ko ekainean) oraindik lanik aurkitu ez zutenak ere (batzuen langabezia-aldia amaitu da, baina beste batzuen ez).

Lana aurkitu zuten gazteei dagokienez (horientzat, lana bilatzen emandako denboraldi osoa hartu dugu kontuan, alegia, taulako lehen bi zutabeak), ikus dezakegu batez beste EAEko gizon eta emakumeek ia den-

bora berdina behar izan zutela lehen lana aurkitzeko, hots, 8,75 hilabete emakumezkoek eta 8,21 hilabete gizonzkoek. Estatuan, emakumeek, batez beste, gizonen baino hilabete eta erdi gehiago behar izan dute lehen lana aurkitzeko. Alde hori hiru hilabetera heltzen da diplomaturako ikasketak dituzten gizonzkoak eta emakumezkoak alderatuta, eta bi hilabete eta zenbait egunera unibertsitateko ikasketak dituzten gizonak eta emakumeak alderatzen baditugu.

5. TAULA. ALDAGAI NAGUSIEN ARTEKO BATEZBESTEKOAK, JARDUERAREN ARABERA

Autonomi Erkidegoa	Lana		Langabezia	
	Batezb.	Desb.Est.	Batezb.	Desb.Est.
Andaluzia	0,15	0,36	0,29	0,46
Aragoi	0,06	0,24	0,03	0,18
Asturias	0,02	0,13	0,04	0,19
Balearrak	0,03	0,16	0,01	0,12
Kanariak	0,06	0,23	0,04	0,20
Kantabria	0,02	0,15	0,02	0,13
Gaztela eta León	0,11	0,31	0,10	0,30
Gaztela-Mantxa	0,06	0,24	0,06	0,24
Katalunia	0,12	0,32	0,07	0,25
Valentzia	0,07	0,26	0,05	0,22
Extremadura	0,03	0,16	0,04	0,20
Galizia	0,05	0,22	0,07	0,25
Madrid	0,07	0,26	0,05	0,22
Murtzia	0,03	0,18	0,03	0,18
Nafarroa	0,03	0,18	0,02	0,13
EAE	0,07	0,25	0,05	0,22
Errioxa	0,02	0,14	0,01	0,10
Ceuta eta Melilla	0,00	0,07	0,01	0,09

Iturria: EIN, "BAI, Hezkuntzarik lan-merkatutarako igarotzeen modulua" (2000ko 2. hiruhilekoa).

Lehen lana azkarren aurkitu zuten emakumezkoak erdi-mailako lanbide-heziketako ikasketak zituztenak izan ziren (4,5 hilabetetan). Horien atzetik, goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak zituzten gazteak ditugu; horiek 5 hilabete behar izan zituzten lehen lana aurkitzeko. Denbora gehien behar izan zutenak unibertsitateko ikasketak dituzten emakumezkoak izan ziren, 12,86 hilabete behar izan baitzituzten lehen lana aurkitzeko. Estatuan, emakumezkoen kasuan, berri, bigarren hezkuntzako edo maila beheagoko ikasketak eta goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak egin zituztenak behar izan zuten denbora gehien.

Goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak zituzten gizonezkoetatik (hau da, EAEko gizonezkoen %51), lana aurkitu zutenek 6,58 hilabete behar izan zituzten horretarako. Horiek dira lehen lana aurkitzeko denbora gutxien behar izan zutenak, diplomaturak eta unibertsitateko ikasketak egin zituztenekin alde-

6. TAULA. LANA BILATZEN EMANDAKO BATEZ BESTEKO DENBORA, SEXUAREN ARABERA (PARENTESI ARTEAN, DESBIDERATZE ESTANDARRA) ESTATUA

	EAE				Estatua			
	Osoa		Osoa eta ez-osoa		Osoa		Osoa eta ez-osoa	
	Emak.	Gizonak	Emak.	Gizonak	Emak.	Gizonak	Emak.	Gizonak
Ikasketa-maila								
Bigarren hezk. edo gutx.	—	3,00	17,14	15,75	8,52	8,67	15,01	12,73
	—	(0,00)	(11,41)	(15,95)	(8,03)	(8,61)	(11,36)	(10,86)
Batxilergoa	6,00	6,50	16,50	16,33	13,32	10,44	17,46	13,46
	(0,00)	(3,54)	(13,30)	(17,21)	(10,40)	(8,66)	(10,53)	(10,41)
Erdi-mailako LLH	4,50	9,50	11,00	10,83	9,43	9,81	14,48	13,49
	(4,51)	(16,34)	(13,08)	(14,44)	(7,59)	(8,83)	(10,08)	(10,73)
Goi-mailako LLH	5,00	6,58	9,83	7,69	10,49	9,91	14,45	14,33
	(1,87)	(8,18)	(8,08)	(8,77)	(8,27)	(8,71)	(10,00)	(11,32)
Diplomaturak	9,64	10,43	13,63	10,44	10,54	7,24	15,73	11,87
	(7,45)	(9,24)	(8,24)	(8,03)	(8,61)	(7,41)	(10,46)	(10,44)
Unibertsitatea	12,86	12,25	12,53	11,00	11,35	8,99	14,33	13,11
	(10,33)	(7,74)	(7,96)	(7,11)	(9,00)	(7,39)	(10,17)	(9,85)
Ikasketa-sektorea								
Oinarriz.	6,00	5,33	17,20	18,17	10,46	9,30	16,09	12,93
	(0,00)	(3,21)	(12,04)	(15,22)	(9,28)	(8,69)	(11,10)	(10,68)
Hezkuntza eta giza zientziak	15,60	11,33	15,64	13,75	11,00	8,77	15,56	14,52
	(9,53)	(9,07)	(8,08)	(8,85)	(9,73)	(8,95)	(10,15)	(11,32)
Gizarte-zientziak	7,67	14,25	11,75	13,00	11,61	10,09	15,26	14,92
	(8,02)	(8,22)	(9,93)	(7,65)	(8,94)	(8,33)	(10,62)	(10,81)
Zientzia huts.	—	6,00	—	9,00	9,87	10,37	13,48	14,40
	—	(0,00)	—	(4,24)	(8,88)	(8,43)	(10,00)	(9,95)
Zientzia teknikoak	8,00	7,94	8,00	8,55	8,55	8,52	11,64	11,54
	(7,07)	(9,36)	(7,07)	(9,30)	(9,46)	(7,93)	(10,97)	(10,32)
Natur eta osasun-zientziak	6,17	—	10,90	—	10,53	9,22	15,81	14,84
	(4,71)	—	(8,10)	—	(7,08)	(7,77)	(9,35)	(10,34)
Zerbitzuak	8,00	1,50	11,00	1,50	8,43	8,00	12,17	15,81
	(4,24)	(0,71)	(3,10)	(0,71)	(6,36)	(8,75)	(8,93)	(11,88)
Guztira	8,75	8,21	12,97	10,03	10,65	9,15	15,04	13,20
	(7,57)	(8,82)	(9,26)	(9,96)	(8,69)	(8,30)	(10,41)	(10,66)
Kasu-kopurua	28	47	63	59	512	624	1.069	1.005

Iturria: EIN, "BAI, Hezkuntzarik lan-merkatutarako igarotzeen modulua" (2000ko 2. hiruhilekoa).

ratuta²⁷. Estatuan, gizonen kasuan, lana aurkitzeko, batez beste, denbora gutxien behar izan zutenak diplomaturako ikasketak, bigarren hezkuntzakoak edo maila beheragokoak edota unibertsitatekoak egin zituztenak izan ziren.

Ikasketa-sektorearen arabera, natur eta osasun-zientzien sektoreko emakumeak dira lehen lana aurkitzeko denbora gutxien behar izan zutenak eta, ondoren, gizarte-zientzien sektoreko emakumeak. Bestalde, euren ikasketak hezkuntza eta giza zientzien sektorean egin zituzten emakumeak izan ziren lehen lana aurkitzeko denbora gehien behar izan zutenak. Denbora gutxien zientzia teknikoaren sektoreko gizonen kasuan behar izan zuten eta denbora gehien, aldi, gizarte-zientzien sektorekoak.

Espanian, ikasketa-sektorea aintzat hartuta lan-gabeziaren batez besteko iraupenean gizon eta emakumeen arteko alderik handiena hezkuntza eta giza zientzien sektorean dago; bertan, emakumeek gizonen baino 2 hilabete gehiago behar dituzte batez beste. Gainerako ikasketa-sektoreetan, ez dago hainbesterainoko alderik gizon eta emakumeen artean. Esan behar da zientzia hutsen sektorean emakumeek, batez beste, gizonen baino ia hilabete gutxiago behar izan zutela lehen lana aurkitzeko.

Lana aurkitu duten nahiz ez duten gazte guztiak barneratzen dituen laginari dagokionez (6. taulako azken bi zutabeak), emakumezkoek lana bilatzen eman duten batez besteko denborak ia hiru hilabetetan gaintzen du gizonen dagokiena (Estatuan, emakumeek lana bilatzen ematen duten batez besteko denbora gizonen ematen dutena baino ia hilabete gehiago da). Bigarren hezkuntzako ikasketak edo maila beheragokoak dituzten emakumezkoek eman dute denbora gehien lana bilatzen, hau da, 17,14 hilabete; horien atzetik batxilergoko ikasketak dituzten emakumezkoak daude (16,50 hilabete). Goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten gazteak dira batez beste lehen lana azkarren aurkitzen dutenak

(9,83 hilabete). Gizonen artean ere, goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituztenak dira denbora gutxien behar dutenak lana aurkitzeko (7,69 hilabete).

Emakumezkoen kasuan bezala, batxilergoko ikasketak eta bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten gazteak dira denbora gehien behar dutenak, 16,33 eta 15,75 hilabete, hurrenez hurren. Unibertsitateko ikasketak dituzten gazteek, nola emakumezkoak hala gizonen kasuan, urtebete inguru behar dute lehen lana aurkitzeko.

Ikasketa-sektoreari dagokionez, berriz ere oinarriko ikasketak dituzten emakumezkoak eta gizonen kasuan dira lana bilatzen denbora gehien eman dutenak. Emakumezkoen artean, euren ikasketak natur eta osasun-zientzien sektorean egin dituzten gazteak dira denbora gutxien behar dutenak lana aurkitzeko²⁸, hots, 10,9 hilabete; horien atzetik, euren ikasketak zerbitzu-sektorean egin dituztenak daude. Gizonen kasuan, ikasketak zientzia teknikoetan egin dituzten gazteek eman dute denbora gutxien, 8,55 hilabete; horien atzetik, gizarte-zientziakoak daude, euren lehen lana 13 hilabete bila ibili ondoren aurkitu baitzuten.

3.2. Lehen lana aurkitzeko aukerak eta bilatze-denbora

Atal honetan, analisi ekonometrikoa egingo dugu. Lehenik eta behin, 15 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago dituzten gazteek euren ikasketak amaitu edo eten ondoren (hau da, inolako lan-esperientziarik gabe) lehen lana aurkitzeko dituzten aukerak zenbatetsiko ditugu. Ondoren, aukera horiek xehetasun handiagoz aztertuko ditugu, bilatze-denboraren arabera (alegia, lehen lana aurkitzeko denbora gehiago edo gutxiago behar den). Lehen azpiatalean, Estatu osoaren analisia egingo da eta, ondoren, EAEn. Bi kasuetan, lagina oro har aztertuko da eta, gero, generoaren arabera, hots, gizonen eta emakumeen buruzko datuak bereizita.

²⁷ Taula honetan ikus dezakegunaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan bigarren hezkuntzako ikasketak edo maila beheragokoak dituzten gazteak izango lirake lana aurkitzeko denbora gutxien beharko luketenak; horien atzetik batxilergoko ikasketak dituzten gazteak egongo lirake. Baina 2 kasu baino ez dira ematen talde bakoitzerako eta, beraz, horiek ez dute lagin adierazgarria osatzen. Oinarriko ikasketen eta zerbitzuen sektoreari (gizonen kasuan eta emakumezkoen kasuan), zientzia teknikoaren sektoreari (emakumezkoen kasuan) eta hezkuntza eta giza zientzien sektoreari (gizonen kasuan) dagokienez ere, arazoa bera da; hau da, oso kasu gutxi dagoela.

²⁸ Zientzia teknikoaren sektorean bi emakume baino ez daude eta zientzia hutsen sektorean eta zerbitzuen dagokienean, bi gizon baino ez.

Aztertutako laginak, kasu honetan, euren ikasketak 1991tik 2000ko ekainera bitarteko aldi amaitu edo bertan behera utzi dituzten gazteak barneratzen ditu. Gazte horien datuak azken data horretara arte helden dira. EAEren kasuan, eta autonomia-erkidego honetan bizi diren gazteen lagina txikia denez (122 parte-hartze), aldi osoa baino ez da aztertu, eta sexuaren araberrako banaketarik egin gabe. Hori dela eta, ezinezkoa da aztertzea zeinen azkar aurkitu daitekeen lana bilatze-denbora aintzat hartuta, edo sexuaren araberrako ikerketa egitea, eta, beraz, analisi hau Estatu osorako guztizko lagina aintzat hartuta egingo da.


3.2.1. Lehen lana aurkitzeko aukerak EAEn aldi osoan zehar

EAEko gazteek lehen lana aztertutako aldi aurkitzeko dituzten aukerak batez beste %62,05 dira, eta, beraz, Estatuko gazteenak 7 puntutan gainditzen dituzte.

1. grafikoan, EAEko gazteek, euren ezaugarriak erreferentziazko taldearen ezaugarriekin alderatuta,

lehen lana aurkitzeko dituzten aukerak nola aldatzen diren aztertuko dugu, interesatzen zaizkigun aldagai ezberdinek (sexua, ikasketa-maila, ikasketa-sektorea, gurasoen lan-egoera, e.a.) aukera horietan duten eragina neurtu ahal izateko. Eragin hori neurtu ahal izateko, erreferentziazko gizabanakoak, bate-tik, eta beste gizabanako batek, bestetik, lehen lana aurkitzeko dituzten aukerak alderatu behar dira (beste gizabanako hori aldagai batengatik bakarrik ezberdintzen da erreferentziazko gizabanakotik; gainerako aldagai edo ezaugarri guztiak berdin edo konstante mantentzen dira). Kasu honetan, *erreferentziazko gizabanakoa* emakumezkoa da; bigarren hezkuntzako ikasketak edo maila beheragokoak ditu eta bere gurasoek lehen hezkuntzako ikasketak dituzte edo inaktibitate-egoeran daude²⁹. Erreferentziazko gizabanakoak lehen lana aurkitzeko oso aukera gutxi ditu, %0,3 baino ez, nahiz eta beste ezer baino lehen aipatu beharrekoa den gizonezko gazteek emakumezko gazteek baino aukera gehiago dituztela lehen lana aurkitzeko (aldea 2 portzentaje-puntuakoa da).

1. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (LEHEN EDO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASKETAK DITUEN EMAKUMEA, AITAK LEHEN HEZKUNTZAKO IKASKETAK ETA EZ-AKTIBO) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK). EAE



²⁹ Estatu osorako laginari buruz egin den analisisan ez bezala, erreferentzia gisa aita ez-aktiboa hartu da, aita langabearen ordez, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren lagineko gazteetatik batek berak ere ez baitu aita langabezia.

Zenbatespenen emaitzek erakusten dutenaren arabera, EAEn gazteek lehen lana aurkitzeko dituzten aukerak gehitu egiten dira *sektore-maila eta motaren* arabera. Horrela, beraz, zientzia teknikoetako goi-mailako LLHko ikasketak izateak, lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketak izatearekin alderatuta, 59 portzentaje-puntutan gehitzen ditu lehen lana aurkitzeko aukerak. Zerbitzuen arloko goi-mailako LLHko ikasketak izanez gero, aukera horiek 22 portzentaje-puntu gehitzen dira. Halaber, gizarte-zientzien sektoreko goi-mailako LLHko ikasketak izanez gero, aukerak 14 portzentaje-puntu gehitzen dira. Gizarte-zientzietako unibertsitateko ikasketak eta zientzia teknikoetako diplomaturaren bat izateak, hurrenez hurren, 7,5 eta 6 portzentaje-puntutan gehitzen ditu aukerak.

Hortaz, goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak dituzten gazteek lehen lana aurkitzeko aukera gehiago dituzte maila hori baino goragoko ikasketak dituzten gazteek baino. Egoera hori, beharbada, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-sektore garrantzitsuenetako bat industria delako sortu da. Izan ere, Enpleguko Institutu Nazionalaren (INEM) Lanbideen Behatokiak eskualde-lanari buruz egindako 2001eko txostenak erakusten duen moduan, EAEn asetzen ez diren lan-eskaintza gehienak industriakoak dira:

“Industriak pairatzen du gehien eskulan gabezia. Jende ugari behar da, besteak beste: soldatzaileak, hodi-langileak, egitura metalikoen muntatzaileak, zurgin metalikoak, ibilgailuen txapistak, galdaragileak, teknikari elektronikoak, argiketariak eta mantentze elektromekanikoko teknikariak³⁰.”

Lanpostu horiek betetzeko, gehienetan goi-mailako lanbide-heziketako kualifikazioa izatea eskatzen da.

Aitaren lan-egoerak eta aitaren eta amaren ikasketak ez dute inolako eraginik lehen lana aurkitzeko aukeretan. Amaren lan-egoerari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu zerbitzu-sektorean lan eginez gero, semeak edo alabak lehen lana aurkitzeko dituen aukerak portzentaje-puntu bat murrizten direla.

3.2.2. Lehen lana aurkitzeko aukerak estatuan

2. grafikoak erakusten digu batez beste zein aukera dauden lehen lana aurkitzeko, nola aldi osoan zehar (1997tik 2000ko ekainera bitartean) hala lana bilatzen denbora gehiago edo gutxiago eman den aintzat hartuta. Aukera horiek *batez besteko gizabanakoarentzat* (guztizko laginaren analisiari dagozkion emaitzetan oinarrituta), *batez besteko gizonezko gaztearentzat* (gizonezko gazteen azpilaginaren analisiari dagozkion emaitzetan oinarrituta) eta *batez besteko emakumezko gaztearentzat* (emakumezko gazteen azpilaginaren analisiari dagozkion emaitzetan oinarrituta) kalkulatu dira.


Estatu osoari dagokionez, aztertutako denboraldi horretan gazteek lehen lana aurkitzeko dituzten aukerak batez beste %54,77 dira; ehuneko horretatik, %62 gizonezkoei dagokie eta %48, beraz, emakumei. Lana aurkitzeko batez besteko aukerak %20 edo zertxobait gutxiago murrizten dira hiru taldeetan, lehen lana hiru hilabetera edo gutxiagora aurkitzeari dagokionez.

Aztertutako aldi guztietan, gizonezkoek batez beste aukera gehiago dituzte emakumezkoek baino. Halaber ikus dezakegu zenbat eta denbora gehiago eman lana bilatzen, orduan eta aukera gehiago dagoela lana aurkitzeko. Gehikuntza hori batez ere lana bilatzen 3 eta 6 hilabete bitartean ematen dutenen artean antzematen da. Hortik gora, hazkuntza-tasa murriztu egiten da, batez ere lana bilatzen 12 hilabete baino gehiago ematen denean.

Ondoren, lehen lana aurkitzeko aukeren analisi empirikoa egingo dugu. Analisi hori egiteko, *erreferentziazko gizabanakoa* hartu behar dugu, interesatzen zaizkigun aldagai ezberdinek (sexua, ikasketak, maila, ikasketak, sektorea, gurasoen lan-egoera, e.a.) aukera horietan duten eragina neurtu ahal izateko. Erreferentziazko talde gisa hartutako gizon edo emakumeak (kasuan kasu) honako ezaugarriak ditu: bigarren hezkuntzako ikasketak edo maila beheargokoak ditu, gurasoek lehen hezkuntzako ikasketak edo maila beheargokoak dituzte eta, euren seme edo alabak ikasketak amaitu edo eteten dituen une-

³⁰ www.inem.es/observatorioocupacional

2. GRAFIKOA. LEHEN LANA AURKITZEKO BATEZ BESTEKO AUKERAK, BILATZE-DENBORAREN ARABERA (GUZTIZKOA ETA SEXUAREN ARABERAKO)



an, aita langabezian dago eta ama ez-aktibo dago. Gizabanako hori erreferentziatzen hartzearen arrazoiak da aldagai ezberdinen eragina argiago ikusten dela gainerako taldeak gizabanako horrekiko alderatuta. 2. grafikoan, erreferentziatzko gizabanakoak lehen lana aurkitzeko dituen aukerak agertzen dira; horrek askoz ere aukera gutxiago ditu aurreko grafikoko batez besteko gizabanakoak baino.

Grafiko honetan, sexuari dagokionez bakarrik desberdinak diren bi gizabanako alderatzen dira. Horrela, ikus dezakegu aztertutako aldi osoko uneren batean lehen lana aurkitzeko dauden aukerak oso gutxi direla. Gizonezkoen kasuan, %18 dira eta emakumezkoen kasuan, berriz, %11. Aukera horiek bilatzen emandako denboraren arabera aztertuz gero, erreferentziatzko emakumeak gizonezkoak baino aukera gehixeago ditu lana hiru hilabetetan edo gutxiagorik aurkitzeko. Gainerako bilatze-denborei dagokionez, gizonak dituzten aukera gehiago. Gizon eta emakumeen arteko alderik handiena 6 eta 15 hilabete bitarteko bilatze-denboran ikus dezakegu.


Horiexek, beraz, guztizko laginak dituen ezaugarri nagusiak. Orain, *lehen lana aurkitzea zein faktorek*

baldintzatzen duten eta horretarako zenbat denbora behar den aztertuko dugu. Aurreko ataletan bezala, lehenik guztizko laginaren analisiari dagozkion emaitzak ematen dira eta, ondoren, sexuaren arabera (gizon eta emakumeen egoera bereiz ikusteko) egindako analisiari dagozkionak.

Emaitzak grafikoen bidez erakusten dira, horrela, errazagoa baita aztertutako aldagaiek lehen lana aurkitzeko aukeretan zein eragin duten ikustea. Grafiko horietan, lehen lana aurkitzeko aukerak erreferentziatzko gizabanakoak dituen dagokionez nola aldatzen diren ikusiko dugu gizabanako honen ezaugarrietako bat aldatzen denean (gainerako ezaugarri edo aldagaiak berdin edo konstante mantentzen dira). Horien arteko aldea portzentaje-puntutan ematen da.

Aldaketa hori ezberdina den ezaugarri horrek lehen lana aurkitzeko dauden aukeretan duen eragina dela esan dezakegu. Aldaketa positiboa bada, ezaugarri horrek lehen lana aurkitzeko aukerak gehitzen dituela esango dugu. Aitzitik, aldaketa negatiboa bada, orduan, aldagai horrek lehen lana aurkitzeko aukeretan eragin negatiboa duela esango dugu (alegia, lana aurkitzeko aukerak murriztu egiten dituela).

3. GRAFIKOA. ERREFERENTZIAZKO GIZABANAKOAK LEHEN LANA AURKITZEKO DITUEN AUKERAK, BILATZE-DENBORAREN



Grafikoetan, erreferentziazko taldeak aztertutako hiru laginei dagokienez (gutzizko lagina, gizonzkoen azpilagina eta emakumezkoen azpilagina) dituen aukerak agertzen dira; aldagai-aldaketak aukeretan eragin esanguratsua dutenean bakarrik aipatuko dira.

a) Lehen lana aurkitzea baldintzatzen duten faktoreak: lagin osoari dagozkion emaitzak

Kasu honetan, erreferentziazko talde gisa hartutako emakumeek honako ezaugarriak dituzte: bigarren hezkuntzako lehen etapako edo maila beheeragoko ikasketak dituzte, Andaluzian bizi dira eta gurasoek lehen hezkuntzako ikasketak edo maila beheeragokoak dituzte; aita langabezia dago eta ama ez-aktibo dago. Erreferentziazko taldeak lehen lana aurkitzeko dituen aukerak %13 dira aldi osoan.

Orain, lehen lana aurkitzeko aukerak erreferentziazko gizabanakoak dituen dagokienez nola aldatzen diren ikusiko dugu gizabanako honen ezaugarrie-


tako bat aldatzen denean. 3. grafikoan emakumezkoa izan ordez, *gizonezkoa* izanda, lehen lana aurkitzeko aukerak nola aldatzen diren aztertuko dugu. Aukera horiek ia 8 portzentaje-puntu gehitu dira aldi osoan zehar eta %13tik %21 izatera igaro dira.

Gizonezkoa izateak ere gehitu egiten ditu lehen lana aurkitzeko aukerak bilatzen emandako denbora aintzat hartuta. Aukera horiek pixkanaka-pixkanaka joaten dira gehitzen, 12 hilabeteko bilatze-denborara heldu arte. Hilabete-kopuru horretatik gora, konstante mantentzen dira. Era berean, gizonezkoa izanda, lana azkar (alegia, hiru hilabetera edo gutxiagora) aurkitzeko aukerak hiru portzentaje-puntutan baino ez dira gehitzen.

5. grafikoan lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketak dituen emakumezkoa izan ordez, beste *ikasketa-mailaren bat* duen emakumezkoa izanda, lehen lana aurkitzeko aukerak nola aldatzen diren aztertuko dugu³¹. Aldi osoari dagokionez, bigarren hezkuntzako ikasketak edo maila beheeragokoak iza-

³¹ Aipatu beharrekoa da grafiko horretan ez direla adierazten ikasketa-maila eta mota guztiak; aldi, lehen lana aurkitzeko aukerak erreferentziazko taldeari dagokionez modu esanguratsuan aldatzen dituzten ikasketa-maila eta motak bakarrik jasotzen dira.

4. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, SEXUAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (EMAKUMEAK) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK)



tearekin alderatuta lehen lana aurkitzeko aukerak gehien handitzen dituen ikasketa-maila eta mota zientzia teknikoari (ingeniaritzeari) dagozkien unibertsitateko ikasketak dira, zehazki 26 portzentaje-puntutan. Horien atzetik, diplomaturak eta goi-mailako lanerako lanbide-heziketako ikasketak egongo lirarteke, biak ere ikasketa-sektore honetan. Eragin positiboren bat dute baita ere gizarte-zientzietako unibertsitateko ikasketek.


Grafiko horretan, emaitzak *bilatze-denboraren arabera* banakatzen dira. Ikus dezakegun bezala, ikasketa-maila eta mota batzuek lehen lana aurkitzeko aukerak aldatzen dituzte bilatze-denbora ezberdinetarako; maila edo mota horiek ez dira berak aldi guztietan. Horrela, lana azkar (3 hilabete baino gutxiagora) aurkitzen dutenen artean, ez dago alde nabarmenik ikasketa-maila eta mota ezberdinen artean. Nolanahi ere, natur eta osasun-zientzietan egindako goi-mailako lanbide-heziketako ikasketek bakarrik aldatzen dituzte lehen lana aurkitzeko aukerak, lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketekin alderatuta; gainera, modu negatiboan aldatzen dituzte aukera horiek, murriztu egiten baitituzte. Horren arabera, natur eta osasun-zientzietan egindako

goi-mailako LLHko ikasketak dituzten emakumezkoak lana hiru hilabetera edo gutxiagora aurkitzeko dituen aukerak gutxiago dira lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketak dituen emakumeak baino. Horren arrazoia izan daiteke bigarren hezkuntzatik gorako ikasketak dituzten pertsonen kontu handiagoz aukeratzen dutela lana bilatzeko orduan; hori dela eta, baztertu egin ohi dituzte kualifikazio-maila baxuagoko lanpostuetarako jasotzen dituzten laneskaintzak (lanpostu ez erakargarriak).

Lehen lana 3 hilabetera edo gutxiagora aurkitzen duten gazte gehienek kualifikazio gutxi behar izaten duten lanpostuak bete ohi dituzte, sektore ezberdinetan peoi gisa eta kualifikazio gabeko langile gisa aritu ohi direnekin gertatzen den bezala. Lanpostu horietan aritzeko, nahikoa izaten da goi-mailako LLH izatea.

Gainerako bilatze-denborei dagokienez, zientzia teknikoen sektorean egindako unibertsitateko ikasketak izanda, lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketak izanda baino aukera gehiago dago lehen lana aurkitzeko. Horren ildotik, aipatu beharrekoa da lehen lana 15 hilabetera edo gutxiagora aurkitzen dutenen kasua; izan ere, horiek 60 portzentaje-puntutan baino

5. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, SEXUAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK)



gehiagotan gehitzen ditu lehen lana aurkitzeko aukerak. Zerbitzuen sektoreari dagozkion goi-mailako LLH-ko ikasketak izateak nabarmen gehitzen ditu lana 12 hilabetera edo gutxiagora aurkitzeko aukerak. Gizarte-zientzien sektoreari dagozkion unibertsitateko ikasketak izanda, 15 portzentaje-puntutan gehitzen dira lehen lana 12 hilabetera baino gehiagora aurkitzeko aukerak. Natur eta osasun-zientzien sektorean egiten diren unibertsitateko ikasketak izanez gero, 20 portzentaje-puntutan gehitzen dira lehen lana 21 hilabetetik gora aurkitzeko aukerak.


6. grafikoa Andaluzean bizi ordez, beste *autonomia-erkidego* batean bizita, lehen lana aurkitzeko aukerak nola aldatzen diren aztertuko dugu. Aldi osoa aztertuz gero (1997tik 2000ko ekainera), aukera horiek gehien gehitzen dituen erkidegoa Balearrak dira (41 portzentaje-puntu); horren atzetik, Errioxa (32), Aragoi (29) eta Katalunia (29) ditugu. Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzeak, Andaluzean bizitzearekin alderatuta, 20 portzentaje-puntutan gehitzen ditu lehen lana aurkitzeko aukerak. Oro har, Andaluzean ez den beste edozein autonomia-erkidegotan bizitzeak lehen lana aurkitzeko aukerak gehitzen ditu; hori bat dator

aztertutako urteetan autonomia-erkidego bakoitzera-ko erregistratutako langabezia-tasekin, Andaluzean langabezia-tasa altuenak erregistratu dituzten autonomia-erkidegoetako bat baita.


Bilatze-denbora ezberdinak bereiztuta, ikus dezakegu bilatze-denbora 7 hilabetetik gorakoa ez den arte, autonomia-erkidego guztietan ez direla lehen lana aurkitzeko aukerak modu nabarmenean gehitzen, Andaluzean gertatzen den bezala. Gazteek euren ikasketak amaitu edo eteten dituztenean eta lehen lana bilatzen hasten direnean, lan hori hasierako bederatzi hilabeteetan aurkitzeko aukera gehiago izango dituzte Kantabrian, Nafarroan, Euskal Autonomia Erkidegoan, Valentzian, Katalunian, Madrilen eta Gaztela eta Leonen bizi diren gazteek. Bilatze-denborak 12 hilabete gainditzen duenean, autonomia-erkidego askotan lehen lana aurkitzeko aukerak nabarmen gehitzen dira, Andaluzean bizitzearekin alderatuta.

Horrela, autonomia-erkidego batean edo bestean bizitzeak modu nabarmenean baldintzatzen du lehen lana aurkitzeko eta hori azkarrago aurkitzeko aukera gehiago edo gutxiago izatea.

6. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, SEXUAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (ANDALUZIA BIZITZEA) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK)



7. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, GURASOEN IKASKETA-MAILAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (LEHEN HEZKUNTZAKO IKASKETAK DITUZTEN GURASOAK) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK)



Lehen lana aurkitzeko aukerak baldintzatzen dituzten beste faktore garrantzitsu batzuk *gurasoen ikasketa-maila* eta horien lan-egoera dira. 6. grafikoan gazteen gurasoek lehen hezkuntza baino maila goragoko ikasketak izanda, lehen lana aurkitzeko aukerak nola aldatzen diren (hots, nola gehitu edo gutxitzen diren) aztertuko dugu.

Kasu honetan, aita lehen hezkuntzako ikasketak izan ordez, bigarren hezkuntzako ikasketak baditu, 8 portzentaje-puntutan gehitzen dira aukerak, bilatze-aldi osoari dagokionez, eta 13 portzentaje-puntutan, banakako bilatze-aldiei dagokienez. Ostera, amak lehen hezkuntzako ikasketak izan ordez, bigarren hezkuntzako ikasketak baditu, seme edo alabak aukera gutxiago izango ditu lehen lana aurkitzeko, bai bilatze-aldi osoari dagokionez bai banakako bilatze-aldiei dagokienez. Amak lehen hezkuntzako ikasketak izan ordez, unibertsitateko ikasketak baditu, lana aurkitzeko aukerak gutxitu egiten dira bilatze-denbora 6 eta 12 hilabete artean dagoenean.

Egoera hori beharbada behar ekonomikoak eragin du. Gerta daiteke bigarren hezkuntzako ikasketak edo


unibertsitatekoak dituen amak lan hobea izatea lehen hezkuntzako ikasketak dituen amak baino; hori dela eta, semeak beharbada ez du hainbestearinoko beharrik izango lana bilatzeko eta, bilatzea erabakitzen badu ere, hautakorragoa izango da eta zenbait lan-eskaintza baztertuko ditu horiek ez bazaizkio oso erakargarriak iruditzen.

8. grafikoan, *aitaren lan-egoera* aintzat hartuta (zehazki, aita langabezian dagoenean), lehen lana aurkitzeko aukerak nola aldatzen diren aztertuko dugu. Aldi guztia aztertzean, ikus dezakegu lehen lana aurkitzeko aukerak 15 portzentaje-puntutan gehitzen direla aita, langabezian edo inaktibitate-egoeran egon ordez, nekazaritzako sektorean lan egiten badu, eta 12 portzentaje-puntutan zerbitzu-sektorean lan egiten badu.


Datuak bilatze-denboraren arabera aztertzen baditugu, ikus dezakegu aita lanean egoteak eragin positiboa duela lana bilatzen gehienez 9 hilabete ematen dituzten gazteengan. Hortik gora, eragin positibo hori ez dago hain zabalduta.

Aitak eraikuntzan lan egiteak nabarmen gehitzen ditu (hots, 24 portzentaje-puntutan) lana 6 hilabetera

8. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, AITAREN LAN-EGOERAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (AITA LANGABEZIAN) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK)



9. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, AITAREN LAN-EGOERAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (AMA EZ-AKTIBOA) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK)



edo gutxiagora aurkitzeko aukerak. Aitak nekazaritzan lan egiten badu, lana aurkitzeko aukerak 22 portzentaje-puntutan gehitzen dira.

Aita inaktibitate-egoeran badago, errazagoa da lana azkar aurkitzea. Zehazki, 9 portzentaje-puntutan gehitzen dira lana 3 hilabetera edo gutxiagora aurkitzeko aukerak. Eragin positiboa hain epe laburrean antzematearen arrazoia izan daiteke aita ez-aktiboek, batez ere pentsiodunak direnek, hobeto ezagutzen dutela nola funtzionatzen duen merkatuak eta, gainera, kontaktuak izan ditzaketela, horien bidez, informazioa lortzeko eta, horrela, euren seme-alabei lana bilatzen laguntzeko. Oro har, aitaren lan-egoerak eragin nabarmena eta positiboa du semeak edo alabak lehen lana hilabete gutxi batzuen buruan aurkitzeko aukeretan.

Amaren lan-egoerari dagokionez, 9. grafikoak erakusten du, aldi osoa azertu ondoren, amaren lan-egoerak ez duela eragin esanguratsurik bere semeak edo alabak lehen lana aurkitzeko dituen aukeretan. Bestela esanda, gazte baten ama lanean egoteak eta beste gazte baten ama inaktibitate-egoeran edo langabezian egoteak lehen lana aurkitzeko aukeretan duten eragina ez da oso ezberdina. Datuak bilatze-aldien arabera aztertuz gero, ordea, ikus dezakegu ama, inaktibitate-egoeran egon ordez, nekazaritzako sektorean edo zerbitzu-sektorean lanean badago, aukera gehiago dagoela lehen lana hiru hilabetera edo gutxiagora aurkitzeko. Amak sektore horietakoren batean lan egiten duenean ere, lehen lana aurkitzeko aukerak gehitu egiten dira 13 eta 18 hilabete bitartean bilatzen ematen dutenentzat.

b) Lehen lana aurkitzea baldintzatzen duten faktoreen analisisa, sexuaren arabera

Behin guztizko lagina aztertuta eta, lehen lana aurkitzeko orduan, gizon eta emakumeen artean dauden aldeak ikusi ondoren, analisi hau osatzeko ikerketa xehatua egingo dugu genero bakoitza bereiz aztertuta. Hasteko, **gizonezko gazteei** dagozkien emaitzak aurkeztuko ditugu.

10. grafikoan, lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketak izan ordez, beste *ikasketa-maila eta mota bat* duen gizonezko gaztea izanda, lehen lana aurkit-

zeko aukerak nola aldatzen diren aztertuko dugu. Gizonezkoei dagokienez, lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketak izatearekin alderatuta, zientzia teknikoaren sektoreari dagozkion diplomaturak edo unibertsitateko ikasketak izateak gehitu egiten ditu lehen lana aurkitzeko aukerak. Hala ere, eragin positibo hori lan bila 7 hilabete baino gehiago daramatzatenek antzematen dute. Lehen lana 6 hilabetera baino gutxiagora aurkitu ahal izateko, ez dirudi ikasketa-mailak eta sektoreak eragin aipagarria duenik.


Lana 6 hilabetera edo gutxiagora aurkitzeko aukeretan ez dago alde nabarmenik ikasketa-maila eta motaren arabera. Horrela, beraz, dirudienez, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten gazteek maila goragoko ikasketak dituzten gazteek adina aukera dituzte lehen lana 6 hilabetera edo gutxiagora aurkitzeko. Gizarte-zientzien sektoreari dagozkion unibertsitateko ikasketak izateak gehitu egiten ditu lana 10 eta 12 hilabete bitartean eta 19 hilabete baino gehiagoren buruan aurkitzeko.

11. grafikoan, *autonomia-erkidego* batean edo bestean bizitzeak lehen lana aurkitzeko aukeretan duen eragina aurkezten zaigu. Emaitzek erakusten digute, Andaluzian bizitzearekin alderatuta, gizonezko gazteak lehen lana aurkitzeko dituen aukerak nabarmen gehitzen direla beste erkidego batean bizi bada, esate baterako, Balearretan, Errioxan, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan edo Aragoian (aukerak 40 portzentaje-puntutan baino gehiagotan handitzen dira). Zehatzago, Kantabrian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Balearretan, Valentzian edo Gaztela eta Leonen bizitzeak aukera gehiago ematen ditu lana 3 hilabetera edo gutxiagora aurkitzeko.

Gurasoen ezaugarriak aztertuz gero, aitaren ikasketa-mailak eta amaren lan-egoerak ez dute eragin esanguratsurik gazteak lehen lana aurkitzeko dituen aukeretan. Bestalde, amaren ikasketa-mailak (11. grafikoa) eta aitaren lan-egoerak (12. grafikoa) badute eraginik —eta modu nabarmenean gainera— aukera horietan. Zehazki, amak lehen hezkuntzako ikasketak izan ordez, bigarren hezkuntzako ikasketak izateak eragin negatiboa du (9 eta 11 portzentaje-puntu bitartean, bilatze-aldiaren arabera).

Aitaren lan-egoerari dagokionez, aldi osoa aztertuta, aitak, langabezian egon ordez, nekazaritzako

10. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, IKASKETA-MAILAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK) GIZONEZKOAK



sektorean, eraikuntzakoan edo zerbitzuetan lan egiten badu, kasuan kasuko gazteak lehen lana aurkitzeko dituen aukerak 20 portzentaje-puntutan baino gehiagotan gehitzen dira. Bilatze-aldiaren arabera egindako analisiaren emaitzek erakusten dute aitzak sektore dinamikoren batean, esate baterako, eraikuntzan, lan egiten badu, bere semeak lehen lana 3 hilabetera edo gutxiagora aurkitzeko dituen aukerak modu nabarmenean gehitzen direla. Bestalde, aitzak industriaren sektorean egiten badu lan, lana aurkitzeko aukerak gehitu egiten dira, baina soilik 21 hilabete baino gehiago lan bila dabiltzanentzat.


Ondoren, **emakumezko gazteei** dagokien azpilaginaren analisia egingo da. 13. grafikoa, lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketak izan ordez, beste *ikasketa-maila edo motaren bat* izanda, lehen lana aurkitzeko aukerak nola aldatzen diren aztertuko dugu.

Aldi osoaren analisiak erakusten digu, emakumeek, lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketak izan ordez, zientzia tekniko eta hutsen sektoreko diplomaturak badituzte, lehen lana aurkitzeko dituzten


aukerak lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenenak baino handiagoak direla, aldea 33 portzentaje-puntukoa izanik. Natur eta osasun-zientzietako unibertsitateko ikasketak badituzte, lana aurkitzeko aukerak 21 portzentaje-puntu gehitzen dira. Zerbitzuen sektorean egindako goi-mailako LLHko ikasketek 18 puntu gehitzen dituzte lehen lana aurkitzeko aukerak eta gizarte-zientzien sektorean egindako unibertsitateko ikasketek, berriz, 12 portzentaje-puntu.

Bilatze-aldiaren arabeko analisisian, ikus dezakegu natur eta osasun-zientzien sektorean egindako goi-mailako LLHko ikasketak dituzten gazteek lehen lana 6 hilabetera aurkitzeko dituzten aukerak txikiagoak direla (10 portzentaje-puntutan baino gehiagotan) bigarren hezkuntzako ikasketak edo maila behe-ragokoak dituztenen aukerekin alderatuta. Bestalde, soilik lehen edo bigarren hezkuntzako ikasketak izatearekin alderatuta, zientzia tekniko eta hutsen arloko diplomaturak egiteak gehitu egiten ditu emakume batek 12 hilabete baino gutxiago bilatzen aritu ondoren lehen lana aurkitzeko dituen aukerak.


11. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (ANDALUZIAN BIZITZEA) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK) GIZONEZKOAK




12. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, GURASOEN IKASKETA-MAILAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (LEHEN HEZKUNTZA DUTEN GURASOAK) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK) GIZONEZKOAK



13. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, AITAREN LAN-EGOERAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (AITA LANGABEZIAN) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK) GIZONEZKOAK



14. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, IKASKETA-MAILAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK) EMAKUMEZKOAK



15. grafikoan Andaluzian bizi ordez, beste *autonomia-erkidego* batean bizita, emakumezko gazteek lehen lana aurkitzeko dituzten aukerak nola aldatzen diren aztertuko dugu.

Aldi osoa aztertuz gero, emakume batek lehen lana aurkitzeko dituen aukerak 30 portzentaje-puntutan baino gehiagotan gehitzen dira kasuan kasuko emakumea, Andaluzian bizi ordez, Balearretan, Katalunian edo Aragoian bizi bada. Emaitzak ikusita, horretarako aukerak 20 eta 27 portzentaje-puntutan gehitzen dira emakume hori Andaluzian bizi ordez, Kanarietan, Valentzian, Murtzian, Kantabrian, Gaztela-Mantxan, Nafarroan edo Madrilan bizi bada. Andaluzian bizi ordez, Gaztela eta Leonen edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizi bada, lehen lana aurkitzeko aukerak 14 eta 12 portzentaje-puntutan gehitzen dira, hurrenez hurren. Bilatze-aldiei erreparatuta, emakumezkoak lehen lana 3 hilabetera edo gutxiagora aurkitzeko dituen aukerak gehitu egiten dira Andaluzian bizi ordez, Errioxan edo Murtzian bizi bada.


Gurasoen ezaugarri dagokienez (16. grafiko), amaren ikasketak oro har ez du eraginik lehen lana aurkitzeko aukeretan; amak, lehen hezkuntzako

ikasketak izan ordez, bigarren hezkuntzakoak izateak bakarrik du eragina aukera horietan. Eragin hori negatiboa da eta aukerak 4 portzentaje-puntutan gutxitzen ditu. Aldiz, aitak, lehen hezkuntzako ikasketak izan ordez, bigarren hezkuntzakoak edo unibertsitatekoak baditu, alabak lehen lana aurkitzeko dituen aukerak gehitu egiten dira.


Bilatze-aldien araberrako analisiak berretsi egiten du, aitak bigarren hezkuntzako ikasketak izanez gero, nabarmen handitzen direla emakumezko batek lehen lana aztertutako aldietan aurkitzeko dituen aukerak.

Gurasoen lan-egoerari erreparatzen badiogu (17. grafiko), ikusiko dugu aitaren lan-egoerak ez duela eragin nabarmenik alabak lehen lana aurkitzeko dituen aukeretan. Aldiz, amaren lan-egoerari lotutako emaitzak aztertzen baditugu, ordea, ikus dezakegu, amak, inaktibitate-egoeran egon ordez, industriaren sektorean lan eginda, 16 portzentaje-puntutan gehitzen direla gazteek lehen lana aurkitzeko dituzten aukerak. Emakumezko gazteek euren lehen lana hiru hilabetera edo gutxiagora aurkitzeko dituzten aukerak handitu egiten dira amak nekazaritzako sektorean edo zerbitzu-sektorean lan egiten badu.


15. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (ANDALUZIAN BIZITZEA) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK) EMAKUMEZKOAK



16. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, GURASOEN IKASKETA-MAILAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (LEHEN HEZKUNTZA DUTEN GURASOAK) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK) EMAKUMEZKOAK



17. GRAFIKOA. BILATZE-DENBORA AINTZAT HARTUTA, LEHEN LANA AURKITZEKO DAUDEN AUKERAK, AMAREN LAN-EGOERAREN ARABERA, ETA ERREFERENTZIAZKO TALDEAREKIKO (AMA EZ-AKTIBOA) DAGOEN ALDEA (PORTZENTAJE-PUNTUAK) EMAKUMEZKOAK



3.3. Lehen lanaren ezaugarriak

Gazteen laneratzea aztertzeo, garrantzitsua da ikustea lehen lana aurkitzeko zein aukera dauden eta lehen lan hori azkar aurkitzen den edo ez, eta ondo ezagutzea zein faktore nagusik eragiten duten aukera horietan eta lehenago edo beranduago laneratzean, ondorengo kapituluetan ikusi ahal izango dugun bezala.

Hala ere, aipatutako alderdi horiek bezain garrantzitsua da ezagutzea zein motatako lanak eskaintzen zaizkien gazteei eta zeintzuk onartzen dituzten. Ezaugarri hori ezagutzea garrantzitsua da oso, lan-motak, besteak beste, gazteen burujabetze-aukerak eta, neurri batean, gazteen artean nagusi diren arazoei (ziurgabetasun ekonomikoa, etxebizitzaren prezioak, seme-alabak...) aurre egiteko ahalmena baldintzatzen baititu.


Atal honetan, gazteek euren ikasketak bertan behera utzi edo amaitzen dituztenean aurkitzen duten lehen lanaren ezaugarri nagusiak aztertzen dira. Gazteentzat lehen lana zein lanbideri dagokion eta lan hori ematen dien enpresa zein jarduera-sektoretan barneratzen den aztertuko dugu. Halaber, lan horri dagokionez sinatutako kontratu-motak, lanaldia eta enpresaren tamaina ere ikusiko ditugu. Ezaugarri horiek aintzat hartuta, gazteek, oro har, lehen lana aurkitzeko behar duten denbora ere aztertuko dugu; horretarako, aurreko ataletan egin dugun bezalaxe, lehenik eta behin guztizko lagina hartuko dugu eta, ondoren, bereiz, gizonezkoen eta emakumezkoen azpilaginak. Kasuan kasu, Estatu osoarekin alderatuta antzematen diren alde nagusiak adieraziko dira.

Lana aurkitu zuten EAeko gazte guztietatik, %18,67k ostalaritzako eta zerbitzu pertsonaleko langile kualifikatuen lanbidean aurkitu du lana (%15,58 Estatuan), eta %17,33k instalazio eta makinetako langileen eta muntatzaileen lanbidean (18. grafikoa). Beste zenbaitzuk, hots, %12k, laguntzako teknikari eta profesionalen lanbidean aurkitu du lana. Gazteei lana aurkitzeko aukera gutxien eman dizkieten lanbideak nekazaritza eta arrantzako langile kualifikatuen lanbidea (ehunekoa hemen zero da), zuzendaritza eta kudeaketako lanbidea (%4), kualifikazio gabeko langileen lanbidea (%5,33) eta administrazio-zereginetako langileen lanbidea (%5,33 EAEn baina %14,17% Estatuan) izan dira.

Datuak sexuaren arabera banakatzen baditugu, ikus dezakegu, EAEn bizi diren emakumezkoek dago-kienez, horiek batez ere ostalaritzako eta zerbitzu pertsonaletako langile kualifikatuen lanbidean (%39,29k), laguntzako teknikari eta profesionalen lanbidean (%17,86k) eta diplomaturetako profesionalen lanbidean (hemen ere %17,86k) aurkitu dutela bere lehen lana. Estatuan (19. grafikoa) egoera nahikoa antzekoa da, nahiz eta badiren zenbait alde esanguratsu. Esate baterako, lehen lana aztertutako al-dian aurkitu zuten 512 *emakumeetatik*, %88,28 5 lanbidetan biltzen da: %24,8 ostalaritzako eta zerbitzu pertsonaletako langile kualifikatuen lanbidean; %20,7 administrazio-zereginetako langileei dagoz-kien lanbideetan; %16,41 laguntzako teknikari eta profesionalen lanbidean; %16,21 unibertsitateko profesionalen lanbidean; eta %10,16 ziklo laburreko ka-rarrerak (diplomaturak) egin dituzten profesionalen lanbidean. Emakumezko gutxien biltzen dituen lanbidea eraikuntzan diharduten langile kualifikatuena da, bertan emakumeen %0,20k baino ez baitu lehen lana aurkitu.

Bestalde, EAeko gizonezkoek dago-kienez, horiek batez ere instalazio eta makinetako langileen eta muntatzaileen lanbidean (%27,66k), industriako langile kualifikatuen lanbidean (%17,02k), eraikuntzako langile kualifikatuen lanbidean (%10,64k) eta unibertsitateko profesionalenean (hemen ere %10,64k) aurkitu dute euren lehen lana. Estatuan, *gizonezkoak* modu homogeneoagoan banatzen dira 11 lanbideetan. Lehen lana aurkitu zuten 624 gizonezkoetatik gehienek kualifikazio-maila baxuagoko lanbidean aurkitu zuten, alegia, kualifikazio gabeko langile modura jardun zuten lehen lanean (%15,06). Lanbide horren atzetik, industriako langile kualifikatuen lanbidea (gazteen %14,1), unibertsitateko profesionalen lanbidea (%12,5) eta eraikuntzako langile kualifikatuen lanbidea (%11,54) daude

Oro har, emakumezkoen eta gizonezkoen erdiak maila ertaineko kualifikazio-maila eskatzen duten lanbideetan aurkitzen du bere lehen lana, nahiz eta lanbide horien artean, emakumezkoak batez ere bitan nagusitzen diren; alegia, ostalaritzako zerbitzuen sektoreko lanbidean eta diplomaturako ikasketak dituzten laguntzako teknikari eta profesionalen lanbidean (horien ordez, administrazio-zereginetan langileen

18. GRAFIKOA. GAZTEEK LANBIDEETAN DUTEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA. EAE

lanbidea dago Estatuan). Gizonak, aldiz, banatuago daude. Aipatu beharrekoa da EAEn, ez dagoela emakumerik maila baxueneko lanbidean (kualifikazio gabeko langileak; Estatuan ere zifra oso txikia da; hots, %4,69); gizonzkoen ehunekoa %8,51 da (Estatuan, %15,06). Ostera, kualifikazio-maila altua eskatzen duten lanbideetan (alegia, laguntzako teknikari eta profesionalen lanbidetik hasita zuzendaritza eta kudeaketaraino³²) emakume gehiago dago gizonzkoak baino; horietan, emakumezkoak %50 dira eta gizonzkoak, aldiz, %27,7 (Estatuan %45,12 eta %30,45, hurrenez hurren).

Lanbidea aintzat hartuta, euren lehen lana aurkitzeko behar izan zuten denborari dagokionez (20. eta 21. grafikoak), lehen lana azkarren aurkitu zuten emakumeek, batez beste, 6 hilabete behar izan zituzten ostalaritzako eta zerbitzu pertsonaletako teknikari kualifikatu gisa edo laguntzako teknikari eta profesional gisa. Lehen lana aurkitzeko zailtasun gehien izan zituzten lanbideak diplomaturetako profesionalena eta administrazio-zereginetako langileena izan ziren.


Gizonzko gazteei dagokienez, honako lanbide hauetan behar izan zuten denbora gutxien lana aurkitzeko: ostalaritza eta zerbitzu pertsonaletako langile kualifikatuen lanbidean (2 hilabete) eta eraikuntzako lanbide kualifikatuen lanbidean (3 hilabete). Aldiz, honako lanbide hauetan behar izan zuten denbora gehien lana aurkitzeko: industriako langile kualifikatuen lanbidean (11 hilabete) eta instalazio eta makinetako langileen eta muntatzaileen lanbidean (5 hilabete).

Lehen lana kualifikazio gabeko langileen lanbidean aurkitu zuten EAeko gazteen ehunekoa nahikoa baxua da, hots, guztizko laginaren %5,33koa. Gizonzkoen %8,51k bakarrik aurkitzen du lana kualifikazio gabeko langile gisa; aldiz, aztertutako laginean ez dago emakume bat bera ere lanbide horretan.


Estatuan, denbora gehien behar izan dutenak lehen lana zuzendaritza eta kudeaketako lanbidean, kualifikazio gabeko langileenean, administrazio-zereginetako langileenean eta laguntzako teknikari eta profesionalenean aurkitu dutenak izan dira, 10 hilabete baino gehiago, batez beste. Denbora gutxien be-

³² Lanbide hauetan aritzeko, beharrezkoa da gutxienez goi-mailako ikasketetako mailarik baxuena izatea; alegia, goi-mailako LLH.

19. GRAFIKOA. GAZTEEN ARTEKO LANPOSTU-BANAKETA, SEXUAREN ARABERA. ESTATUA




20. GRAFIKOA. LANBIDEA AINTZAT HARTUTA, LANA AURKITZEKO BEHARREZKO DENBORA, BATEZ BESTE, SEXUAREN ARABERA ETA GUZTIRA. EAE



har izan dutenak lana nekazaritza eta arrantzan diharduten langile kualifikatuen kategorian aurkitu dutenak dira, 7 hilabete batez beste. Ikus dezakegun be-

zala, alde handiak daude gizon eta emakumeen artean. Lana zuzendari edo kudeatzaile gisa aurkitu ohi duten gizonak dira denbora gutxien behar dutenak

21. GRAFIKOA. LANPOSTUA AINTZAT HARTUTA, LANA AURKITZEKO BATEZ BESTEKO DENBORA, SEXUAREN ARABERA ETA GUZTIRA




(batez beste 5 hilabete); aldiz, lana lanbide horretan aurkitzen duten emakumeak dira denbora gehien behar dutenak (batez beste 16 hilabete). Lana aurkitzeko denbora gehiago behar izan duten gizonak lana kualifikazio gabeko langileen lanbidean aurkitu dutenak dira; horretarako, 11 hilabete behar izan dituzte, batez beste. Lana azkarren aurkitu duten emakumeak lana industriako langile kualifikatuaren lanbidean eta instalazio eta makineta langileen eta muntatzaileen lanbidean aurkitu dutenak dira; batez beste, 6 hilabete behar izan dituzte.

Bestalde, EAeko gazteei lana ematen dieten enpresak zein jarduera-sektoretan barneratzen diren aztertzen badugu (22. grafikoa), gazteen ia erdiak, zehazki, %48k, zerbitzu-sektorean aurkitu zuen lehen lana eta %42,6k, aldiz, industriaren sektorean. Gainerako %9,33k eraikuntzaren sektorean aurkitu zuen bere lehen lana. Emakumezkoen gehiengoak, hots, %78,57k, zerbitzu-sektorean aurkitu zuen bere lehen lana eta gizonzkoen gehiengoak (alegia, %61,7k), ostera, industriaren sektorean aurkitu zuen. Enpresaren jarduera-sektore horietatik, gizonzkoek eraikuntzaren sektorean behar izan zuten denbora gutxien lana aurkitzeko, alegia, batez bes-


te 7 hilabete. Hala ere, emakumezkoek industriaren sektorean behar izan zuten denbora gutxien lehen lana aurkitzeko; hots, batez beste, 3 hilabete (23. grafikoa). Bai gizonzkoek bai emakumezkoek zerbitzuen sektorean behar izan zuten denbora gehien lehen lana aurkitzeko; izan ere, emakumezkoek batez beste 10 hilabete behar izan zituzten eta gizonzkoek 9.

Estatuan, egoera antzekoa da (24. grafikoa): gazte gehienek zerbitzu-sektoreko enpresetan aurkitu dutela lana, batez ere emakumezkoek (%82,23), baina baita gizonzkoek ere (%48,4). Horien atzetik, industria-sektoreko enpresak ditugu; horietan emakumeen %13,48k eta gizonzkoen %29,49k aurkitu du lana. Eraikuntzaren sektoreari dagokionez, gizonzkoen %17,79k eta, soilik, emakumezkoen %3,32k aurkitu du lana halako enpresetan. Enpresaren jarduera-sektore horietatik, gizonzkoek lana aurkitzeko denbora gutxien behar izan duten sektorea eraikuntzarena da, batez beste 8,71 hilabete behar izan baitzituzten. Aitzitik, emakumezkoek azkarago aurkitu zuten lana industriaren sektorean, batez beste, 9,19 hilabete baino ez baitzituzten behar izan (25. grafikoa).

22. GRAFIKO. EMPRESAREN JARDUERA-SEKTOREA AINTZAT HARTUTA, GAZTEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA. EAE




23. GRAFIKO. ENPRESAKO JARDUERA-SEKTOREA AINTZAT HARTUTA, LANA AURKITZEKO BATEZ BESTEKO DENBORA, SEXUAREN ARABERA ETA GUZTIRA (HILABETEA)




Gizonak eta emakumeak lehen lana aurkitzeari dagokionez *sinatutako kontratu-mota, lanaldia eta enpresaren tamaina* aintzat hartuta banatuz gero,

ikus dezakegu emakumeen herenak baino gutxiagok eta gizonen laurdenak baino gutxiagok lortzen dutela euren lehen lanean lan-kontratu mugagabea. EA-

24. GRAFIKOA. GAZTEEN ARTEKO LANPOSTU-BANAKETA, SEXUAREN ARABERA. ESTATUA



25. GRAFIKOA. ENPRESAKO JARDUERA-SEKTOREA AINTZAT HARTUTA, LANA AURKITZEKO BATEZ BESTEKO DENBORA, SEXUAREN ARABERA ETA GUZTIRA, HILABETEKO. ESTATUA



En (7. taula), esan dezakegu emakumeen %14,29k eta gizonen %10,64k lortzen dutela euren lanean ikasteko, prestatzeko edo praktikak egiteko aldi ba-

terako kontratua (Estatuan, emakumezkoen %7,42 eta gizonzkoen %10,26). Bestalde, emakumeen %100ak eta gizonen %97,87k lanaldi osoan egiten

dute lan (Estatuan, emakumeen %91,8 eta gizonezkoen %95,67)

Enpresaren tamaina aintzat hartuta, horren inguruan daukagun informazioa soilik Estatuko 895 gazteri (EAEko 55 gazteri) buruzkoa da. Horietatik, emakumezkoen erdiak baino gehiagok eta gizonezkoen %18,75ek (edo %47,43k Estatuan) enpresa txikietan aurkitzen dute euren lehen lana. EAEn, gizonezkoen gehiengoak (hots, %43,75ek) enpresa handietan aurkitzen du bere lehen lana, eta Estatuan, aldiz, lagina osatzen duten gizonezkoen %35,11k eta emakumezkoen %29,9k.

